



Jakingarriak



Haur hezkuntza (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan:



haurra, eskolaren eta familiaren artean (II)

Argitaratzailea: Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Erredakzioa: Mondragon Unibertsitatea.
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza
Tfnoa: 943-714157
Faxa: 943-714032
E.mail: liburutegia@huhezi.edu

Zuzendaritza: Nerea Alzola

Erredakzio Kontseilua: Nerea Alzola, Mari Karmen Apraiz, Joseba Azkarraga, Julia Barnes, Miren Gabantxo eta Pili Sagasta.

Monografikoaren arduradunak: Alexander Barandiaran, Rafael Cristóbal eta Iñaki Larrea.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Euskara zuzentzailea: Karmele Pérez

Erredakzio Idazkaria: Mari Karmen Apraiz

Diseinua: Maddi Trutxuelo

Inprimategia: Antza inprimategia

L.G.: SS-981/92

ISSN: 1697-6215

AURKIBIDEA

4

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

Liburu berrien albisteak

9

Artikulu aipagarriak

11

Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Haur hezkuntza (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan: Haurra, eskolaren eta familiaren artean (III)

16

Rafael Cristóbal:

Haur Eskola jakintza zientifikoaren argitar.
Nazioarteko 2. Simposioa. Haurra eskolaren eta familiaren artean

20

Hubert Montagner:

Haurraren funtzionamendua adir guztietar.
Cinarrizko gaitasunak lotura fenomenoetan eta emozioan,
afektibitatearen, harremanen, ngurunearen eta ezagutzaren garapenean

30

Hubert Montagner:

Haur eta nerabeen erritmoen oinarri biopsikologikoak.
Ingurunearen, eskolaren eta familiaren eragina

40

Hubert Montagner:

Beste hurbilpen bat haurren loturen garapenera eta
haurren jokabideei. Estrategia berriak eskola porrotari,
jokabide nahastei eta marjinazioari aurre egiteko

48

Hubert Montagner:

Non a antolatu haur eskolak haurren garapena haien erritmo eta
gaitasunen arabera, loturak eta jokabide sozialak suspertzeko

56

Christianne Roy-Menetrier:

Haurraren arretarako baliabideen antolakuntza Antenne Petit enfance du
franche-comte erakundearen kerketa-datuen arabera.

66

Brigitte Pagot:

Eguneroko bizitzaren antolamendua haur eskolan: harrera, guresoekin
harremanak eta denbora eta espazioaren antolamendua

70

Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea:

0-3ko haur eskolaren etaluzia

78

BALIABIDEAK

Alboan

Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo.

Liburu berrien albisteak



Díez Navarro, M. C. (2002)

El piso de debajo de la escuela. Los afectos y las emociones en el día a día de la escuela infantil.

Barcelona: Graó

Liburu honek haur eskolan ematen diren hainbat esperientzia jasotzen du: esperientzia xumeak, eguneroko gauzak, kanpoan edota gure barnean gertatzen direnak; eginkizunak, emozioak, sentimenduak, pozak eta tristurak; gelan dauden pertsonen eragina edo bisitan datorren jendearena; elkarrekin egindako ekintzak edo bakardadean, taldeko bizitza eta inimitatea, etab.

Autorearen ustez, hezkuntzak eskatzen digu lau ardatzetan oinarrituz lan egitea. Ez dira zehazki De-lors-en hezkuntza-zutabeak, baina, nolabait, pareka ditzakegu haren proposamenekin: pasioa (afektuak eta utopiarekiko eta pertsonetikiko determinazioa), inteligentzia, komunikazioa eta sormena.

Testuan, egileak asko aipatzen du “beheko solairua” (“piso de abajo”) toki sinboliko moduan, espazio horretan egosten baitira gure bizitza emozionala, gure desio sakonenak, gure beldurrak eta gure ekin-tza eta jarreraren ahots ezkutuak.

Egileak, esan bezala, ez du egiten diskurtso teorikorik. *Pentsamendu narratzailea* oinarrian hartuta, esperientzia narratzen du: sentimenduak, elkarreki-ko harremanak, proiektuak... Eta norbaitek, liburu honetan, haur eskola edo gela bateko bizitza ondo planifikatzeko diskurtso logikoa espero badu, jai dauka. Ez, irakurlea murgiltzen da bizitzaren mugimenduan eta konplexutasunean eta berari dagokio hori ordenatzea eta fruitua ateratzea, egileak espero baitu testua irakurlearen ispilu izatea.

Mari Carmen Díez-ek hezitzaileari ideiak ematen dizkio eta pertsonalki eta askatasun guztiarekin pentsatzera bultzatzen du. Eta hori ez da gutxi.

Oso liburu atsegina da eta enkantuz betea.

Nerea Azola Maiztegi
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Bilbao Bilbao, B. (2003)

Curriculum eta Kultura Euskal Herrian

Donostia: Utriusque Vasconiac

Ez ote da nabarmenki frogatzen agintean daudenen ideologiaren erreprodukzioarako tresna direla testuliburuok? Galdera honi erantzuna eman nahi izan dio Begoña Bilbao irakasleak Curriculum eta Kultura Euskal Herrian izeneko bere tesian.

Antzinako eztabaida baldin bada gure artean Euskal Hezkuntza Sistema bera orokorrean, agian une honetan burukomin bat baino gehiago sortzen diguna da Euskal Herriko ikastetxeetan ematen dena euskal curriculum den ala ze demontre ote den.

Curriculum gaiak gaurkotatuta du, batez ere Aznarren legegaldian izandako hezkuntza erasoengatik, hauexek sekula baino gehiago erakutsi baitigute ze interes estrategiko dagoen gobernu buru izatera iritsitakoaren artean hezkuntzan ematen diren edukiak kontrolatzeko, “batasun konstituzionala”ren izenean inongo lotsarik gabe pentsamendu bakar, uniforme, bateratu bat inposatzeko. Ezagunak dira PP-k ezarri nahi izandako legeak (Humanitate Legea, edota ger-

tukoa dugun Kalitate Legea) baina, baita ere, euskal argitaletxeen aurka eurek egindako irainak eta salaketak, edota Euskal Herria kontzeptua bera ere gure testuliburuetan azaltzearen aurkako jarrekek eragindakoak. Ez dugu aipatuko Nafarroan Sanz presidentek izandako “euskal” hitzarekiko fobia, denon ahotan ibili izan delako (edo dabilelako). Beraz, bazirudien ideia eta kontzeptu oker eta kaotikoari “orden berri” bat inposatu behar zitzaiola.

Hala ere, badago motiborik horrela jartzeko? Benetan gure testuliburuetan edota curriculumean ematen den euskal dimentsioa hain euskalduna da, beste errealitate batzuk baztertzera ino?

Eguna da esateko Euskal Herriari eta euskal kulturari buruz gure curriculum eta testuliburuetan transmititzen dena desegokia eta mugatua dela. Are gehiago, Iparraldean kokatzen badugu geure burua, bertan, euskal izaeraren transmisioa sinbolikoa besterik ez dela.

Alegia, mugatua dela esaten dugu paisaian, gastronomian, jaietan, edo kiroltan oinarritzen delako, geureari izaera turistiko eta folkloriko bat emanez. Euskara, mitologia, musika, dantzak, pertsonaiak ere agertzen badira ere, urriagoak dira. Euskal kultura lehen hezkuntzako 5. mailan lantzen den unitatea baino ez da, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari erreferentziak eginez lantzen da, Nafarroa eta Iparraldea, berriz, oso gutxitan agertuz. Erkidego mailako lotura, beraz. Galdu egiten da, bada, Euskal Herriarekiko lotura.

Horrela, Euskal Herriko ez Iparraldeko ezta Hegoaldeko umeek ere ezin dute euskal izaera osoaren ikuspegia bereganatu. Are gehiago, A, B edota D erduan badabil, euskal izaeraren distortsioa areagotu egiten da, eta ezin izango dute zehazki kokatu han eta hemen hainbeste aipatzen den Euskal Herria.

Begoña Bilbaok liburuan azpimarratzen duen asmo batekin bukatu nahi dut: *“Testuliburuaren demokratizazio bat eskatu nahi dugu, bestela testuliburuaren jabeek inposatuko dute curriculum, jende askoren asmo eta gogoaren gainetik”*.

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



ALBOM, M. (2002)

Martes con mi viejo profesor

Madrid: Maeva ediciones

Liburu honek irakasle eta ikasle baten harremanaz hitz egiten digu, Morrie eta Mitch-en arteko harremanaz hain zuzen ere.

Mitch-ek, ikasketak amaitu eta graduatu zen egunean, hitz eman zion Morrie-ri kontaktuan jarraituko zutela, baina Mitch-ek ez zuen agindutakoa bete eta, nahiz eta batzuetan bere irakaslearengan pentsatu, kontaktua guztiz galdu zuten.

Urteak pasatu ziren. 1994an, froga asko egin ondoren, Morrie-ri alboko esklerosi amiotrofikoa diagnostikatu zioten medikuek eta adierazi zioten bere bizitzako azken etapan sartu zela. Morrie-k, bere bizitza amaitzeko denbora gutxi falta zela ikustean, pentsamendu filosofikoak idazten zein bere inguruko koei transmititzen hasi zen, hau da, irakasle izan nahi zuen amaieraraino. Morrie-ren lagun batek — unibertsitateko irakaslea bera — Morrie-ren pentsamendu filosofiko horiek *“Boston Globe”*-eko kazetari bati bidali zizkion eta hark Morrie-ri buruzko artikulu bat idatzi zuen: *“La asignatura final de un catedrático: su propia muerte”*. Artikulu horrek telebistako *“Nightline”* programakoen interesa piztu zuen eta Morrie-ri elkarrizketa bat egitera joan ziren.

Mitch-ek programa hori ikusi zuen eta bere irakaslearen egoeraz ohartzean bisitan joatea erabaki zuen. Morrie-k ilusio handiz jaso zuen Mitch-en bisita eta, hortaz, asteartero joaten hasi zen. Asteartero bizitzako balore batez mintzatzen ziren. Morrie-k bere azken ikasgaia emango zion Mitch-i: *Bizitzako baloreak eta horien garrantzia*.


Mitch eta Morrie-ren arteko elkarrizketek argi erakusten dute gizakiok materialismoarekiko dugun menpekotasuna. Pertsonok gure lanarekin, diruarekin, kotxearekin, telebistarekin... itsututa gaude eta ez gara gure inguruan dauden eta bizitzako funtsezko elementuak diren gauzez ohartzen: maitasunaz, familiaz, naturaz...

Egoera hori kezagarria da, bizitzako gauza ederez gozatu gabe desagertuko baikara egunen batean, eta bizitzak ez du atzera bueltarik. Gizarte honi indibidualismoaren kiratsa dario eta bizitzak ez du zentzurik guztion arteko harremanik ez badago. Indibidualismoak jende askoren bakardadea sortzen du; izan ere, norberaren golkora begira dagoen pertsona ez baita gai izango bere inguruko pertsonekin harreman estu bat mantentzeko, ezta beste pertsonen maitasuna adierazteko ere. Gure inguruko pertsonen maitasuna adierazten ez badiegu, beraiek ere ez digute inongo maitasunik emango eta izaki bakartiak bihurtuko gara, inork ez gaitu gogoan izango beren albotik desagertzen garenean. Morrie-k zera esaten zuen: *“Amaos unos a otros o pereceréis”*. Guk jendeari ematen diogun maitasuna haien bihotzean geratzen da, beraz, gu hiltzen garenean gure zati batak bizirik irauten du.

Batak besteari entzutea ere funtsezkoa da; izan ere, besteei entzuten ikasiko bagenu, besteak ulertzeko gai izango ginatke eta ez lirateke horrenbeste arazo gertatuko. Besteak begiratu, entzun eta ulertzen ez baditugu, gure zorion proiektua motz gelditzen da.

Hitz egin dezagun heriotzaz, beldurraz, zahartzaroz, gutiziaz, ezkontzaz, familiaz, gizarteaz, barkamenaz edota emozioez; ezagutu dezagun benetako bizitza.

Ane Agirrezabalaga
Mondragon Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko
irakasletzako ikaslea



López, F., Aránega, S. (2003)

El mundo en guerra. La educación para la paz. Propuestas y actividades (3-12 años).

Barcelona: Graó

Bakearen inguruan hitz egiten denean, barnean, ahaztu ezinik, biolentzia eta gerra daude. Liburu hau ere ikuspegi horretatik idatzita dago: bakea proposatu, biolentzia eta gerraren fenomenoak ezaguturazi eta kritikatu.

Lanak bi zati nabarmen dauzka: lehena, teorikoa, hainbat kontzeptu lantzen dituen (biolentziaren eta gerraren sustraiak, gerrak historian, garapenerako hezkuntza, bake eta elkartasun baloreak, etab.); eta bigarrena, praktikoa, haur, lehen eta bigarren hezkuntzarako hainbat proposamen praktikorekin. Ekintzak askotarikoak dira eta, besteak beste, baloreak (elkartasuna, errespetua) nola landu, jolasak, materialak eta unitate didaktikoak eskaintzen dituzte.

Liburua hainbat artikulua eta proposamenen bilduma bat da eta modu errazean eraikita dago, lagungarria izan dadin irakasle eta tutoreentzat haien eskola edo aisialdi lanetan.

Ezin dugu ahaztu gerra ugari daukagula gure munduan —batzuk nahiko ezkutuak— eta biolentzia ikaragarria sortzen dela hainbat tokitan; beraz, gizakiarentzat bakea bilatzea eta biolentziaren iturri beltzak argira ateratzea erronka izugarriak dira. Eta zalantzarik gabe, gure ustez, hezkuntzaren funtzioa garrantzitsua da gai honetan, eta ezinbestekoa.

Beraz, nahi duenarentzat badago materiala eta, batez ere, gai honen inguruan jende konprometitua erreflexionatzen eta saiatzen hezkuntza-eremuetan.

Pentsamendu bakarrak sortzen duen inpotentzia fantasma bat dela intuiteak gure itxaropena elikatzen du.

Nerea Azola Maiztegi

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea



Igerabide, J. K... [et al.]. (2003)

Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?

Donostia: Euskal Idazleer Elkartea

Igerabide, J. K... [et al.]. (2003)

Poesia lantzeko gida

Donostia: Euskal Idazleer Elkartea

Euskal Idazleen Elkarteak prestatu du bilduma berria "Liburu Xarma", izenekoa. Helburua litzateke ikasgeletan literatura lantzea. Horretarako, besteak beste, argibideak eskaintzen dizkio irakasleari, eta, bide batez, gomendioak ematen literatura erabilgarri gerta dakigun. Funtsean, "Liburu Xarma" izeneko bilduma izango da irakurketa giden bilduma bat, non argitalpen bakoitza atonduko den genero jakin baten inguruan. Orain arte bi ale argitaratu dira. Bata da Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?; eta bestea, Poesia lantzeko gida.

Lehen liburuan, **Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?** izeneakoan, alegia, honako puntuak aurki daitezke garatuta:

1. Zer ez den egin behar liburu batekin. Horretarako, artikulu esanguratsu bat hartzen da abiapuntutzat, Gianni Rodari idazle eta haur literaturaren teoriko ospetsuak idatzitakoa, hots, *Umeei literatura gorrotatzen irakasteko era berria*. Hona ideia batzuk: liburu telebistaren ordezketea; liburu lan nekagarri eta tortura-tresna bilakatzea; haurri ez irakurtzea libururik gelan; eta abar.
2. Irakurleen eskubideak. Horretarako, oinarritzen

dira Daniel Pennac idazle frantziarrak idatzitako hamar eskubideetan: Bat, ez irakurtzeko eskubidea; bi, liburu ez amaitzeko eskubidea; hiru, edozein lekutan irakurtzeko eskubidea; lau, ozenki irakurtzeko eskubidea; bost...

3. Nondik, baina, hasi beharko genuke lantzen? Liburu honen egileek ("Txiliku", Antton Irusta eta Juan Kruz Igerabide) ideia batzuk azaltzen dituzte, hamaika guztira, zein baino zein interesgarriagoak.


Bigarren liburuan, aldiz, **Poesia lantzeko gida** izenekoan, honako puntuak aurki daitezke:

1. Nola lan daiteke poesia Haur Eskolan?
2. Eta Lehen Hezkuntzan?
3. Eta Bigarren Hezkuntzan?
4. Haur poesiari buruzko bibliografia. (Interesgarria benetan).

Oraingoz, bi ale atera dira, baina, badirudi, urte honen amaierako edo, beste bi argitaratzea espero dela, ipuinari zein antzerkiari buruzkoak.

Pello Añorga Lopez
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

Artikulu aipagarriak



RODARI, Gianni.: "Nuevas maneras de enseñar a los niños a odiar la literatura". *Educación y biblioteca* 138, 2008, pág. 18-22.

Hona aspaldiko artikulua, Gianni Rodarirena, berriro argitara eman dena *Educación y Biblioteca* aldizkarian. 1988. urtean argitaratu zen Aliorna argitaletxean, eta, orain, berriro ikusi du argia. Garbi baitago bertan lantzen den gaiak ez duela garrantzirik galdu. Ezta izpirik ere! Hona, bertan agertzen diren puntuak, literatura gorrotatzeko estrategia modura emanak: Liburua telebistaren alternatibatzat aurkeztea. Liburua komikien alternatibatzat aurkeztea. Haurrei jakinaraztea garai bateko haurrek baino gutxiago irakurtzen dutela. Haurrei aditzera ematea gauza gehiegi dituztela. Haurrei botatzea errua irakurketaren hautua ez egiteagatik. Liburua bortxaketaren erreminta bihurtzea. Haurrei ezer ez irakurtzea. Haurrei liburuak aukeratzeko biderik ez eskaintzea. Haurrak irakurtzera behartzea.

MILLÁS, Juan Jose.: "La literatura infantil o el vertedero". *Educación y Biblioteca* 140, 2004, pág. 17-19.

Educación y Biblioteca aldizkariak, noizean behin, argitara ematen ditu ez hain aspaldiko artikuluak, zein baino zein interesgarriagoak, *Siglo XX* izeneko sailean. Bada, oraingoan, Juan José Millas-en artikulua dator, 1984. urtean argitaratua. Hona, besteak beste, artikuluan agertzen diren bi ideia nagusi, biak haur literaturaren ingurukoak. Lehenengoa zera da: haurtzarora bihurtzea tramite huts bat — heldutasuneranzko bidean—; eta bigarrena, haurtzarora bihurtzea ez trantsitu bat baizik izateko modu bat, bere baitan datzana, balore eta zentzu batzuek hornitua. Horregatik, batzuentzat haur literatura inozoa eta osatugabea den bezala, beste batzuentzat ez da izango inozoa, infantila, edota heldugabea, baizik ahots propioa duena, autonomia, eta halaber heldua, hots, benetako literatura. Izan ere, garbi baitago helduon ikuspegiak erabat baldintzatzen duela haur literaturaren esparrua.

Nolako ikuspegia, halako jarrera.

Hogei urte pasa dira artikulua plazaratu zenetik, baina, aitortu beharra dago, ez duela gaurkotasunik galdu.

Secretaría de la Odra de CGT, FECCUO, FETE-UGT, USTEC-STES (2004). Per la coeducació, contra la LOCE. Manifest. *Perspectiva escolar* 281, 84-87.

Hainbat sindikatutako emakumearen departamentuek atera dute idatzi hau. Bertan hainbat balore aldarrikatzen dituzte, bai eta LOCEN agertzen diren haien kontrakoak kritikatzeko ere. Besteak beste, hizkuntzaren erabilpena, eskola inklusiboa, kulturartekotasunaren tratamendua, etab. Ahots desberdinak eta legeekiko ahots disonanteak entzutea interesgarria da.

Lluch Balaguer, Xavier (2003). Multiculturalidad: invisible en los libros de texto. *Cuadernos de Pedagogía* 328, 82-86.

Lluch-ek artikulu honetan azaltzen du kulturantzatasuna gure liburuetan ikusezina dela. Justifikazio gisa ikerketa bat egin zuen eta datu kualitatiboak eskaintzen ditu. Modu esplizitu nahiz inplizituan antzeman daiteke nola lantzen den kulturantzatasuna.

Berez, kulturantzatasuna gure eskoletan sartu da dagoeneko. Baina gure testu liburuek atzerapen dezente dakarte, tonu arrazista izugarria erabiltzen dute. Askok pentsatu ohi dugu testu liburuetan agertzen den guztia ondo dagoela, baina ikus daitekeenez ez da horrela. Beraz, zergatik behartzen ditugu ikasleak testu liburu berriak erostera, guztiz ondo ez badaude? Ez al da suposatzen berrituta daudela? Ez al dira curriculumera egokitzen?

Testu liburuetakok kulturantzatasunaren hutsune eta kutsu arrazista ikaragarriak adierazten dizkigu artikulu honek. Benetan harrigarria!

Ramos, E., Borrull, E. (2004). Miquel Martí i Pol: educando los sentimientos en la educación infantil. *Aula de infantil*, 17, 38.

Artikulu honetan autoreek Haur Hezkuntzako haurren esperientzia bat azaltzen digute: Miquel Martí i Pol poetarekin solasaldian eta haren poesia entzunez, sentsibilitatea eta sentimenduak landu eta sakondu dituzte. Poesiarekin begirada lantzen da, errealitatearekiko begirunea eta artearen bide zoragarriak irekitzen dira. Haur txikiak poesiarako prest daude eta, soilik, helduen ausardiaren zain.

Morin, E.; Sántora, A. (2004). Edgar Morin y los siete saberes necesarios para la educación del futuro. *Aula*, 128, 55-58.

Edgar Morin XX. mendeko europar pentsalari garrantzitsuenetakoa da. Nahiz eta filosofoaren pentsamendua oso zabaldua egon hainbat liburu eta artikulutan, elkarrizketa honek hainbat kontzeptu garrantzitsu gogoratzen dizkigu, besteak beste, etorkizuneko hezkuntzak behar dituen oinarritzko zazpi ezagutzak. Azpimarratzekoa da autoreak *pentsamendu konplexuaren* premia azpimarratzen duela.

(2004). 0-3 urteko haurrak eta euren eskolak. *Hik hasi*, 85, 8-17


Hik hasi aldizkariak 0-3 urteko haurren eskolaz monografikoa argitaratu du. Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza ziklo hori araututa dago behin-behineko dekretuarekin eta Nafarroan dekretuaren zain daude. Hamaika interes eta iritzi daude tartean eta eztabaida ugari, gaiak sozial eta ekonomikoki garrantzi handia baitu. Artikuluetan hainbat iritzi islatzen dira.

Sánchez Bello, A. (2004). Propuesta didáctica: rompiendo estereotipos sexistas. *Aula* 129, 89-96.

Proposamen didaktiko polita Aula aldizkariak eskaintzen diguna. Bertan elementu hauek aurkitu ditzakegu: sarrera teorikoa, hainbat pintzelada metodologiko, helburuak eta edukiak eta, amaitzeko, ikasleentzat ekintza proposamenak. Nahiz eta bertan aipatu Lehen Hezkuntzarako proposamena dela, esango genuke—zailtasun maila dela eta— LHko azken urterako edo DBHko lehenengo ziklorako ekintzak direla.

Nerea Alzola, Pello Añorga, Leire Jiménez eta Pili Sagasta.
Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Esan dute



La educación ética que yo propongo consiste fundamentalmente en escuchar. El sentido prioritario es la escucha, es un estar atento a la demanda del otro, a sus preocupaciones. [...] El punto de partida de la educación es la ética.

Juan Carlos Melich (2004).
Diálogos con la academia. El sentido de educar.
Aula, 128, 18



La universidad debe, sobretudo, enseñar a PENSAR, fomentar el sentido común, tan olvidado; debe fomentar un híbrido entre la generalidad y la especialidad, capacitar a los alumnos para aprender y DESAPRENDER. Debe formar tanto en TALENTO como en TALANTE”.

Fitzo dia: Globalización y Educación superior: Desafío en una era de incertidumbre. Miguel Ángel Escoler. Universidad de Deusto.
III SYMPOSIUM IBEROAMERICANO DE DOCENCIA UNIVERSITARIA. PEDAGOGIA UNIVERSITARIA: hacia un espacio de aprendizaje compartido. Universidad de Deusto 21-14 Enero 2004



...La biblioteca de hospital tiene, fundamentalmente, una misión de ayuda y asistencia al paciente, procurando que su estancia en el centro sea agradable y lo más corta posible. El uso de los materiales de la biblioteca como instrumento de terapia ha conducido de manera automática a la biblioterapia, que toma el libro como fuente de placer, diversión y conocimiento. El cuento no curará la enfermedad por sí mismo, pero incidirá positivamente en el niño enfermo, mejorando su disposición y su estado de ánimo”...

Dolores González, Marisa Parás. (2003). “Libros de cabecera. Una experiencia en los hospitales de Salamanca”. *CLIJ 166*, pag. 27-32.



“...Leer no es ningún juego, ni ninguna aventura, ni ningún viaje. Dejémosnos de tópicos y metáforas que en nada ayudan a entender el complejo acto lector. Leer es haber leído. Ello supone un ejercicio, un trabajo cognitivo y metacognitivo, un movimiento recursivo de la inteligencia y de la afectividad, de la memoria, del léxico, del imaginario social y simbólico y, en última instancia, de los conocimientos referenciales que uno alberga en su personalidad. Añádase a ello la coerción física real de estar en silencio...”

Victor Moreno. (2003). “¿Qué hacemos con la lectura?” *CLIJ 166*, pág. 7-13.



Lo que hace hospitalaria a una institución no son las cosas, sino las personas

Torrallba F. (2003). *Sobre la hospitalidad. Extraños y vulnerables como tú*. Madrid: PPC. p. 27



Francisco Garmendia (Universidad de Deusto). Solamente personas con capacidad explícita o implícita de PREGUNTAR pueden acceder al conocimiento. Si no hay preguntas, los datos sobran. Las personas somos conocimiento/ignorancia a la vez, el conocimiento es consustancial al género humano. Pero ahora el conocimiento está cada vez más socializado, pero además lo entendemos de manera diferente. Sabemos que genera riqueza, no solo económica, sino social y cultural, que todavía no conocemos muy bien. ¿Cuál es ahora el papel del profesor? Introducir a las personas en el arte de generarse preguntas y ayudarles a encontrar las respuestas.

Mesa Redonda

El papel de la universidad en la sociedad del conocimiento. Francisco Garmendia (UD), Mónica Mos (Cluster del Conocimiento) y Javier Ruiz (Labein)
III SYMPOSIUM IBEROAMERICANO DE DOCENCIA UNIVERSITARIA.
PEDAGOGIA UNIVERSITARIA: hacia un espacio de aprendizaje compartido.
Universidad de Deusto 21-14 Enero 2004



188-2078-0000



“...A los niños les chifla la poesía, de eso estoy plenamente convencida...¿Pero por qué hay tantos padres que no compran libros de poesía a sus hijos? Después de mucho investigar, de hablar con niños, maestros, librerías, editores, bibliotecarios..., he llegado a una conclusión: los que compramos los libros somos los mayores (padres, maestros y bibliotecarios) y somos nosotros los que tenemos los prejuicios...”

Carmen Gil. (2004). “Aprender la poesía a los niños”. *CLIJ 168*, pág. 19-27.



Existe la belleza y existen los humillados. Sean cuales sean las dificultades de la empresa, querría no ser jamás infiel ni a la una ni a los otros

Albert Camus (1996). *Retorno a Tipasa. Obras 3*, Madrid: Alianza, p. 598.



-Gure hizkuntza baliagarri izango da etorkizunean?

- “...gure barruan hizkuntza batek bizia hartzen badu, edo zentzurik badu, bizirik jarraituko du”.
(*Kirmen Uriberen erantzuna*)

Igor Arizmendiarieta (2004). “Gauza txikiak dute benetako garrantzia”.
Gaztetxulo 40. 17 or.



“...Harry Potter dela-eta Bilbaoko egunkari batean “azkenean haur literaturak badu duintasuna” irakurri nuenean haserretu nintzen. Eta pentsatu nuen “ze jendaila hau!, honek lotzen du duintasuna dolarrekin eta milioika libra irabazi dituen liburu batekin”. Ez dudanez irakurri, ez dut iritzi literarioerik. Baina, hain da bistakoa –Maurice Sendak, Michael Ende edo Lewis Carroll bezalako izenak etortzen zaizkit burura–, literaturaren historia umeentzat idatzi diren liburu eta ipuin zoragarriez beteta dagoela! Garrantzia izan dezake liburuak saldu eta zabalkunde bat izateak, eta gainera zabalkunde oso txikia badu oso kaltegarria. Baina hortik beste muturrera joatea... Hori litzateke esatea bezala Iglesias familiak azkenean eman diola duintasuna musikari...”

ARGIA. (2004). “Bernardo Atxagel”.
Argia 1930. 24-29 or.

Andersen Saria

HONA AURTEN ANDERSEN SARIA —HAUR LITERATURAN EMATEN DEN NAZIOARTEKO SARIRIK GARRANTZITSUENA— IRABAZI DUTEN BI AUTORE GARRANTZITSU: MARTIN WADDELL IDAZLEA ETA MAX VELTHUIJS ILUSTRATZAILEA.

MAX VELTHUIJS

La Hayan (Holanda) jaio zen 1923. urtean. Ikasketak Arnhem-eko akademian burutu zituen 1944. urtean. Artean zein diseinu grafikoan espezializatu zen eta badirudi agudo ekin ziola inprimaki politikoak diseinatzeari, baita postalak, posterrak, iragarki komertzialak, liburu azalak eta marrazki bizidunak ere. Erakusketak antolatu zituen Holandako galerietan eta klaseak ematen aritu zen Hayako Arte Akademian.

1968an ilustratu zuen lehen liburua. Eta, baita urte berean ere, berriz, bere lehen irudi-liburua argitaratuko du: *El niño y el pez*. Ordutik hona esan daiteke marraztu ez ezik, testuak ere idatzi dituela berak argitaratutako liburu guztientzat. Guztira, 40tik gora ditu argitaratuak, eta hizkuntza askotara itzuli dira, hala nola gaztelarrera, alemanera, frantsesera, japoniarra, korearrera... etab, baita euskarara ere. Iragan urtean, 80 urte bete zituela-eta, ospakizun berezia egin zioten Boloniako liburu-feria arranditsuan.

Hainbat sari jaso ditu, besteak beste, Holandako lehen zilarrezko arkatza, Holandako urrezko pintzela, Estatu Batuetako Ilustratzaileen elkarte saria, etab. Gure artean, hedapen dezentea izan du, batez ere "Saporen" pertsonaiari esker, arrakasta itzela lortu baitu. Velthuijs-en unibertsoa hain da identifikagarria! Jadanik ezagunak egin zaizkigu bere kolore biziak; familiako egoera umoredunak; animalien arteko elkarrizketa hurbilak, samurrak baino samurragoak, testua eta ilustrazioen arteko harreman banaezina, eta abar. Hona bere lanak:

- VELTHUIJS, Max. (1982). *El gentil dragón rojo*. Valladolid: Miñón. (Álbumes Ilustrados)
- (1991). *Demasiado ruido*. Madrid: Espasa-Calpe. (Austral infantil)
- (1991). *El cocodrilo pintor*. Madrid: SM. (Los Piratas)
- (1992). *Sapo enamorado*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (1992). *Sapo en invierno*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (1992). *Sapo y la canción del Mirlo*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (1993). *Krokodrilu margolaria*. Arrigorriaga: SM. (Pirata)
- (1994). *La Rana y el extrañío*. Barcelona: Timun Mas. (La Nube de algodón)
- (1994). *Sapo tiene miedo*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (1994). *Sapo y el forastero*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (1994). *Igela eta Arrota*. Donostia: Ttarttalo. (Kotoizko hodeia)
- (1995). *Igela beldurrez dago*. Donostia: Ttarttalo, 1995 (Kotoizko hodeia)
- (1995). *La Rana tiene miedo*. Barcelona: Timun Mas. (La Nube de algodón)
- (1996). *La Rana salva a sus amigos*. Barcelona: Timun Mas (La Nube de algodón)
- (1996). *Una torta de cumpleaños para Osito*. New York: North-South Books
- (1997). *La Rana tiene miedo y otros cuentos*. Barcelona: Círculo de Lectores
- (1997). *Sapo es Sapo*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)

Andersen Saria

- (1999). *Sapo y el ancho mundo*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (2001). *Sapo y un día muy especial*. Caracas: Ekaré. (Serie de Sapo)
- (2000). *Sapo y Cerdito*. Madrid: Anaya. (Mi primera sopa de libros)
- (2000). *Sapo y Liebre*. Madrid: Anaya. (Mi primera sopa de libros)
- (2000). *Sapo y Pata*. Madrid: Anaya. (Mi primera sopa de libros)
- (2000). *Sapo y Rata*. Madrid: Anaya. (Mi primera sopa de libros)

MARTIN WADDELL

Belfast-en jaio zen 1941. urtean. Haurtzaroa Newcastlen igaro zuen (Country Down), Ipar Irlandan, eta gaur egun ere bertan bizi da. 1966an argitaratu zuen *Otley*, bere lehen liburua, helduei zuzendutako nobela. Zinemara ere eramán zen, Tom Courtney eta Romi Schneider aktore ospetsuekin. Agudo, baina, lerratu zen haurrengana. Esaterako, 1972an argitaratu zuen lehen liburua, *In a Blue Velvet Dress [Un vestido de terciopelo azul]*, eta ordutik hona 150 liburutik gora argitaratu ditu. Esan behar da bere gaiek munduko haurren interesa pizten jakin izan dutela, eta oso era errazean iristen direla. Donlon kritikoak dioen bezala: “Waddell berezko umorista da, oso ondo dakielako bere buruaz barre egiten, barregarri geratzeko ukitu miresgarriaz”.

Gure artean ere oso harrera on izan du, batez ere “Osito” delako pertsonaiaren bitartez, sentiberatasunez zein samurtasunez betea. Baina Waddell ez da iristen haurrengana bakarrik, nerabeengana ere iristen da, beraien barne gatazkak ederki azaltzen baititu, bai eta Ipar Irlandako egoera politikoa ere.

Bere nobelak eta albumak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira eta leku askotan aurkitu dute oihartzuna, hala nola Estatu Batuetan, Frantzia,

Austrian, Belgikan..., eta errekonozimendu handiko sariak jaso izan ditu.

Hona haurrentzat idatzitako liburuak (gaztelerez denak):

- WADDELL, Martin (1990). *El gran desastre de los ratones verdes*. Barcelona: Ediciones B. (Wally)
- (1987). *La Princesa peleona*. Madrid: Anaya. (Fácil de leer)
- (1993). *El primer mordisco de Draculín*. Barcelona: Ediciones B. (Draculín)
- (1993). *Draculín en el cole*. Barcelona: Ediciones B. (Draculín)
- (1993). *Draculín en la playa*. Barcelona: Ediciones B (Draculín)
- (1993). *Las Navidades de Draculín* Barcelona: Ediciones B. (Draculín)
- (1994). *¡Ahí viene el malvado topo!* México: Fondo de Cultura Económica. (Los especiales de a la orilla del viento)
- (1994). *Las lechucitas*: Estados Unidos: Santillana U.S.A.
- (1994). *¿No duermes, Osito?*. Madrid: Kókinos
- (1996). *Tu y yo Osito*. Madrid: Kókinos
- (2000). *Muy bien, Osito*. Madrid: Kókinos


Haur Eskola jakintza zientifikoaren argitan

NAZIOARTEKO 2. SINPOSIOA. HAURRA

Rafael Cristóbal

Mondragon Unibertsitatea.
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

HAZITEGI-K EGINDAKO AURREKO BI “JAKINGARRIAK” ZENBAKIETAN NAZIOARTEKO 1. SINPOSIOAREN AURKEZPENA EGIN ZEN, ETA “HAUR ESKOLA EZAGUTZA ZIENTIFIKOAREN ARGITAN” IZANIK GAI OROKORRA, “HAURRA FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEAN” GAI ZEHATZA JORRATU ZEN ORDUAN. MARINUS VAN IJZENDOORN, LEYDEN-eko UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA, ETA KARIN GROSSMANN, REGENSBURG-eko UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA, IZAN ZIREN GAI HORRETAN BARRENA SARTU GINTUZTENAK. HAURRAK FAMILIAREN LUZAPEN GISA BIZI BEHAR DU HAUR ESKOLA.



Hirugarren zenbaki honetan, Mondragon Unibertsitateak 2003ko azaroan antolatu zuen Nazioarteko 2. Sinposioan emandako hitzaldiak aurkezten ditugu. Sinposio hark Haur Eskolan jarri zuen arreta.

Horregatik izenburua “Haurra eskolaren eta familiaren artean” izan zen. Eta Sinposio hura zuzentzeko Montagner irakaslea eta bere Eskola aukeratu genuen, bere ikerketa-lanak Franche Comté-n gauzatu dituelarik, batez ere. Sinposioan izan ziren, Montagner irakaslearekin batera, Mme. Christiane Roy Menetrier, Besançon-eko Enfance Petite Antenne Elkarteko lehendakaria, eta Mme. Brigitte Pajot, erakunde horretako Haur Eskolaren zuzendaria.

Montagner irakaslea munduko aditurik garrantzitsuenetakoa da haurrak beste haur batzuekin duen portaeraren —edo berdinkideen arteko portaeraren— ikerketan, baita haurraren ezagutza eta mugimenduzko garapeneren eta bere erritmo biologikoen ikerketan ere. Haurrak helduarekin —lehen eta bigarren mailako zaintzaileekin— duen harremana ere sartu duelarik bere ikerketan, Montagner irakaslearen arreta haurrek beren artean dituzten harreman-gaitasunak aztertzeraz

zientifikoaren argitan

ESKOLAREN ETA FAMILIAREN ARTEAN



Inaia Jara, Urtara 0003 eta Le. E. L. Urtara

bideratu da, eta garapen ebolutiboaren ezagutza eta mugimenduzko alderdietara. Psiko-Biologiako irakasle Besançon, Montpellier, Bordele eta Pariseko unibertsitateetan, azterketa hau batetik behaketa naturalista edo etologikoan oinarritzen da, eta bestetik portaera honen korrelatu fisiologikoetan.

Montagner irakaslearen ikerketaren merito berezia bere azterketen emaitza Haur Eskolaren antolakuntzari aplikatzea

izan da, bai proiektu pedagogikoa den aldetik eta bai bere espazio-antolakuntzan. Proiektu pedagogikoa eskolak haurraren jokabideetan gauzatzen da, eta hori haurren garapen ebolutiboak eskatzen duenaren arabera beren hazkunde psikologikoaren, erritmo biologikoen, parekideen arteko portaeren eta hurrek eskola-bizilekuan gurasoekin eta hezitzaileekin duten erlazioaren aldetik. Ikerketa hauek, beraz, argibide berriak eman dituzte sozializa-

zio gisa ezagutzen den dimentsio horretan.

Azterketa hauen argitan, Haur Eskola ez da umeak gordezko lekua gurasoak lanera joateko desagertzen diren bitartean, leku pribilegiatua baizik, non iratzar daitezkeen haurraren irudimen-, ezagutza- eta mugimendudimentsioak beste hurrekin eta hezitzaileekin elkarreraginez.

Honela bada, Montagner irakaslearen eta bere Eskolaren

ikerketa enpirikoak erakutsi du, bizitzan oso azkar —4. eta 5. hilabeteen artean— haurra espezi-fikoki interesatzen dela beste haur batzuekiko, eta horiekin harreman espezifikoa eta desberdinak ezartzen dituela guraso eta hezitzaileekin dituen harremanen aldean. Honela, imitazio-eredu bihurtzen da beste haurra, bilaketarako estimulu eta lankide. Honetaz asko ez zekien aurrez ikerketa-mundua. Halaber, lan hauek erakutsi dute haurrek beren egitura espazialak behar dituztela, baita beste haur batzuekin beren zereginak egiteko ere, helduen bistatik kanpo.

Haurraren gaitasun goiztiar hauen aurkikuntzak —eta horiek gauzatzeko egitura espazial egokiak besterik ez dira behar— aukera eman du zientifikoki jorrazteko gai erabakigarri bat: autonomiaren garapena haurraren-gan.

Egituraketa espazialaren mailan, Montagner irakasleak, Besançongo Unibertsitatean irakasle zela, Mme. Augusta Durinekin

topo egiteko zortea izan zuen, garai hartan emakume hau lehen irakaskuntzako ikuskatzaile zelarik Franche Comté-n. Hazitegi proiektuak harreman estua du Mme. Durin-ekin, eta lan teoriko garrantzitsua egin du haurraren dimentsio sakonei buruz eta eskatzen dituen hezkuntza-proiektuez eta testuinguru espazialez, talde-bizitzaren esparruan banakotasuna landuz bere garapena lortzeko aukera izan dezan.

Berea da Mme. Menetrier-ek aipaturiko pentsamendua.

“Luzaroan gizakiak uste izan zuen haurra mugatuta zegoela, baina geure mugek mugatzen dituzte haurrak, heldu edo nagusi bakoitzak zati bat bakarrik gaurkotu baitu bere kultur ingurumenaren garapenetik. Dena dago haurraren ahalmen edo gaitasun gisa, eta ahalmen edo gaitasun horrek bizitzako deia bakarrik behar du, kanpora atera dadin.

Gizartea haurra moldatzen saiatzen da dagokion gizarte-ka-

tegoriaren arabera, eta horrela aukera-pila bat moztzen zaizkio, sekula garatu ezingo dituenak”.

0-3 urte arteko haurraren eskola-bizitza egiteko lekuaren antolakuntza espazialari dagokionez, Mme. Durinek honela ulertzen du: haurrak bere intimitate imajinarioa bizi ahal izateko egiturak sortzea, mugitzeko, ezagutzeko eta kidezeko gaitasunak garatuz. Horretarako, haurrak, banaka, bere intimitate imajinarioan murgiltzeko lekuak behar ditu, eta bere mugimendu-energia eta bere gaitasun gnosikoak eta praxikoak garatzeko lekuak. Jarduerak ez du bukatu behar gehiegizko kitzikapenean, ezta bilatzeko bulkadak ere gehiegi estimulatuta, bere erritmo propioa aldatzen duten programen bidez.

“Hezitzailea eta arkitektoa imajinarioaren, energiaren eta materiaren bidegurutzean aurkitzen dira.

Haur batentzat, honelako Haur Eskola batean bizitzea zera da:

- Lehenik, oinarrizko segurtasun-elementuak —humanoak, afektiboak eta materialak— bertan aurkitzea.
- Bere neurrira egindako espazioak ere aurkitzea, bere buruarekin topo egiteko aukera izan dezan, eta aldi berean esperientziazio eta ekimen pertsonalen premiak garatzeko aukera ere bai.
- Baita ere, partekatu, elkarrekin bizi eta komunikatzea da, gutxi hobeto gertatzen baita erronkak elkarrekin bizi direnean”.

Pentsamendu hau Montagner irakaslearenarekin bat dator,



Montagner irakaslearen argiak

hots, Haur Eskolak haurren gaitasun guztien garapenaren zerbitzura egon behar duela.

“Gure sustraien luzapena dira haurrak eta biharko gizarte-ko aktoreak. Presta ditzagun ongi zeregin horretarako. Sor ditzagun beraiegan bizi-leku batzuk, non hain maitatuak eta adoretuak, hain konfiantza be-tearekin beren buruarengan, hain aske eta sortzaile sentituko diren, ezen gorputzaren eta es-pirituaren autonomia lortuko baitute, bakoitzak bere erritmo-an”.

Beraz, Haur Eskola umea-
rentzako bizi-leku gisa diseinatu
behar da, gurasoen presentziak
bizi behar du leku horretan, eta
gurasoek seme-alabatxoa hor

uzten dutenenean ziurtasuna
izan behar dute, beraiek lanean
ari diren bitartean, seme-alaba-
txo horrek bere arimaren gaita-
sun guztiak garatzeko aukera
izango duela: imajinariotik bere
ekintza-gaitasunetaraino, bere
sentimenduen intimitatetik bes-
te haur batzuekin ekintza komu-
netan elkarlanean jarduteraino,
ezagutza-gaitasunen garapenetik
bere mugimendu- eta hizkuntz
gaitasunak garatzeraino.

Proiektu pedagogikoak erru-
tina komun eta banakoetan gau-
zatuko ditu ideia nagusi edo ja-
rraibide hauek, eta Haur Eskola-
ko espazioaren antolakuntzak
edo proiektu arkitektonikoak
proiektu pedagogikoa garatu
ahal izateko baldintzak sortuko
ditu.

Honela bada, Jakingarriak-ek
Haur Eskolari eskaintzen dion
hirugarren zenbaki honetan azal-
tzen diren artikulatuak hiru gai-
multzori buruzkoak dira:

- Parekideen arteko portaerak
eta haurren gaitasun ebolu-
tiboak, non erdi-erdian koka-
tzen baitira haurren errit-
mo biologikoak.
- Denboraren antolakuntza:
proiektu pedagogikoa.
- Espazioaren antolakuntza:
proiektu arkitektonikoa.

Beraz, ohorez aurkezten die-
gu euskaldunei beste urrats bat,
Mondragon Unibertsitateak Ha-
zitegi proiektua sortzean propo-
satutako helburuaren bidean:
Haur Eskolaren ikerketa egitea
jakintza zientifikoaren argitan.



Foto: b. jr

Haurraren funtzionam

GINARRIZKO GAITASUNAK LOTURA FENOMENOETA AFECTIBITATEAREN, HARREMANEN, INGURUNEAREN

Hubert Montagner

Psiko-Biologiako irakasle Besançon, Montpellier, Bordeaux eta Pariseko Unibertsitateetan



MONTAGNER IRAKASLEAK HAURRAREN ARD GUZTIETAN AGERTZEN DIREN KOMPETENTZIAK AZALDUKO DIZKIGU.

Bowlby jaunak atxikimenduen teoria landu zuen haurraren garapena azaltzeko. Umeak garapen prozesu horretan jasaten dituen aldaketak hobeto ulertzeko, orain arte gain honen inguruan eman diren aurrerapausoak, teknikak izan dituen aurrerakuntzak... aztertuko ditugu. Beraz, ikuspuntu ezberdin batetik atxikimendua nola garrantzen den ikusiko dugu orain.

UMEAREN GARAPENA

Haurraren funtzionamendua azaltzeko metafora bat erabiliko dut. Metafora guztiak txarrak diren arren, uste dut gain hau errazago ulertzeko aukera emango digula. Haur baten funtzionatzeko modua espazioko kohete baten modukoa da. Haurrak, orduan, kohete baten antzera 3

atal, solairu edo pisu izango ditu:

- Lehendabiziko pisuan aireratzeko zatia daukagu, hots, lurretik irteteko zatia.
- Bigarren, agindu- eta erregulazio-sistema guztiak daude. Beraz kohetea kontrolatzen laguntzen diguten guztiak. Hor elektronikak eta informatikak sartzen dira.
- Hirugarren zatian kohetearen sistema adimentsua daukagu, orbitan utziko duen satelite puska.

Umetan ere 3 maila ikusten ditugu:

- Batetik, aireratzeko zati hori daukagu. Barne mundu hori utzi behar du eta segurtasun afektiboari heldu behar dio. Segurtasun afektibo hori lortzeko atxikimendu sendoa behar da ama eta haurraren artean edo haurra eta amaren

arte, elkar eraginezko atxikimendua. Gaur egun badakigu umeak hainbat lotura garrantzakeela, familian eta baita etxetik kanpo ere, haurtzain batekin edo irakasle batekin, esate baterako. Beste , umeekin ere lotura sendoa garrantzake. Hori denok ikusteko aukera izan dugu, bi edo hiru mutil edo neska koizkor elkarrekin seguru eta gustura daudenean. Haurrak bizipen hori baldin badauka, hots, seguru sentitzen baldin bada, gauza izango da egoera guztietan behar bezala egokitze-

- Segurtasun afektibo hori lortuz gero, bigarren mailara heltzen gara. Hor umea bi sistema interaktibo askatzeko gauza izango da. Hau da, blokeoa gainditzeko gauza izango da eta emozioak askatzeko

Endua adin guztietan

IN ETIA EMOZIOEN, IN ETIA EZAGUTZAREN GARAPENEAN

gaitasuna izango du. Aldi berean, segurtasun afektiboaren oinarriak sendoak baldin bada, oinarrizko 5 gaitasunak askatu ahal izango ditu, baina beti beste batzuekiko elkar lanean. Nik oinarrizko gaitasun deitzen ditut nire ustez oinarrian daudelako. Emozioak garatzearen, afektibitatea garatzearen, harremanak garatzearen, gizartean barnerratu ahal izatearen oinarriak daudelako, alegia.

■ Bigarren pausoa gaindituz gero, hirugarren mailara iristen gara. Haurrak hor prozesu kognitiboak eta baliabide intelektualak askatzeko gaitasuna lantzen du. Beraz, errealitatea ezagutzeko prozedurak garatu ahal izango ditu. Hau da, ezagutzara iristeko gauza izango da eta horrek gaitasun berriak ikasteko aukera emango dio. Baliabide intelektual eta kognitiboak, irudimena ere aska dezakete;

eta horixe da sormenerako benetako bidea.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Amaren sabelean zegoen bitartean, umea amaren ahotsa entzuteko eta bereizteko gauza izan da. Beraz, jaiotakoan ahots horretaz oroitu edo ahots hori bereizi besterik ez du egin behar. Lehen amaren ahots hori umetokiko zuntzak eta likidoak zeharkatu behar zituenetz beste era batera



G. de J. C. B. S. M. L. .

entzuten zituen. Amak hitz egiten dionean, umeak begietara begiratuko du. Prozedura hau azkar-azkar ematen da, jaio eta ondorengo minutuetan. Begiratua- ren ahalmena oinarrizkoa eta funtsezkoa da.

Amak haurarekin eraikitzen duen protokoloa:

Haurra jaio eta hilabete batera, amak eta haurrak biak batera jarduteko protokolo bat eraiki dute. Amak jaten ematen dio, garbitu egiten du eta hitz egingo dio, beraz, ama eta haurra haien arteko

Amaren sabelean zegoen bitartean, umea amaren ahotsa entzuteko eta bereizteko gauza izan da. Beraz, jaiotakoan ahots horretaz oroitu edo ahots hori bereizi besterik ez du egin behar.

komunikazioa ahalbideratzeko hainbat bide eraikitzen doaz.

Haurrak ama aurrean daukala burua gora jasoko du amaren begietara begiratu ahal izateko. Modu horretan, haurra hasiko da harremanetarako eta denboraren inguruko erreferentziak eraikitzen, baina beti amarekin elkarlanean. Orduan, hilabete besterik ez duela, haur horrek lotsa eta inhibizioa alde batera utziko ditu. Haur horrek dituen handicap edo oztopo guztiak —burua bere kaxa ezin duela jaso, bere

gorputza ezin duela zutitu, ezin dela laguntza barik eseri...— alde batera uzten ditu amarekin interakzionatzeko. Beraz, badirudi amaren begietara begiratzean oztopo horiek guztiak gainditzea lortzen duela. Hau da, ama eta haurraren arteko begiratu aktibo horrek lehen aipatutako oztopoak gainditzeko aukera ematen dio.

Baionako Egroñi pediatriak esan zuenez, haurra aulki batean esertzen baldin badugu, esku batekin burua eta beste eskuarekin gorputza eusten baldin badizkiogu, orduan haur horrek noranahi begiratzeko gaitasuna izango du. Mahai bat hurbiltzen baldin badiegu eta mahai horren gainean objektu jakin bat baldin badago, haurra eskua luzatzeko gauza ere izango da objektu hori ukitzeko.

Guk egoera hori bera sorrarazi genuen, baina kasu hartan haurrak amaren burua baino gorago begiratzen zuen. Amari harri-garria iruditzen zitzaion gaitasun hura. Harrituta, haurrari gerturatu zitzaion atxikimendu horren bila. Haurra geldi-geldi zegoen, amaren burua baino gorago begiratzen. Beraz, amak imajinatu zuen haurraren begirada erakartzen zuen zer edo zer zegoela. Ama orduan pixka bat urrunduko egin zen eta umearen begirada erakartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Orduan amak ere gora begiratu zuen eta ikusi zuen sabaitik zintzilik gauza urdin eta mugikor bat zegoela, txantxo itxura zeukana. Ama altxatu egin zen eta haurra objektu edo gauza horretara hurbildu zuen, hau da, haurrak nora begiratu amak hara eramango du, erantzun moduko bat ematen dio. Egoera horretan, haurrak

besoa luzatu, eskua ireki, gauza edo objektu hori ukitu eta eskua itxi egiten zuen, gauza hura hartu nahian. Anglosaxoiek prozesu horri *“rich and grasping”* deitzen diote.

Protokolo honetan zera ikusi dugu: haurrak bere ikusmena eta mugitzeko daukan gaitasuna koordinatzeko gauza dela. Beste era batera esanda, haur batek hilabete besterik ez duela, ikusmen periferikoa lan dezakeela. Adin horrekin keinua edo mugimendua oso egituratuta daukala dirudi.

Amaren aurpegiari ere erreparratu behar zaio. Ama harrituta dago eta, itxura denez behintzat, oso pozik dago haurrak zer egiten duen ikusita. Froga hau egin aurretik, ama hark ez zuen behin ere bere haurraz hitz egiten. Orain haurraren hainbat gaitasun deskubritzen ari da eta ikusiko du haurrari laguntzeko gauza dela. Amak eskaintzen dion laguntza horri esker, haurrak gaitasuna izango du bere keinua edo bere mugimendua egituratzeko. Amak mugimendu hori bera 5 aldiz errepikatu zuen, hau da, 5 aldiz hurbildu zuen umea txantxo horretara. Amak beste erregistro bat hartu zuen: ama hezitzaile bihurtu zen. Amak uste izan zuen haurrak objektu bat hartzeko gaitasuna duela eta, hori dela eta, beste objektu bat proposatu zion. Amak deskubritu zuen orduan Piagetek defendatzen zuen printzipioetako bat: haurra egoera berri batera egokitze gai dela. Ondorioz, ikusi genuen haurrak besoa luzatzen zuela eta gauza berri hura heltzeko ahalegina egiten zuela. Momentu hartan proposatutako objektua, aurreko objektuarekin konparatuz,

oso ezberdina zen koloreari, itxurari, tamainari... zegokienez. Amak ikusi du haurrak gaitasun bat erakutsi diola eta berak, ama denez, gaitasun hori indartzeko ahalmena duela. Amak laguntzen baldin badio, haur horrek jokabide edo keinu hori, behin eta berri- berri egiteko aukera izango du.

Laburtuz, haurra hortxe dago objektu berriari begira eta begira etengabe. Hori oinarrizko gaitasuna da. Haurrak beso mugitu eta berak nahi duen lekura ere zuzen dezake. Beraz, beso hori objekturaino irits daiteke. Horrek zera esan nahi du: keinu hori, hau da, besoarekin egin behar duen jarduera hori, antolatzen gauza dela. Aurkeztutako adibidean bi gaitasun ditugu: begiratuaren eta mugimenduaren kontrola, alegia. Horiek oinarrizko gaitasunak dira.

Haurrak beste haurrekin eraikitzen duen protokoloa:

Oinarrizko beste gaitasunak deskubritzeko amaren eta haurraren arteko harremana erabil dezakegu, lehen egin dugun moduan. Baina ez hori bakarrik, haurren arteko harremanak ere erabil ditzakegu. Hortaz, beste protokolo bat aztertuz, umearen beste gaitasun batzuk konzeptualizatzen auzera izan dugu.

Haurra eroso egon zedin, eserleku moduko batzuk egin ginituen. Eserleku horiek diseinu ergonomikoa daukate, umeak hantxe eroso-eroso eserita egon daitezten. Alboetan babes moduko batzuk dituzte haurrak lerra ez daitezten. Amek haurrei txaleko batzuk jartzen dizkiete. Txaleko horiek 3 koloreko zintak dituzte: bat eserlekura lotzeko eta

besteak haurraren hanka artetik pasatzen dituzte txalekoa bera aurretik eta atzetik lotzeko. Horrela haurra eroso eta seguru dago hor eserita. Eserleku horiek 3-4 hilabeteko haurrentzat dira. Adin honetan, abdominalak landuta ez dituztenez, txaleko eta zinta horiei esker umeak tente egon daitezke eserleku horietan.

Azterlan hauek egiteko, haurren datuekin egituratu ditugun zerrendak erabiltzen ditugu. Zerrenda horietan haur horiek noiz jaio diren, haurraren familiari buruzko datuak... agertzen dira. Haurrak 3 hilabete betetzen dituztean, gurasoekin kontaktuan jartzen gara eta azterlan hau zertan datzan azaltzen diegu. Froga honetan parte hartu nahi izanez gero, esperimentazio saioa antolatzen dugu.

Deskribatuko dudak adibidean, bi haur eta bi ama daude. Parte hartu behar duten haurrek eta amek ez dute elkar ezagutzen, beraz, elkar ikusten duten lehen aldia da. Egoera guztiz berria da, lokala, langileak, ingurua bera ere... Amei eskatzen diegu haurrak eserlekuetan jartzeko. Kamara baten bidez haurren elkar ekintzak grabatzen ditugu eta beste kamara baten bidez amaren aurpegierak ikusteko aukera daukagu. Umeen bihotzeko erritmoa ere kontrolpean daukagu. Protokoloaren fase bakoitzak 3 minutu irauten du.

Amei eskatzen diegu haien haurrei objektu baten bidez kasu egiteko. Haurrak egoera horretan daukan jokabidea ikustea da gure helburua, hau da, nora begiratzen duen, amari begiratzen dion, edota objektu hori begiratzen duen... Azaltzen dena zera

da: 4 hilabeteko ume baten begirada, alde batetik objektura, gero amaren aurpegira, eta gero berriro objektura zuzentzen dela. Prozedura horren bidez haurrak amaren aurpegian objektu horren esanahi ikusi nahi du. Gure ustez, irudikatutako sekuentziak izugarriko garrantzia dauka umeak arretari eusteko. Gainera jokabide horren bidez haurrak objektua nolako den, zenerri daukan, zer ezagurri dituen ezagutu ahal izango du. Baina ez hori bakarrik, amak horrelako



FRANÇOISE JACQUES Le Enjou: Adultes, Enfants: vivre ensemble en collectivité
Paris: Guérin Éditeur, 1985.

egoeratan zer nolako emozioak sentituko dituen ere ezagutu ahal izango du. Ezagutza horiek lortzean, haurrarentzat errazagoa izango da zenbait egoera ulertzea. Hau da, umeak ulertu ahal izango du amak objektua eta haurraren artean egiten duen lotura.

Ondorengo faseak 3 minutu irauten du. Amei zutitzeko eta 2 metro atzerago joateko eskatzen diegu. Hor geldi eta isilik haurrei begira egon behar dira. Umeen eserlekuak erabat hurbildu ditugu, 10 zentimetrotara daude gu-

Normalean, ume batek hanka jasotzen duenean, besteak ere hankak gora jasoz erantzungo dio. Beraz haur txikien artean interakzioa dagoela ikus dezakegu, batak besteari imitatzean erantzuna eskaintzen diolako.

txi gorabehera, batak bestea ukitzeko aukera izan dezaten. Azterlan hau egiteko adin bereko bi ume izan behar ditugu. Horretarako mota guztietako konbinazioak imajina ditzakegu: 2 mutil, 2 neska, mutiko bat eta neskatila bat... Haurrak batak besteari begira egon behar dira, parez parez elkarrri begira egon behar dute eta begiratu horri eutsi egiten diote. Esperimentuaren saio honen 3 minutu irauten duen arren, beste serie batean iraupen bikoitza izatea erabaki dezakegu, 6 edo 8 minutu hain zuzen ere.

Kontuan izan behar dugu haurrek ez dutela elkar ezagutzen. Aurrez aurre daukatena ezezaguna da eta gainera ama 2 metrora dago. Beraz, froga honen bidez segurtasun afektiboa daukaten ala ez ikus dezakegu. Segurtasun afektibo handia daukaten haurrek honako ekintza hauek egiten dituzte: bata bestearengana hurbiltzen saiatzen dira, eskuak eta besoak beste haurrarenengana luzatzen dituzte, burua eta gorputzaren goiko alde eserlekutik aldentzea lortzen dute... Jarrerazko inhibizio bat egon arren, hori gainditzeko gauza dira eta aurrera egitea lortzen dute.

Segurtasun afektiboa duten umeen aurpegietan irribarrea agertzen da eta horrek gertutasuna islatzen du. Irribarre jarrera afiliatiboa da, beraz, jokabide honi esker eskaintzak agertuko dira. Amak bere umeari irribarre egiten baldin badiu umeak egiten eta esaten duenarekin, hau da, umeak daukan jarrerarekin ados dagoela edo bat datorrela adierazten dio. Guretzat ere, irribarreak horixe bera esan nahi du. Ni norbaitekin elkarlanean ari banaiz eta irribarrea botatzen badiu, nire ideiarekin, pentsaerarekin, proiektuarekin bat datorrela pentsatuko dut.

Jokabide oso konplexuagoa da, horregatik besoen edota eskuen mugimenduan arreta jarri beharko dugu. Eskuei dagokienez batak bestearen gainetik egongo dira eta atzamarrak ere batak bestea ukitzen egongo dira. Ondorioz eskuen eta atzamarren arteko ferekak agertuko dira. Oso jarrera ohikoa da era honetako egoeratan. Kontutan hartu behar dugu haur hauen keinuak edo

mugiarazteko aukerak oso egituratuak daudela aulkia baten eserita daudelako.

4 hilabeteko ume hauekin helburuak oso zehatzak izaten dira:

- Begiratu mantentzeko gaitasuna daukaten aztertzea.
- Interakzioak, hau da, jarrera afiliatiboak aztertzea.
- Egituraren antolakuntza aztertzea.
- Oinarrizko kompetentziak aztertzea.
- Denbora aztertu edo kontrolatzea.

Lehen aipatutako azken fase horretan, bi eserleku horiek gerturatu eta ondorengo momentuan zentratuko naiz, oso garrantzitsua dela uste dudalako. Umeak elkarrri begira daude eta begiratu horri eutsi egiten diote. Gutxi gorabehera, 4 minutu igaro eta gero oraindik elkarrri begira jarraitzen dute, begiratu horri eusten jarraitzen dute. Nahiz eta distantzia tarte bat egon, keinu batzuen bidez distantzia hori gutxitzen saiatzen dira. Eskuak elkarrengana eramaten dituzte: eskaintza horri erantzun bat ematean, elkarrekintzarako ahalegina dagoelako ikus dezakegu. Distantzia murrizketaren saiakerarekin, kontaktua izatea lortzen dute, alegia, batak bestea ukitzea lortzen dute. Hori harreman afiliatiboetarako oinarria da.

Jarrera afiliatiboa batak besteari eskua ematean eta hankak ere igurztean islatzen da. Esperimentazio saio horren bidez ikus dezakegu keinua nola dagoen egituratua. Eskuekin sortzen den interakzioari eusten diote. Atzamarrak justu mugaraino iristen direnez, ukitu justu-justu ukitzen

dute elkar. Erromako Kapera Sixtinan dagoen marrazkiak umeek eskuakin daukaten interakzioa irudikatzen du. Behar bada ez da kasualitate hutsa, agian ez zen izan Rafael margolariaren ustekabe bat. Azken batean, elkar ekintza horrek komunikazioaren oinarria dauka, sozializazioaren oinarria hain zuzen ere. Ez dut uste Jainko jaunak gizaki egoista bat sortu nahi zuenik, segur aski bihotz oneko gizakia, altruista, sortu nahi zuen.

Normalean, ume batek hanka jasotzen duenean, besteak ere hankak gora jaso erantzungo dio. Beraz haur txikien artean interakzioa dagoela ikus dezakegu, bata besteari imitatzean erantzuna eskaintzen diolako. Erantzuna ez da beti aurrekoak egin duenaren imitazioa izan behar, bokalizazioak ere erabil ditzakete.

Azterlan honetan parte hartzen duten haurrak 4 hilabetekoak izaten dira. Haurrek normalean ez dute antzik haien artean, oso ezberdinak dira, eta horregatik, hain zuzen ere, egokitze lan handia egingo dute. Egokitzapen hori ondo egitea bizitzarako oso garrantzitsua da. Haurrak gauza izan behar dira haien arteko aldeak bata bestearengana egokitzeke. Haien arteko desberdintasunak ez dituzte borrokaren bidez konpontzen.

Haurrak beste haur batzuekin daudenean proiektu edo asmo bat izaten dute, beste horrekin zerbait egiteko gogoia erakusten dute. Besoa luzatu egiten dute eta aurreko hauraren txalekoaren tiranteetaraino iristen dira. Asmoa garbia da, objektu hori ukitu nahi dute, tiranteak ukitu nahi dituzte, alegia. Bitartean, beste haurra bere aurrean dagoenari begira dago. Azken horrek

ere helburu bat jartzen dio bere buruari, atzamarrak luzatuko ditu eta beste haurra dagoen tokiraino iritsiko da. Beraz, begira zegoena ondoren aktore bilakatu da. Beste haurren eskua heldu egiten du eta aurreko haurrak egiten duen keinu bera egiten du. Bigarren haurrak beste haurren eskua harrapatu edo bildu egiten du bere esku artean. Hori guztia egiten duen heinean, beste haurrari begira gelditzen zaio eta irribarrea egiten dio. Begiratuari eutsi egiten diote ume biek. Ondorioz interakzioa sortzen dute, hau da, jarrera afiliatiboa agertzen da, keinua behar bezala egituratua daukatelako hain zuzen ere.

Adibidez, niri emakume eder batek eskutik helduko balit zailantzarik gabe jakingo nuke zer nahi duen. Baina lehenengo umeak bigarren haur horren jarrerari behar bezala ez erantzutea gerta



Gaude Jos Etxebarria

liteke; hau da, bere helburuarekin, tiranteari eutsi nahian, jarraituko du. Bigarren haur horrek ikusten duenean lehenengoak ez diola kasurik egin, lehenengo hori beste aldera begira dagoela konturatzen denean, orduan, bigarren ume hori bere lekuan geldituko da eta eskua ahoan sartu du. Egin duen eskariak erantzunik jaso ez duenez, arreta bere barne mundura zuzenduko du.

Baina bigarren haur horrek bere helburua lortzean, hau da, tirantea edo soka hartzea lortzen duenean, helburuz aldatu egingo

ikur edo keinu bat egiteko gaitasuna daukate. Keinu horren ondorioz haurrak bata besteari begira egongo dira.

Beraz, besoak eta eskuak luzatzen dituztenean, interakziorako asmoa dagoela ondorioztatu dezakegu. Egiten dituzten keinuak egitura baten barruan daudenez, jarrera afiliatibo egokia daukatela esan dezakegu. Bata bestearen begiratuaren bila ari direnean, aldi berean, bekokian fereka batzuk egiten dizkiote elkarri.

ATXIKIMENDURA ZUZENTZEN DIREN JOKABIDEAK

Nik neuk, holako keinuak egiten badizkirate, gauzak erabat garbi izango nituzke. Haurren interakzio egoeren aurrean oinarritzko kompetentziak agertzen dira. Baina hori ez da haurren artean bakarrik gertatzen, baita haurren eta gurasoen artean ere, haurren eta amaren artean, haurren eta aitaren artean edota beste batzuen artean ere gertatzen dira. Askotan ez gara ohartzen errealtate edo kompetentzia horietaz. Haurren oinarritzko kompetentzia horiek interakzioan jarduteko gaitasuna eskaintzen diete.

Eskuan umeari hatz bat jartzan baldin badiogu, guk jarri diogun hatz hori harrapatu edo bildu egingo du. Beraz eskainitako atzamarra haurren eskutxoan bildua gelditzen da, ekintza hori da gure eskaintzari ematen dion erantzuna. Ama gehienek goxotasun ekintza bat balitz bezala ulertzen dute. Amak, orduan, haurraren hurbildu egiten dira, besarkatu egiten dute, beste eskuarekin ferekak

egingo dizkiote... goxo-goxo bere seme-alaba maite dutela erakutsiz. Jarrera afiliatibo bat sortzen da ama eta haurren artean eta horrek haien arteko interakzioa areagotu egiten du.

Haurrak amaren edo aitaren presentzia sumatzen duenean edota haien ahotsak aditzen dituztenean, hankak bizikleta zale baten moduan astintzen hasten da. Jokabide horrek ama edo aita gerturatzea ekarriko du. Hau da, Bowlbyk esan zuenez, atxikimendura zuzenduriko jokamoldeak ditu haurrak eta jokamolde horiei esker ama edo beste edozein pertsona harengana hurbilduko dira.

Irribarrea atxikimendura zuzentzen den beste jokabide bat da. Irribarrea ez da atxikimendua sortzeko gauzarik garrantzitsua, amak irribarre horretaz egiten duen interpretazioa baidir. Amak umea irribarretsu ikusten duenean, haurren aurrean gertatzen den aldaketa horri esanahi bat emango dio eta interpretazio horrek komunikazioa areagotu egingo du.

Haurren lehenengo urtean, eskaera eta eskaintzak agertzen dira. Horiek denak afiliazio jokabideak dira, hain zuzen ere. Bigarren urtean afiliazio jokabide horiek konplexuagoak bihurtzen dira, lankidetzan edo kooperazioan oinarrituko baitira. Umeek egiten dituzten gauza guztiak elkarrekin koordina ditzakete. Elkarri laguntzeko jokabidea 20. hilabetean azaltzen da. Beraz bizitzaren lehenengo bi urte horietan sozializatorako oinarriak eraikitzen joaten dira. Imitazioak ere adin honetan agertzen dira eta horrek gero bizitza osoan zehar garatuko dira. Elkar harre-

Elkarrizketa baten bidez haurrak ezin dira ohartu ama depresiboa edo triste dagoen, umeek oraindik ez dakitelako diskurtsoa deskodifikatzen. Emozio horiek begien bitartez ikasten dituzte, begietan islatzen direlako.

du. Alde batetik, lortu nahi zuten sokatxo hori bereganatu duenez, arreta aurrean daukan beste haur horrengana zuzenduko du. Eta beste aldetik, bere munduan zentratua zegoen haurra, beste haur horrek sokatxoa lortu duela ikusten du. Orduan, haur horrengana zuzenduko du bere arreta, uste duelako sokatxoa berea dela. Bata bestearen begiratuaren bila ari dira. Besteak begiratzen ez baldin badu, orduan atzamarrak begiratzen ez duen ume horren begien parera eramango ditu. Beraz 4 hilabeteko umeek seinatzeko

manetan edo interakzioetan islatuko da hori guztia, baldin eta objekturik edo segurtasun gabeziarik ez baldin bada.

Amak depresioa, halako kezka handiren bat, izaerako arazoren bat izan dezake, arrazoia edozein delarik ere. Hori gertatzen bada, haurraren ahalmenak ezkurtuan egongo dira amak segurtasunik ez diolako eskaintzen edo segurtasun hori oraindik ez delako ondo garatu. Kontutan hartu behar dugu orduan oinarrizko 5 gaitasunak ez direla beti agertzen, baina hortxe daudela hala ere. Soilik baldintza egokiak agertu bezain laster azaleratuko dira ezkutatuak dituen ahalmen horiek. Haurra segurtasun afektibo horretara iristen ez baldin bada, edo haurraren eta amaren arteko lortura ez baldin bada behar bezain segurua izaten, edo ama eta haurra banandurik bizi izan baldin badira, orduan ez dira oi-

narrizko 5 gaitasun hauek agertuko. Hau da, har dezagun ama depresiboaren adibidea. Halako kasuetan amak ez dio haurrari begietara begiratuko eta ondorioz haurrak ere ez amari. Ama ez da konturatuko zein garrantzitsua den haurrari begietara begiratzea, haurrari begirada hori erakustea eta haurra amaren begietara begira egon dadin lortzea. Begiratuaren bidez haurrak emozioak ikasiko ditu, amaren begietan emozioak ikusten dituelako.

Jarduera horien guztien indargarri ukimena daukagu, baina ez hori bakarrik, beste zentzumen guztiak ere baditugu.

Begietara elkarri begiratzea benetan funtsezkoa da emozioak azalazteko. Hau da, sentimenduak begien bitartez erakusten dira, begietara begiratzuz ikasiko ditu haurrak gure 6 emozio unibertsalak:

- Poza
- Haserrea
- Beldurra
- Harridura
- Disgustua
- Tristura

BEGIRATUA EZ EGOTEAREN ONDORIOAK

Elkarrizketa baten bidez haurrak ezin dira ohartu ama depresiboa edo triste dagoen, umeek oraindik ez dakitelako diskurtsoa deskodifikatzen. 5 emozio horiek begien bitartez ikasten dituzte, begietan islatzen direlako. Amak ez baldin badio haurrari begietara begiratzen, haurrak ere beldurra izango du amari begietara begiratzeko. Egoera horrek denbora luzez irauten baldin badu, hau da, ama haurrari begietara begiratu ezinik egoten bada, orduan haurrak ere beharbada saihestu egingo du begietara begiratze hori.



Chava is Amegil

Hala ere, litekeena zera da: beste pertsona baten bidez ikastea hori.

Haurrak ez baldin badu begietara begiratzen, horren atzetik patologiaren bat egon daiteke. Haur psikotiko autistek ez dute begietara begiratzen.

Arazo guztiek konponbidea daukatela pentsatu behar dugu. Astebete, bi aste, hiru aste triste egoteagatik ez dugu haurra galduko, denbora gehiago behar da horretarako. Horregatik arazo horiei aurre egin ahal izateko, oso garrantzitsua izaten da psikologoek laguntza.

Haurren eta gurasoen arteko harremanak funtsezkoak dira, baina haurraren eta beste eragileen arteko harremanak ere bai.

Haurraren eta amaren artean elkar eraginik ez baldin badago, orduan haurrak ihes egingo du nolabait. Egoera horrek denbora asko irauten baldin badu, arazokak ekar ditzake haurraren garpenerako; bereziki haurrek beste indargarririk ez baldin badute: irribarreak, muxuak, opariak, beste nolabaiteko eskariak, hantzen arteko jolasak, lankidetzak jolasak

Egoera horien aurrean jokabide hauek agertuko dira:

- Beren barrura egingo dute ihes, hau da, autozentratu egingo

dira. Lehen ere ikusi dugu haur batek hatza ahoan sartzen duela beste ume batek erantzun zuzena eman ez diolako. Beste itxura konplexu batzuk ere har ditzake: beharbada haurra izkina batean geldituko da geldi-geldi, ez duelako elkar eraginik nahi izango.

- Ahal badute, ihes egingo dute besterik gabe, edo ez dute beste inorekin egon nahiko.
- Mugitze hutsa edo hiperaktibitatea deitzen da hirugarren jarrera. Azken termino hori ez zait bat ere gustatzen. Jokabide horien aurrean gurasoek sendagilearengana joatea erabakiko dute eta horrelako truku kimikoren bat nahi izango dute. Laguntza kimiko horiek gurasoentzat lagungarriak izan arren, hurrentzat ez dira komenigarriak. Gaur egun, zoritxarrez, gurasoek askotan sendagai kimiko horiek eskatzen dituzte. Haurrak asko mugitzen baldin badira, gurasoek pentsatzen dute haurra lasaiago egoteko produktu kimikoren bat eman behar diotela. Uste dut bide horrek beti segurtasun falta erakusten duela, beraz, ez dela irtenbide zuzena.
- Haurrak gaiztotzea edo soziologoek esaten duten bezala "tapinara" jotzea da gure azkeneko jokabidea. Oreka bat behar dugu eta oreka hori lortzen ez baldin badugu, haurra ez da zentratuta egongo eta ihes egingo du. Oreka hori lortzeko haurrak jokatzen zutenak garatzera eraman behar ditugu irribarreak bidez, poza emanez.... Oreka lortzen ez baldin badugu konponbideren bat

egongo da, beti egoten baitira. Haurrak jokabide gaiztoak edo erasokorrak izatea ez da genetiko. Hutsune afektiboren bat dagoela adierazten du, beraz, guk hor falta dena zer den ulertu egin beharko dugu.

HAUR ESKOLETAN OINARRIZKO 5 BATASUNAK NOLA LANDU

Gure haurtzaindegietan, batasuna sortu da langile eta gurasoen artean. Batasun hori oso garrantzitsua da haurrek lehen aipatu ditugun 4 jokabide horiek gara ez ditzaten eta jokabide zuzenak gara ditzaten. Horretarako edozein momentu da posible. Langile eta gurasoen arteko elkar eragina ona baldin bada, konplizitatea baldin badago, haurra gustura egongo da denekin.

Lehen aipatutako jokabideak dituzten umeak jokabide horiek errepikatzea eramaten dituzten zirkulu batean ixten dira. Denborak aurrera egin ahala, gero eta zailtasun handiagoak izaten dituzte hortik ateratzeko. Ezin izango dute adierazi bizitzan zehar gertatzen zaizkien gauzekin ados dauden ala ez, ihes egingo dute besterik gabe.

Hala ere, nik uste dut halako arazoak konpon daitezkeela. Haurrak ondo ez baldin badaude, gauza jakin bat hartzeko bidea luzatzen ez baldin badakite, konponbide bat aurkitzen saiatu beharko dugu, mugimendu horiek oso garrantzitsuak baitira. Hasieran, harrapatutako objektua erori egingo zaie, baina hori normala da. Behin eta berriz egin ez gero, segurtasun handiagoa lortuko dute.

Haurren eta gurasoen arteko harremanak funtsezkoak dira, baina haurraren eta beste eragileen arteko harremanak ere bai. Beraz, haur eskolak etxearen luzapena izan behar du, antzeko gauzak egin behar dituzte. Erregistroak aldatzen dira, besterik ez.

Garrantzitsua da haur eskolan espazioak eta denborak estrategia baten barruan egotea eta gurasoak ere estrategia horretan egotea. Horregatik, haur eskola ez da haurrak zaintzeko toki bat besterik gabe; zentro moduko bat da non haurrak eroso eta seguru egon behar baitira.

Modu horretan haien emozioak askatu, haien gaitasunak garratu eta azkenik ikasteko ahalme-

nak garatu ahal izango dituzte, gaitasun kognitiboak, alegia. Azkenik irudimena ere landuko dute. Afektiboki seguru baldin badaude, gaitasunak bere kaxa etorriko dira eta kohetearen 3. mailara iritsiko dira, adimenera, hain zuzen ere. Maila horretan mundua konkistatzeko gertu egongo dira.

HAURRAREN FUNTZIONA- MENDUA ADIN GUZTIETAN

Gaitasun hauek haurraren edozein adinetan ikus ditzakegu. Jaiotzen direnean errekonbinazio fase bat egoten da. Errekonbinazio fase horretan amaren begiradak eta amarekiko elkar eraginak izugarritzko garrantzia dute.

Bada bigarren espaloi edo bi-

sagra moduko bat haurtzaroaren eta nerabezeroaren artean. Gazteek ere haien erreferentzia emozionalak eta moralak berriro eraiki behar dituzte. Hori oso garrantzitsua da.

Nire ustez, nerabeei beste ikuspuntu batetik begiratu behar zaie. Nerabeek probokatzen dutenean, “provocar” hitz latinoaren zentzua “para hablar” dela kontutan hartuz, gure arreta erakarri nahi dutela interpretatu behar dugu. Beraz, pertsona nagusi modura tratatzea nahi dute, dei moduko bat da, hain zuzen ere.

Beraien segurtasuna eraiki nahian dabilta berriro. Beraz, beraien segurtasun afektibo hori eraikitzen lagundu behar diegu, ez da zaila izango haiek hainbat estrategia dituztelako.



G. de los Cristóbal...

Haur eta nerabeen erbiopsikologikoak

INGURUNEAREN, ESKOLAREN ETA FAMILIA

Hubert Montagner

Psiko-Biologiako irakasle Basençon, Montpellier, Bordele eta Parisoko Unibertsitateetan



Umearen erritmo pertsonalen eta familiaren eta gizartearen erritmoen arteko elkar eragina

Gai honetan oso garbi ikusten da zer nolako harremanak egon daitezkeen umeen erritmo pertsonalen artean eta familiaren eta gizartearen erritmoen artean, elkar eragina nabarmena baita. Erritmo biopsikologikoen abentura hori jaio aurretik dator. Umekiak hasiera-hasieratik antzematen ditu amaren mugimenduak edo amak zer egiten duen, segituan hasten da antzematen amaren erritmo aldaketa hori, hau da, esna ote dagoen edo lo ote dagoen.

MONTAGNER IRAKASLEA BORDELEKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA DA ETA AZKENALDI HONETAN BERE IKERKETAK ESKOLAN ZENTRATU DITU.

Ikerketetan ikusi ahal izan denez, umekiak bost hilabete dituztenetik, bere zentzumen errezeptoreak segituan konturatzen dira amak giharrak noiz dituen tenk. Gure giharretan baditugu errezeptore moduko batzuk eta horiek oso sentikorak dira. Giharrak eta zainak noiz luzatzen ditugun esaten digute. Nik, adibidez, besoa luzatzen baldin badut, ez dut zertan besoari begira egon behar eta, hala ere, badakit zer egiten ari den nire besoa. Besoa luzatzen dugunean gure errezeptoreak kitzikatu egiten ditugu eta giharrek erantzun egiten dute eta horrela besoa jaso egiten dugu. Sistema hori umekiak ere hortxe du eta lehen momentutik bizi-bizirik dauka.

Horrek zer esan nahi du? Ama geldirik egon edo aktibo egon, umekiak ez duela informazio berbera jasoko. Ama etzanda baldin badago, umekia beti geldi egongo da, gutxi mugituko da, haren giharrak gutxi mugituko dira eta beraz informazio gutxi jasoko du: umekiak nekez jakingo du ama nola dagoen, zutik, tente edo etzanda ote dagoen. Baina ama mugitzen baldin bada, zutik jarri, etzan egiten bada, berriz ere altxa, berriz ere eseri... fetua konturatu egingo da, fetua ere mugitu egiten delako. Bere giharrak mugitu egingo dira, aktibatu egingo dira, nolabait amak aktibatu egiten dituelako. Umekiak zehatz daki ama zer egiten ari den. Umekiak

eta amaren ahotsa bereizteko gaitasuna daukala, dagoeneko ezagunak izan behar dira.

Hala ere, hotsak edo zaratak geroz eta ugariagoak dira eta umeki hori bere burua prestatzen ari da munduak eskaintzen dion informazioa jasotzeko. Beraz, jasotzen dituen informazioak asko dira: ama esna edo lo dagoen, ama etzanda edo zutik dagoen... baina ez hori bakarrik, gaua edo eguna ere bereizten ditu eta gainera entzun ere egiten du, inguruneak ahotsak entzuteko gaitasuna baitauka. Beraz, aita etxean baldin badago bere ahotsa entzungo du; eta aita etxe-

Ama mugitzen baldin bada, zutik jarri, etzan egiten bada, berriz ere altxa, berriz ere eseri... fetua konturatu egingo da, fetua ere mugitu egiten delako.

an ez baldin badago, ez du bere ahotsa entzungo. Ondorioz bi egoera horiek informazio ezberdina eskaintzen diote.

Gizarteko kide izateko prestatzen ari da umekia. Amaren sabelean dagoenean ere izakia da. Agian ez dago aitarik amaren inguruan, beharbada neba-arrebak daude, edo beste pertsona batzuk egon daitezke; horrek, jakina, umekiaren unitertsoa aldatu egingo du, ez dituelako gauza berberak entzungo egoera batean edo bestean. Horregatik esan dut lehen ere, umeki hori izaki soziala ere badela, gizarteak eta familiak, inguruneak oroko-

rrean, harengan eragin egiten dutelako. Beraz, izaki bizia da eta dagoeneko bere buruan horrelako erakin jakin batzuk ditu. Haurra jaio ondoren, egokitze lana lehen baino gogorragoa da: lehen gauza batzuk entzuten zituen eta orain beste batzuk entzungo ditu. Informazio horiek bateragarri egin behar ditu. Baina entzundako gauzak bakarrik ez, erritmoak ere bateragarri egin behar ditu, lehen erritmo bat zuen eta orain beste erritmo bat izango baitu; amak ere lehen erritmo jakin bat zuen, baina orain, umea eduki ondoren, beste erritmo bat izango du. Beraz, biek berreraikitze lana egin beharko dute. Erreferentzia horiek elkarren artean lotu beharko dituzte. Erreferentzia horiek harremanetakoak edo sozialak dira, denborazkoak dira, eta baita espaziozkoak ere.

Ama eta haurraren arteko begiratuak daukan garrantzia

Guk badugu protokolo bat jaio berriek nola ikusten eta nola entzuten duten jakiteko. Horri esker, nahiko zehatz dakigu haur horrek noraino ikusten eta entzuten duen. Eta aldi berean haurraren eta amaren arteko harremanak ere ikus ditzakegu.

Ama haurrari hitz egiten hasten denean, haurrak burura jiratzten du amari entzuteko. Haurrak amaren ahotsa eta begietara zuzentzen du bere begirada. Badirudi haurrak lehenagotik badakiela amaren begiak non dauden. Beraz, ikasitako interakzioa barneratzean ekingo die geroko harremanei. Begien bidez ikusmen eta entzumeneko informazioak koordinatuko ditu. Begiei begiratu, haur horrek gauza asko barneratuko ditu, ez ikusmenari dagokion informazioa baka-

rrik, ukimenari dagokion informazioa ere jasoko du. Guraso edo neba-arreben diskurtsoa osotasun baten barruan ulertuko du. Erreferentziak eta erritmoak barneratzen hasiko da eta horrela, gainera, haurrak emozioen liburu hori zabalduko du, horretara bultzatzen baitugu. Guk emozioak transmititu egiten ditugu, baina ez begiradaren bidez bakarrik, ahozko hizkuntza hori ere hor dago, ferekak ere hor daude... Baina abiapuntua begiratu da, begiratzeko gaitasuna edo modua.

Zazpigarren hilabetean egindako ekografia baten emaitzen aurrean, haurra hazkunde aldetik nahiko atzeratua zetoirela sumatu genuen. Horrek bere geroko garpenerako oztopoak ekar zitzakeenez, arriskuko haurtzat hartu genuen. Ama ere arriskuko ama zela uste genuen, anorexikoa zelako eta psikiatrarekin haurrari buruz hitz egiterakoan ez zituelako beharreko gauzak azaltzen, ez zuelako bere burua ama modura ikusten eta umeari buruz hitz egiten zuegan, arazoak besterik ez zituelako azaltzen.

Amak arazoren bat baldin badu, bere buruaz edo bere barne munduaz gehiegi arduratzen bada adibidez, kanpoko munduarekin harremanak izateko arazoak baldin badi... jarrera horrek haurraren hainbat ondorio izango ditu. Batek, amak ez du haurra begiratu nahi izango. Umeari begira egotea zaila gertatuko zaionez, begiratuaren prozedura saihestu egingo du eta, ondorioz, haurrak arazoak izango ditu begirada harreman hori barneratu edota ikasteko. Prozesu konplexua izan daiteke, egoera horrek asko irauten baldin badu behintzat. Haurrak komunikazio hori bideratzeko aukerarik ez bal-

din badu, hau da, haurrak beste norbaitekin begirada harreman hori izateko edo finkatzeko aukerarik ez baldin badauka, arazoak ager daitezke. Askotan beste norbait egongo da, aita izaten da normalean. Beharbada pertsona horrekin landuko eta finkatuko du begiratuaren harreman-gaitasunak. Askotan amak depresioa daukanean ere, gerta liteke haurrak harreman hori aurrera ateratzea, haurrak beste erreferentzi batzuk sortzen baititu.

Hala ere, amak beste estuasun batzuk izan ditzake, haurrak gutxiegi pisatzen duelako, ez delako behar beste hazten ari, bilakaera txikia delako, goragaleak dituelako, bularra edo biberoia behar bezala hartzen ez duelako... gerta daiteke horrek guztiak ama estutzea. Ama estu edo larri baldin badago, orduan haurrarekin eraikitzen den komunikazioa ez da

egokia izango, sintonia arazoak agertuko direlako. Kasu askotan, ama eta haurraren arteko harremanak begiratuaren bidez garatzea ezinezkoa izaten da, orduan beste pertsona batekin garatu beharko dute. Ama ordezkatu duten pertsona horiek oso garrantzitsuak izango dira, hor interakzio bat sortzen delako; beraz oso garrantzitsua da hor nor dagoen. Sintonia berezi bat eratu behar da prozesua aurrera eramateko, ondorioz beste akordio bat sortzen da. Haurrak jarrera berri horri erantzuterakoan, bere jokabide eredu aldaturako du eta haurraren aldaketa horrek amaren aldaketa ekarriko du.

Konpenetrazioa dagoenean, egokitze bat egingo du haurrak, hau da, umea amaren emozio edo sentimenduetara egokitu da. Ama ezagutzen du eta amaren sentimenduak ere ezagutzen ditu. Hau-

rrak badaki amarekin konpartitzen dituela sentimendu horiek. Baina ama estu edo larri baldin badago, garrantzitsua den norbaitek amaren leku hori hartu behar izango du. Kontua ez da amaren lekua betetzea, edota ama alde edo bazter batera uztea, baizik eta agertzen diren hutsuneak betetzea.

Ama eta haurraren arteko erritmoen egokitzapena

Jaio berriek berezko erritmoak dituzte. Erritmoa horiek biologiarekin zerikusi handia daukate eta baita umetokian bizi izan duten guztiarekin ere. Haur batzuk eguneko lo-esnatze erritmoan 8 edo 9 aldaketa izango dituzte; beste batzuk aldiz, 4 edo 5 alternantzia besterik ez izatea gerta daiteke; eta beste batzuek, adibidez, 2 edo 3 alditan lo hartuko dute. Horrekin zera azaldu nahi dut: alde handiak



© Chris Wedel / iStockphoto.com

daudela ume batetik bestera, eta baita familia baten barruan bertan ere. Bestalde, haur batzuk, baina ez guztiak, bere amaren erritmoe-kin oso sentikorrek dira, beraz, hori aldaketak egun batetik bestera ere eman daitezke. Komenigarria izango da haurra amaren erritmoak gutxika-gutxika ezagutzen joatea, umetokian zegoenean eraiki zuen erritmoen ezaguerara bera. Komenigarria da haurrak amarekiko duen ezagutza hori lantzea.

Horri begira, oso garrantzitsua da haurra jaio osteko lehenengo

Ama batzuek haurra esnatzen denean bularra edo biberioa ematen diote. Emakume horiek aldeztatik haien burua prestatzen dute ekintza horretarako. Amaren lehenbiziko ekintza hori izaten da gehienbat.

egunetan ama ahalegintzea umea jaio aurretik zeukan lo-esnatze aldiaren erritmoa mantentzen, ez delako komeni hori aldaketa handiegirik sortzea.

Ama batzuk gehiegi arduratzen dira eta horrek antsietatea dakar, ondorioz ez dute izango lo egiteko gogorik eta horrek haurraren eragina izango du. Ahal den neurrian amari lagundu behar diogu: esate baterako ama batek bere loa istikatua baldin badauka, hau da, bere loa irregularra baldin bada, laguntza teknikoren bat

eman beharko diogu, lasaigarri bat eman beharko genioke, alegia. Horren bidez, haurrak erreferentzia egonkor batzuk, aldaketa gehiegi gabeko erreferentzia batzuk izango ditu: egunez ama aktibo egongo da eta jakingo du gauak lasaitasuna ekarriko duela. Erreferentzia horiek eraikitzen irakatsi behar zaio haurrari. Horretarako, amaren lo-esnatze erritmoa ahal den eta egonkorrena edo berdintsuena izan dadila komeni da. Amak ezin du bere eguna antolatu haurra kontutan hartu barik. Haurrak egunez 7 aldiz egiten badu lo, edo haurrak 4 edo 5 lo-esnatze aldiaren alternantzia badu... amarengan eragina izango du. Beraz ama ere haurraren erritmoa egokitzea beharko da.

Ama eta haurraren arteko erreferentziak eta erritmoak bateratzeko prozedurak

Lehenengo eta behin, kontutan hartu behar dugu amek zer pentsatzen duten ama izate horri buruz eta nolako iritziak dituzten haren eginkizunei buruz.

Ama batzuek haurra esnatzen denean bularra edo biberioa ematen diote. Emakume horiek aldeztatik haien burua prestatzen dute ekintza horretarako. Baina kontua ez da jaten ematea bakarrik, bularra edo biberioa ematean afektibitate eta harreman berezia dago hor... Jarrera hori ama gehienek izaten dute, amaren lehenbiziko ekintza hori izaten da gehienbat.

Ama gehienek bularra ematen diote haurrari esnatu bezain laster, ardura berezia jartzen dutelako haurrak pisua har dezan. Ama askorentzat haurrak pisua hartzen baldin badu, horrek esan nahi du osa-

suntsua dela eta garatzen ari dela. Bularra eman eta gero, umea eroso egon dadin saiatzen dira, pixa-oihala aldatuko diete... Ekintza horiei esker interakzio bat sortuko da, umeari begietara begiratzuz, muxu bat emanez, irribarre eginez... Lehen esan bezala, harreman emozional berezi bat sortzen da ama eta umearen artean, eta horrek, noski, erreferentzia batzuk sorraraziko ditu amak haurraren duen jarrera horietan. Haurrak ama ezagutzen du begietara begiratzeko moduaren bidez, jana emateko moduaren bidez, garbiketa egiteko moduaren bidez eta ferekak egiteko eraren bidez, jolas txiki horien bidez...

Hori ez da ama guztiekin gertatzen, ama guztiak ez dute jarrera bera, ama batzuk estutu edo larritu egiten dira, beraz, hori antsietate puntu bat dago. Ama horien lehenbiziko ardura garbitasuna izaten da, haurra garbi edukitzea izaten da. Haurra esnatzen denean hautatzen duten lehenengo ekintza haurra garbi eta eroso uztea izaten da. Ama horiek, haurraren lehenbiziko egunetan, haurraren zulo txiki guztien espezialista handiak izatera iritsi dira. Gero bularra edo biberioa emango diote. Bigarren pauso horretan harreman bat egongo da. Ondoren, komunikazioaren hirugarren urrats hori etorriko da, lehen esan dugun modu berean.

Jakina, ume horiek ez dute informazio bera jasoko, ekintzen antolaketa eta horren ondorioz eraturako harremanak ez direlako berdinak. Hasierako pausoa, lehenengo kasuan, jaten ematea zen, eta bigarrenean, gorputza zaintzea.

Baina badago beste eredu bat ere, beste ama mota bat. Haien lehenbiziko ardura komunikazioa lantzea da. Esnatzen denean ongi eto-

ria eman nahi diote, irribarre gozo batekin, emozioak adierazi nahi diete esanez: “Nola egin duzu lo maitea?”; “Ametsik izan al duzu?”; “Zelako gogoak nituen zu esnatzeko...” Komunikazioa lantzen da emozioz beteriko diskurtso horren bidez. Emakume horientzat komunikazioa da garrantzitsuena. Ama horiek oso eroso egoten dira haurrekin, normalean ez dira estutzen, ez dute antsietatea sentitzen. Ongizate ingurune bat sortzen dute, batez ere haurtzaroen ama horiek ere egoera hau bizi izan zutelako, hots, goxotasun hori bizi izan zutelako. Gero haurrari lasai egoteko eta ez kezkatzeko esaten diote segituan bularra edo biberioia emango diotelako. Beraz, biberioia prestatzera joango dira ondoren biberioia edo bularra ematen hasteko. Ondoren pixa-oihalak garbituko dituzte. Batzuei berdin zaie haurra garbi edo zikin dagoen bularra emateko orduan. Haur horiek ere beste erreferentzia batzuk izango dituzte, bai denborarekiko, bai beste kontu batzuekiko.

Horregatik da garrantzitsua hainbat kontu argi edukitzea, hau da, estrategia bat edo beste bat aukeratzeko bada, estrategia hori denboran zehar mantendu behar da, kontrarian edo kontrako jarrerarik ez agertzeko. Ama batek komunikazioari lehentasuna eman baldin badio, horretan jarraitu behar du, kontutan izan gabe besteek esaten diotena. Bakoitzak nortasun bat dauka, jarduteko modu bat eta, ondorioz, bakoitzak bide bat aukeratu du, eta hori errespetatu egin behar da. Ama bakoitzak bizi izan duenaren ondorio da. Hor eragile pila bat daude, amak nola ulertzen duen ama izate hori, zer iritzi dau-

kan ama gisa bete behar dituen egin-kizunen gainean, adibidez... Haurrak uste dugun baino kompetenteagoak dira, gaitasuna izango dute beren erritmoak antolatzeko, baldin eta begiratuaren harreman hori lantzeko aukera izan badute.

Gutxika-gutxika haur batzuk 4 hilabete dituztela, 6-7 lo-esnatze alternantzia dauzkate eguneko 24 orduetan zehar; beste familiako haur batek, aldiz, 3-4 alternantzia dauzka. Urte betera helztean, lehen 6-7 lo-esnatze alternantzia zituenak orain 2-3 baino ez ditu; lehen 3-4 alternantzia zeukanak, ordea, orain alternantzia bakar bat izango du, hau da, egunez esna eta gauez lo egingo du. Haur bakoitzak garapen propioa eta berezitu bat dauka eta hori familia beraren barruan ere bai. Beraz, familian, aitak, amak eta gainerakoek onartu beharko dute izandako haurrek ez dituztela erritmo berberak jarraituko, aldeak egongo direla haien artean.

Aldi berean, haurrek gutxi gorabehera amaren alternantzia berbera izango dute, eta haur horiek seguruago egonkortuko dute gaueko loaldia beste batzuek baino. Hori 6 eta 8 hilabete artean gertatzen da. Adin horretan, haurrak geroz eta gehiago lo egingo du gauez, itxura batean behintzat, amaren loaldia kontuan izango balu bezala, ama esnatu nahi izango ez balu bezala.

Beste haur batzuek, ordea, ez dute gaueko loaldia egonkortuko.

Hau da, gaueko loaldi luze hori geroago etorriko zaie. Ama irregularragoa baldin bada, adibidez, ama ohera beranduago joaten bada, hots, ohera telebistari begira egon eta gero joaten bada, edota gauean esnatzeko ohitura baldin badauka, haurrak beranduago egonkortuko du gaueko lo hori. Gai hau ez da oso eroso, amarentzat nekagarria izaten delako. Beraz, amek ez badute ondo lo egiten, horrek hurrengan ere eragina izango du. Horregatik pediatergana edo haurpsikologoengana joaten baldin badira, zera esan behar zera zaie: lasai egoteko ez delako haien errua. Ama gautxoria baldin bada edo gauean zehar behin baino gehiagotan esnatzen baldin bada, ez da bere errua, horrelakoxea da eta onartu egin behar da. Egoera horiei aurre egiteko oso interesgarria izango litzateke truku txikiren bat edukitzea, baita kimikoa baldin bada ere, hau da, loaren egonkortzailearen bat izatea.

Erreferentzien eta erritmoen egonkortasunaren beharra haur eskoletan

Amei bere ohiturak ez aldatzeko esan behar diegu. Lehenengo bularra eman nahi baldin badio, gero eroso jarri eta gero hitz egin, konforme; lehenengo garbitu egin nahi baldin badi, gero jaten eman eta gero hitz egin, konforme; edota lehenengo hitz egin nahi baldin badio, gero bularra eman eta gero garbitu, hori ere egokia izango litzateke. Eredu



© 2010 Jean-François Lévesque. L'explorateur no. 11 (haurrak) 2010

guztiak daude ondo. Izateko era ezberdinak dira, eta onartu egin behar dira. Horrek gero erreferentzia bat emango dio haurrari. Baina era batera edo bestera izan, haurrak beti sistema egonkor batera helduko dira.

Frantzia haur eskoletako irakasleek amari galdetzen dioten lehengo gauza zera da: etxean edo familian zer gertatzen den, haurrak noiz hartzen duen lo, noiz esnatzen den egunean zehar, noiz jaitzen den, loaldiak zenbat irau-

Oso garrantzitsua da goizez, haurra esnatzen denean, bere burua bakarrik ez ikustea, ez dezala arriskurik ikusi. Beraz, ama eta aitarengatik banatzeko momentu horiek oso ondo prestatu behar dira biek trabarik gabe onar dezaten.

ten duen, hurrengo loaldia nolakoa den..., hau da, zer esna eta loaldi erregimen daukan haurrak. Hori gurasoei galdetu behar zaie, baina inongo asmo txarrik gabe, inori ezere errurik bota gabe.

Horrez gain, amari beste informazio honi buruz galdetzearen garrantzia ikusten da: zein den familiak etxean haurrarekin jarraitzen duen eredua. Hots, amak azaldu beharko luke nola dagoen antolatuta umearekin jarraitzen duen ekintzen sekuentzia: zein izaten den

hasierako jarduera—bularra eman, garbitu, berba egin...— eta hurrengo ekintzak ere zeintzuk diren jakitea komeniko litzateke. Amaren erritmo berbera errespetatu behar da eskolan ere. Hori oso garrantzitsua da, etxeko erritmo berbera jarraitzea eskaini behar delako, bai esna eta loaldietarako, bai jarduerarako.

Loaldi eta esna aldien arteko alternantzia horien arabera erabakiko da gure organismoak nola egingo duen lan. Horretan gauaren eta egunaren arteko alternantziak eragin zuzena izango du. Esate baterako, ama batek diru beharrez gauez lan egin behar badu, orduan amarekin berreraikitze lan bat egin beharko litzateke. Lan horren helburua amaren lasaitasuna lortzean oinarrituko litzateke, egoera horrek umearengan eragin kaltegarrikerik izan ez dezan. Hor dago aita ere, eta bera izango da gauez jaikiko dena haurrari biberioa emateko. Loturak ez dira beti amarekikoak, bat baino gehiago ere izan ditzake haurrak eta hori zoragarria da. Lotura ezberdinak eratze-ko gaitasuna dauka haurrak; batzuetan amarekikoak sortuko ditu eta beste batzuetan aitarekikoak izango dira. Izugarritzko malgutasuna daukagu gizakiok eta askotan ahaztu egiten gara horretaz.

Loaldi eta esna aldi arteko erritmo horrek erabakiko du gure organismoaren erritmoa zein den, gure zelulena, gure zuntzena... horiek ez dute edozer gauza egiten edozein momentuan.

Hainbat lanetan ikusi izan denez, kortisola giltzurrun gaine-ko glandulek jariatzen duten hormona da. Horrek gure glukemia-rekin zerikusi zuzena dauka. Gibe- la ondo ez baldin badabil korti-

sola erabiliko dugu azukrea sortzeko, eta horrela hipogluzemiarik ez dugu pairatuko. Kortisola oso garrantzitsua da odolatan dugun glukosa maila neurtzeko. Horretaz gainera kanpoko arrisku- etatik babesteko ere balio du kortisolak: ur hotzetatik babesteko, beste animalia edo gizaki baten erasoetatik babesteko... edozein erasoetatik babesteko azken finean. Baina kortisola erabiltzen badugu erasoetatik babesteko, orduan gure organismoaren azukre mailaren erregulazio sistema aldatu egingo da, bata bestea dakarrelako. Horregatik da hain garrantzitsua haurrari kanpo eraso- ez babesten erakustea.

Gaur egun dakigunez, gure glandula horietan kortisola kopuru- rik handiena goizeko 06:00-07:00ak aldera jariatzen da. Badi- rudi gorputza prestatzen ari dela, esnatzen ari dela egunaren aurre- an, egunak hainbat eraso ekar ditzakeelako. Babes sistema modu- ko bat da eta batez ere haurren- gan ematen da. Horregatik hau- rrak eta amak edota haurrak eta aita banatze hori giro lasai-lasaian egin behar dute, inongo tentsio- rik gabe. Oso garrantzitsua da goi- zez, haurra esnatzen denean, bere burua bakarrik ez ikustea, ez deza- la arriskurik ikusi. Beraz, ama eta aitarengatik banatzeko momentu horiek oso ondo prestatu behar dira biek trabarik gabe onar deza- ten.

Hormonen jariatzea antola- tzeko erloju moduko batzuk dau- kagu. Horiek egunsenti aldera dau- de bizi-bizirik, 05:00-06:00ak alde- ra, hormona gehienak ordu horie- tan jariatzen direlako. Beraz, egun- sentian esnatzen da gure organ-ismoa eta egunsentian prestatzen ditugu gure buruak egunari aurre

zio txikiren bat sor dezake langile horiengan. Baina, hala ere, jakin beharra dago, umeek ordu horietan lo egin behar dutela, hori baita umearen berezko erritmoa. 15 edo 20 minutu ostean, haurra esnatu egingo da eta orduan egongo da gertu hainbat gauza ikasten hasteko, adi-adi egongo da, oso ondo ulertuko du zer esaten eta eskatzen dioten. Beraz, ez da denbora alperrik galdu, denbora irabazi egin da, hain zuzen ere. Beraz, umei loaldia etortzen zaienean, errespetatu egin behar da.

Esan bezala, eguna antolatzeko, kontutan izan behar ditugu erritmo biologikoak. Kontu horiei buruz pentsatu egin behar dugu, antolatu behar dugu lo eta esna egoteko denbora bereizketa hori.

Gaur egun, Frantzian behin behin, bazkaria goizeko 11etan izaten da gutxi gorabehera, gero garbitu egiten ditugu haurrak eta eguerdi aldera siestara eramaten ditugu. Hori da gure ohiko erritmoa. Baina ama-eskolan baldin badaude, gauzak ezberdinak dira. Eskola horietara 2 eta 3 urte bitarteko haurrak joaten dira. Dohainekoak dira. Aitzitik, haur eskolak edo haurtzaindegiak, ez. Ama-eskolara joaten diren haurrak normalean arrazoi ekonomikoengatik joaten dira. Ama-eskola horietan, goizeko ordutegia 11etan bukatzen da eta ordu bata eta erdietatik lauak

arte arratsaldeko ordutegia izaten da. Horrek esan nahi du 2 eta 3 urte bitarteko haurrek beste erritmo bat behar dutela, loaldi eta esnaaldi erritmoa hautsi egingo baitiegu. Ez diegu lo egiten utziko, nahiz eta izugarritzko logura izan.

Goiza amaitzen denean, 11:30ean, bi irtenbide daude: batzuetan gurasoen etxera joango dira bazkaltzera edo eskolako jantokian geldituko dira bestela. Jantokian geldituz gero, haurrek arrisku bat izango dute: 11:30ean edo 12:30eko tarte horretan bazkalduko dute. Beraz, lo egiteko ordua atzeratu egiten da. Normalean etxean bazkaltzean, lo lehentxeago hartzen dute eta gero ordu bata edo ordu bata eta erdiak aldera esnatzen dituzte berriz ere eskolara joateko. Eskolan bazkaldu ostean lo egiteko aukera eman beharko litzazieke, baina hori ez da eskola guztietan gertatzen. Bere ohiko gela baldin bada, normalean ez da arazorik egoten, baina gero gainontzeko haurrak datozenean, behar bada lo zegoen haurra esnatu egingo dute eta, ondorioz, nahasketak egon daitezke.

Beste batzuetan, bazkal osteko loalditxo egiteko ez dago lekurik eskolan, beraz, hor egunez egin beharreko loaldi horiek nahastu egiten dira. Nahiz eta hezitzaileak oso onak izan, egoera horretan haurraren loaldiak nahastu egiten dituzte eta hori oinarri-oinarritzkoa da haurraren garapenarentzat.

Haurra oso txikia denetik bere erritmoa egokitzen hasiko da, baina hori gutxika-gutxika egin behar da, modu mailakatuan egin behar da, alegia. 3, 4 edota 5 urte dituzenean, goizeko 9etan nekez hartuko du lo, adin horrekin haurra gau-



Loaldia egiten dituzte eta haurrak

za izango da lo egin barik zerbait egoteko. Hori ala izanik ere, haurrik ahulenek edo hauskorrenek nolabaiteko atentzio galera pairatuko dute 09:00ak 09:30 aldera, batez ere 08:30ean sartzen baldin badira. Ordu horretan nekatuta egongo dira, begiak itxiko dituztela, erdi aharrasika ikusiko ditugu. Denbora pixka bat behar dute, atentzioa bete lortzeko. Ezin izango du esnatuta egon logura baldin badauka, beraz, arreta ez du behar bezala jarriko. Ondorioz, ezin izango ditu inguruko mezuak behar bezala barneratu, hezitzaile, maisu edo maistraren mezuak ezin barneratu, alegia. Haur batzuek denbora dezente behar dute haien gaitasun guztiak esnarazteko, arreta guztia lanean jartzeko eta inguruko mezuak barneratzeko, lehen esan bezala hezitzaile, maisu edo maistraren mezuak barneratzeko.

Hori bai, 09:30 aldera logura duten haurrak gauean behar beste lo egin ez dutenean agertzen dira. Etxean segurtasun gabeko giroa dutenean, hau da, gurasoekiko lotura egonkor hori garatzerik ez dutenean. Esate baterako, ama, aita edo guraso biak langabezia daudenean, gurasoak estu, larri eta egoenezinarekin egotean, haurrak bizi eta sentitu egingo du eta horrek eragina izango du. Segurtasun ezaren aurrean haurra errudun sentituko da. Espezialisten kontsultetan askotan agertzen da hori. Baina ez hori bakarrik, desoreka dakarten beste egoera askoren aurrean

ere errudun sentimendu hori barneratuko baitu: gurasoen artean arazoak daudenean; aitak, amak edo anai-arrebek tratatu txarrak eragiten dizkiotenean; aita, ama edota guraso biak gaixorik daudenean edo berak gaixorik daudela uste duenean... Egoera horietan haurrei asko kostatuko zaie lo hartzea. Gainera askotan esnatuko dira, estutu eta larrituko dira, amets gaitoak izango dituzte... Lo hartzearen erritmo hori lotuta agertzen da, beraz, etxeko egoera, giro eta bizi-penekin.

Goizean haurrak logura daukala ikusiko dugu eta horrek segurtasun eza ekarriko du. Ondorioz haurra bere baitan bilduko da, burbuila antzeko bat sortuko du, mundu berezi bat sortuko du, ez du aurrez aurre begiratu, ez da inorekin egoten saiatuko... Bestalde, batzuetan gehiegizko aktibitatea ere izango du, baina ez hori bakarrik, inoren gauzak bereak egiten saiatuko da, mehatxu egingo du, eraso ere egingo du... Jokabide horiek guztiak sintoma batzuen berri ematen digute. Horrek zera esan nahi du: haurra ez dagoela seguru, bere burua ez duela eroso ikusten... Familian gertatzen den arren, lagunen taldean ere horrelako zerbaite gerta daiteke: ikusten badu inguruko haurrak ez direla kide bihurtzen edota taldean ez dutela hartzen, ondorio berak izango ditu.

Hori dela eta, nik uste dut goizean denbora eman behar zaiola umeari lasai egoteko, atsedean hartzeko. Etxetik eskolara joateko bide horretan, denbora tarte bat dago, beraz, hori trantsizioa egiteko tarte izan daiteke. Umeek goizeko 09:30 inguruan atsedena hartuz gero, probabilitate handia izango dugu gaitasun guztiak lantzeko. Ondo baldin badaude, ikastea oso erraza izango da, dena xurga-

tzen baitute. Dena xurgatzeko gaitasun horrek 5-7 urteko haurren artean 11:00etatik 11:30 arte iraungo du; 12:00ak arte zaharragoak diren umeengan; eta azkenik institutukoek, 11-14 urte arteko haurrek, gaitasun hori zabaltxoago izango dute eta 12:30 arte iraungo du.

Gero eguerdia etorriko da eta horrekin lasaitasuna eta atsedean hartzeko momentua dator. Baina batzuetan jantokian izugarrizko zarata dago eta horrek umeak nekatu egiten ditu. Hori dela eta, adinaren arabera, itxaron egin behar dugu arratsaldean umearen gaitasun intelektual hori berriz erabiltzeko. Beraz, arratsaldeko 3etatik 5ak arte oso une aproposa da ikasteko. Arratsaldeko 5etatik aurrera gorputzaren tenperatura igo egiten da, metabolismoan aldaketak sortzen dira, beraz, oso momentu aproposa da kirola egiten hasteko, hau da, energia erretzeko momentua da hori.

Ondoren afaltzeko ordua etorriko da eta horrekin batera, gurasoen egoteko momentua, hitz egiteko unea, nolabaiteko informazioa eta emozioak trukatzeko

unea. Afalostean lo egiteko ordua iritsiko da. Une horretan goxotasuna eskaini behar diogu umeari ipuin edota abestien bidez. Momentu hori oso une garrantzitsua da haurrak lasaitzeko. Ez dago medizina edo sendagairik une hori ordezkatzeko. Jakina, gurasoei, amari edota aitari, pilularen batekin lagundu ahal diegu, baina haurrei ez, kimika ez da umeentzat sortu. Hor ongizatea goxotasunaren bidez sortu behar dugu. Lo hartze aurreko une hori oso garrantzitsua da.

Haur baten eguna, azaldu dugun guztia da gutxi gorabehera. Esandako bidetik jarraitzen bada, haur horrek bere gaitasun guztiak landu ahal izango ditu eta bere gaitasun intelektualak landu ahal izango ditu. Esan bezala, eguna antolatzeko, kontutan izan behar ditugu erritmo biologikoak. Kontu horiei buruz pentsatu egin behar dugu, antolatu behar dugu lo eta esna egoteko denbora bereizketa hori. Gauak eta egunak lo eta esna aldiekin lotu egin behar dira. Arreta jarri behar dugu gai honetan, honek guztiak pertsona berarengan, familiarengan eta gizartearengan eragina baitauka.



188-987-1088

Beste hurbilpen bat haur garapenari eta haurre

ESTRATEGIA BERRIAK ESKOLA PORROTARI, JOKABIDI

Hubert Montagner

Psiko-Biologiako irakasle Basençon, Montpellier, Bordeaux eta Parisako Unibertsitateetan



KONTZEPTU ASKO IZAN BEHAR DIRA KONTUAN ULERTU AHAL IZATEKO JARRERAK NOLA SORTZEN DIREN ETA NOLA GARATZEN DIREN. ATXIKIMENDU PROZESUAK ETA GARAPEN PROZESUAK EZ DIRA GAUZA BERDINA, BERAZ, HOR NAHASKETARIK EZ EGITEA KOMENIKO LITZAIGUKE.

Gai hau jorratzeko hainbat ezintasun edo gabezia dituen haur bat hartuko dugu adibide gisa. Haur honen adibideari esker hobeto bereizi ahal izango dugu zer den garapena, zer den atxikimendua eta nola erregulatu diren jarrerak.

SARRERA

Zortzi urteko haur honek zenbait ezintasun zituen. Haurraren jarraipena egiten hasi ginen.

Haur honek garunean dituen arazoen ondorioz mugitzeko zailtasunak izaten ditu. Hori dela eta, gurpildun aurki batean ibiltzen da. Medikuen eta hezkuntzaren ikuspuntutik erabat geldo dagoen gizaki bat da.

IMC gaitza daukaten haurrek hainbat indar edo ahalmen ezkutuan daukate eta hezkuntzaren ohiko bideetatik ezin dituzte azalerazi. Haur honekin zeuden hezitzaile bi horretaz ohartu ziren. Haiek ikusi nahi

zuten gure eskola ereduan haur hau nola mugitzen zen, zer nolako bilakaera zeukan.

Hezitzaile bi haien helburuak hauexek ziren:

- Ezkutuan edo gordeak zeunden gaitasunak ikusi nahi zituzten.
- Benetako mentsak zeintzuk ziren ikusi nahi zuten.
- Garatzeko zituen aukerak ikusi eta ezagutu nahi zituzten.
- Eta azkenik, atxikimendu

haurren loturen en jokabideei

E NAHASTEETEI ETA MARJINAZIOARI AURRE EGITEKO

ezaren berri ematen zuen adierazle baten presentzia batorote zegoen ikusi nahi zuten.

Azken batean, haur hauen jarrazein zen ezagutu nahi zuten. Bazarudien haur honek ez zekiela ezer egiten, erabat geldi zegoelako.

Hezitzaile bi haien proposamena onartu genuen eta hainbat saio antolatu genituen 15ean behin egiteko. IMC sailkapeneko haur batzuk ziren, batak bestea ezagutzen zuten eta zentro jakin batetik zetozen.

Haur baten bilakaera ikusteko aukera izan genuen. 10 hilabetetan zehar gertatutako gorabeheren berri emango dizuet.

Haurrak zortzi urte ditu. Ez da 0-3 urte tartekoa, zortzi urtekoa da. zortzi urterekin, azalduko dizuedan guztia garatzeko gai baldin bada; ez da inolako arazorik egongo haur gazteagoek gaitasun berak eta prozesu berak garatu ahal izateko.

Nire ustez, bai zientziaren eremuan, bai eremu klinikoan



Chia & Altag

oso mugatzaileak gara. Askotan ezintasuna edo gaitza ikusten dugu, baina ez aurrean daukagun haurra. Gaitz bat daukan haurra, ezer baino lehen, haurra da, ez da ezindu bat. Ezin dugu ahaztu ezintasun bat daukan haurra, IMC duen ume bat edo autista den haurra, gaixotasun bat izan arren, haurra dela. Ikuspegi giza-tiarrago bat izan behar dugula iruditzen zait niri. Lehenik aurrez aurre haur bat daukagula ikusi behar dugu, gero daukan ezintasun horretan arreta jartzeko. Azken batean, ezintasunari lehentasuna ematen baldin badiegu, orduan segur aski ezin

Ezin dugu ahaztu ezintasun bat daukan haurra, IMC duen ume bat edo autista den haurra, gaixotasun bat izan arren, haurra dela.

izango dugu imajinatu ere egin zeintzuk izan daitezkeen baldintza egokienak. Askotan ezintasun hori gainditzeko, gutxiago-tzeko edo arintzeko aukera ere egon daiteke.

NIKOLASEN ADIBIDEA

Adibide hau ezagutzean, edozein ezintasunen aurrean itxaropen kutsu bat egon daitekeela ikusi ahal izango duzue.

Gure adibidearen protagonistak Nikolas du izena. Nahiz eta ezintasun bat izan, haurtzaindegi batean hartu dute. Beste edozein

haur balitz bezala egin diote harrera. Lehenik aurrez aurre haur bat daukatela ikusten dute, baina noski daukan gaitza ere kontutan hartuta.

Haur horien ahalmenenak sustatzen baldin baditugu, espero ez genituen gaitasunak erakutsiko dizkigute. Askotan gurgildun aurkietara mugatuta daude. Gure zentrotara etortzen direnean, haurrak gurgildun aurkietatik atera eta lurrean jarriko ditugu. Hasiara batean, oso esperientzia gogorra izaten da. Kontutan hartu behar dugu haur hauek mugitzea galarazten dien gaixotasun bat daukatela, garunak eragindako gaitza, hain zuzen ere.

Gaixotasun horren jatorria oraindik ez dugu ezagutzen. Nikolasek jaio zenetik dauka gaixotasuna. 7 hilabete zituela konturatu ziren ezintasun bat zeukala. Ezin dio bere gorputzari eutsi, ikusteko arazoak ere baditu, ez da gauza zutik egoteko, gainontzeko haurrekin ez dauka harremanik...

Guk egituratutako protokoloan, zaintzaileei esaten diegu haurrei gaitasun horiek lantzen lagun diezaietela. Azterlan honetan parte hartu zuten haur guztiek garunak eragindako mugitzeko arazoak dituzte. Mugitzeko arazoak dituen haur talde honekin batera arazorik ez zeukaten haurrak ere bazeuden.

Gure hipotesia ondorengoa zen: haurrak gune berezi horretan, jolasean dauden bitartean, guk espero ez ditugun gaitasun batzuen berri emango digutela.

Izan genuen 2. saioan, ikusi

ahal izan genuen Nikolas ipurdi gainean mugitzen zela eta aurreraka zihoala. Lehen normalean atzeraka mugitzen zen, baina orain aurreraka ere egiteko ahalmena dauka. Beraz, Nikolasek mugitzeko gaitasuna zeukala ikusi genuen. Beti ere ipurdi gainean jarrita eta aurreraka, ez baitauka beste mugitzeko modurik.

Aste batzuen ostean, Nikolas lokal guztian zehar mugitzen zen. Ez dauka ilunpean edo pasillotik ibiltzeko beldurrik, nahiz eta hor beste inor ez egon bera behatzen. Gauza da bere ibilbidea nahi duenean aldatzeko, hezitzaileak dauden tokira joateko, adibidez. Hezitzaileek edo zaintzaileek pasillotik ez dute Nikolas ikusten, baina orain bere buroa babestuta ikusten duenez ingurunea ezagutu nahi du. Errealitatearen esplorazioa ezin du bere ohiko zentroan egin, beldur direlako istripu bat ez ote zaion gertatuko. Ohiko zentroan ez daukate gure zentroan beste askatasun. Azken finean, haurrek ez daukate motrizitatearen eta arriskuaren kontzientzia.

Orain arte bilakaera txikia izan da.

Behi batean Nikolas eskailera ondoraino hurbildu zen eta aurrera egin zuen igotzeko asmoarekin. Hezitzailea Nikolasek asmoaz ohartu zen. Berarengana joan eta haurrari heldu zion gora egiteko ahalegin horretan lagunduz. Egoera hartan haurrak erakutsi zigun hankak aldatzeko borondatea zeukala, nahiz eta ordua arte inor ez zen hori ikusteko gai izan.

Haurra ezkerreko eta eskuinteko hankak mugitzen ari da,

txandakatze hori ondo egiten du, oinez ibiliko balitz bezala. Hantxak ez zituen erabiltzen, gu mugatzen ari ginen haurrak ezkutuan zeukan gaitasun hori, aukera hori eskaintzen ez geniolako. Alternantzia mekanismo hori barneratuta zeukala ohartu gara, baina ez hori bakarrik, baita bera bakarrik zutik geratzeko gauza dela ere. Azken batean, medikuek eta hezitzaileek pentsatzen zuten hantxak mugitzeko aukera hori emateak ez zeukala inolako zentzurik.

Hezitzaile hauen lana mireskekoa dela uste dut, garapenean eragin izugarria daukatelako, hain zuzen ere. Badakigu aurreiritzi pilo bat daudela, baina talde osoaren aurreiritzi aurrea hartuta lan bikaina egin daiteke.

Lehen esan dugun bezala, Nikolasek zutik jartzeko gaitasuna zeukan. Hezitzailea gertu izateak lasaitu egiten du eta era berean seguru sentiarazten dio. Hala ere, bera bakarrik zutik mantentzeko gauza da, hobeto edo okerrago, baina zutik. Garrantzitsuena zera da: borondatea edo zutik egon nahia erakusten duela. Gurpildun aurki batean baldin badago, ez dauka esperientzia hori gauzatzerik.

Hezitzaileek egoera honetan umeen ahalmenak zeintzuk diren ikusten dute eta ondorioz egoerak aldatzen joaten dira haurrari autonomia gehiago emateko. Haurrak oreka mantentzeko arazoak dituenek, jarduera horietan neurtutako arriskua dago. Haurrei ihes egiteko aukera ere ematen zaie.

Eskailera igo ostean, eskaileran bera egitea erabaki zuen. He-

zitzaileak lan horretan ere Nikolasi helduz lagundu zion. Egoera horietan, haurrak bere buruarengan konfiantza areagotzen du, gutxika-gutxika jaisten ari dela ikusten duelako. Jaisten ari zen bitartean poza adierazten duten ahotsak edo soinuak egiten zituen.

Hilabete bat beranduago, Nikolasek beste umeak ere erakartzen zituen. Umeak Nikolasegana gauzak eskatzera joaten ziren, elkar eraginean aritzen ziren, beraz. Izaki modura garatzen ari zen. Gainontzeko umeak Nikolas eskaileran gora igo zedin lagundu nahian zenbiltzan eta eskuak non jarri behar zituen ere erakusten zitoten.

Gure lokalera iritsi baino lehen, jendeak uste zuen Nikolasek ez zuela komunikatzeko gaitasunik. Orain, berriz, ikusten dugu Nikolasek gero eta maizago adierazten duela maldan gora igotzeko nahia. Bere kabuz abiatzen da eta ahal duen bezala beti gora egiten du. Hau da, atzeraka, ipurdiaren gainean eserita eta

poliki-poliki beti gora egitea lortzen du. Azkenean ez du inolarguntzeko, bere kaxa gora igo behar du. Horretarako bere burua antolatu behar du, berak aurkitu behar du zeri heldu. Mugitzeko gaitasun berri horiek erakutsi zituen irakasleak gertu-gertu zituellako, baina ez dio inork lagundu.

Gainontzeko umeek Nikolasekin jolasean gero eta maizago ibili nahi dute. Orain halako ezintasun larririk ez duten beste umeek Nikolasekin joan nahi izaten dute, beraz, adiskidetasun edo laguntasun modukoa sortu da beste umeen eta Nikolasekin artean.

Nicolasek garbi-garbi erakusten du besteek egiten dituzten gauza berberak egin ditzakeela. Gure haur eskolan zulodun horma bat dago eta Nikolasek besoa pasatzen du zulo horretatik. Beste aldean dagoen umea buruan jotzen du, horrela pozik dagoela adierazten du. Zulo horien beste aldean zapi bat egoten da. Zapia jaso egiten du beste ume batzuei egiten ikusi dien antzera. Hau



Chara Mirag

da, besteek egiten dituzten gauza berberak egiten ditu, edo horretan hasi da behintzat.

Zulo horretatik beste ume batekin komunikazioan jarduteko aukera dauka. Ondorioz beste umei begira dago orain, hau da, kanpoko munduari begira dago. Horrela, begiradaren bitartez, hainbat informazio jaso ahal izango du. Jasotako informazio horrek, besteek egiten dutenari buruzko informazioak, batez ere, kanpoan gertatzen denari zentzua emateko balioko dio. Elkar eragineko dinamika bat martxan jartzen ari da. Asmoari gero eta

nean aurrera egiteko gaitasuna.

Saiotetan grabatutako bideoak gurasoei erakusten dizkiegunean, izaten duten erreakzioa aparta izaten da benetan. Ume hauen gurasoak oso pozik daude haien umeek izandako garapenarekin. Oso garrantzitsua da gurasoei laguntza psikologikoa ematea, gehienetan errudun sentitzen direlako.

Gurasoek haien seme-alabak lehenengo eskolatik atera eta beste ikastetxe batean apuntatu zituzten. Montpellier-etik 100 kilometrorra dago, baina umeen beharretara hobeto egokitua dago.

Denbora aurrera joan ahala hitz egiten hasiko dira, emozioak adierazten, alegia. Nik gero eta argiago daukat, ezintasun bat izan arren, umei beste era batera begiratu behar diegula. Horrek zera esan nahi du, lehenik eta behin, ez ditugula halako kategoria jakin batean sartu behar. Koadro kliniko bat ezarri behar da, protokolo bat zehaztu, alegia, baina ez ditugu protokolo horiek itxi-itxi egin behar.

Garapenari buruz hitz egiten baldin badugu, kontutan hartu beharko genuke ez dagoela ezer estatikorik; hau da, ez dago ezer betiko erabakita. Kasu batzuk konplexuak izan daitezke, baina ingurunea egokia baldin bada, aurrera egingo dute. Adibidez, atxikimendua oso garrantzitsua izan da kasu honetan. Hezitzaileek izugarritzko atxikimendua zuten Nikolasekin, beraz, Nikolasek segurtasun afektibo handia sentitzen zuen. Horri esker, ume hau poliki-poliki mundura irekitzen hasi zen. Pauso hori emateko denbora asko behar izan zue-

nez, hezitzaileek pazientzia handia izan behar zuten umearekin. Bere erritmoa jarraituz garatu egin zen, hau da, berak mundua nahi bezain laster eta bere erara deskubritu zuen.

Esate baterako, lehen aipatutako malda mundua ezagutzeko bidetzat aukeratu zuen. Hasiera batean, malda hori ikusi eta malda horretara begira jartzen da, azkenean igotzeko erabakia hartu arte. Arriskuzko jarduera bat edo bide bat irekitzeko gai izan dela ikusi dugu. Lehen gurgildun aulki batean zegoen eserita, baina gero aurrera egiteko indarra izan zuen gainontzeko hezitzaile eta umeekin sortu ziren harremanei esker. Segurtasun afektiboa-ren gabezia zuen lehen, baina garatutako harremanei esker bere buruarengan konfiantza izatea lortu du. Umeak berak erabakitzen du ingurunea noiz aztertu nahi duen. Malda igo nahi baldin badu, desio hori errespetatu egin da, nahiz eta arrisku txiki bat egon.

Halako umeak hobeto ezagutzeko 3 faktore hartu behar ditugun kontutan:

Segurtasuna afektiboa ekaini behar zaiela.

Umearen denboraren garapena errespetatu behar dela.

Ingurunea esploratzeko aukera eman behar diogula. Horretarako inguruneak modu konkretu batean antolatuta eta egituratuta egon behar du.

Nikolasek haren gaitasunak erakutsi dizkigu, baina horretaz gainera ere kanpo munduari zuzendutako begirada aldatu egin du. Gurasoak orain lehen baino gusturago daude. Nahiko etsiak zeuden, hau da, amore eman zu-

Umeak ezkutuan dauzkan edo guk ezagutzen ez ditugun hainbat gaitasun erakutsiko dizkigu, aukera eskaintzen baldin badiogu, noski.

gehiago eusten dio eta elkar eraginetarako joera gero eta maizago adierazten du: aurrean daukan haurrari buruan kolpe txikiak emanez, irribarre eginez...

Gure haur eskolara etorri aurretik, inork ez zuen uste ume honek gaitasun horiek zituenik ere. Lehen aipatutako 45 gradu dituen aldapa hori igotzeko gauza da. Gora iristen denean pixka bat lagundu behar zaio, baina berak bakarrik igo dezake, beste inoren laguntzarik gabe. Ume honekin lan egiten duten hezitzaileek baieztatzen dute ume horrek baduela ipurdi gai-

ten medikuek esaten zietelako ez zegoela zer eginik. Gurasoek umearekiko zeukatzen afektua, atxikimendua, loturak aldatu egin dituzte. Umeak aurrera egitea lortu duenez, guraso eta seme-alaben arteko harremanetara atxikimendu segurua itzuliko da. Umeak ez du pentsatuko gurasoek bakarrik utziko dutenik, gurasoek onartzen dutela sentituko duelako. Beraz egoera berriei egokitzeko erraztasun handiagoa izango ditu.

Nikolasen adibide hau aukeratu dut, adibide benetan gogorra delako. Guk Nikolas hartu genuenean zortzi urte zituen, baina kontuan izan dugu zer gerta zitekeen urte batekin edo bi urterekin hartu izan bagenu. Urte bat edo bi izanez gero, urte as-

ko izango lituzke aurretik garatu ahala izateko.

Nik uste dut azkarregi edo errazegi etsitzen dugula, segituan ahazten baitugu umeak hainbat egoerari aurre egiteko gai direla. Denbora eta espazioaren arteko harremanak aldatzeko gai baldin bagara, dena alda daiteke. Garpinak hainbat fase omen dauzka, baina nik ez dut horretan gehiegi sinesten. Umeak ezkutuan dauzkan edo guk ezagutzen ez ditugun hainbat gaitasun erakutsiko dizkigu, aukera eskaintzen baldin badiogu, noski.

EMOZIOEN ASKATASUNA

Oraingo honetan, emozioen askatasunaz, emozioak erakusteko gaitasunaz hitz egongo dugu. Ni-

kolasek orain badu joan nahi duen tokira lasai-lasai begira egoteko gaitasuna; hau da, ingurunean daukana ikusteko gaitasuna dauka. Beraz, ezagutzarako eta emoziozko hainbat prozesu martxan jarriko ditu.

Inguruko jendea hobeto ezagutuko du eta, ondorioz, jende horrekiko elkar eragina sortuko da. Orain gurasoenganako elkar eragina nabarmena da. Lehen landare moduko bizidun bat zen. Orain pertsonengana joaten da eta beste pertsonak ere berarengana joaten dira; berak jendea ukitzen du eta jendeak bera ere ukitzen du, eta ez da horregatik estutzen. Keinuak ondo egitura-tuta ditu eta esku hartzearen momentu honetan gurasoak imitatzen hasia da.



Chiaia Nijeg Leesa launarekin

Hitz egiten hasten da, haur normal baten ezagupen prozedurak martxan jarriko ditu, beraz. Zoritxarrez, gaur egun prozedura kognitibo horiei garrantzi handiegia ematen zaie. Nire ustez, prozedura kognitibo horiei hainbeste garrantzia ematea ez da zuzena. Prozedura kognitiboen garapena garrantzitsua da, baina gerta daiteke agertu ez diren gaitasunak gero etorkizunean garatzea edo sortzea. Haur batek

bere erritmoa dauka gaitasunen garapena gauzatzeko.

UMEK GAINONTZEKO UMEKIN LOTURAK SORTZEKO DAUKATEN GAITASUNA

Argi izan behar dugu ume oro direla gauza lotura berriak sortzeko, beti ere amarekin eraikitako lotura hori oinarritzat izanda. Baina badira beste hainbat lotura modu ere.

Bowlby-ren teoria oso garrantzitsua da, baina nik ikuspuntu horretatik alde egitea erabaki nuen, teoria hori bakarrik amaren eta seme edo alabaren arteko atxikimenduan oinarritzen delako. Nire ustez atxikimendu mota hori garrantzitsua da, baina iruditzen zait gainontzeko haurrekin sortzen den lotura ere gogon izan behar dugula. Bowlby-k 1973an idatzi zuen liburuan, haurrek elkarrekin dituzten interakzioei buruz aritzen da. Beraz interakzio horien garrantzia deskubritu zuen. Baina interakziotik harantzago, uste dut haurren artean atxikimendua ere ematen dela.

Haurrek lotura askotariko edo plural hori landu ahal izateko, haurtzaindegietan edo haur eskoletan antolaketa modu berezia lortu behar da. Horrela, euren buruak askatu eta haien jarrerak sendotu ahal izango dituzte. Nik uste dut giro hori sortzea dela daukagun bide bakarra, haurrek benetako ikasle izateko eta, aldi berean, haurrek ikastetxean gizaki modura egoteko gauza izateko. Guk sortutako giro honetan, ikasle onak, etorkizuneko herritar onak, gainontzeko gizakiak errespetatzen dituz-

ten gizakiak... izango dira. Gure haurtzaindegietako umeak elkarrekin harremanetan daudenean normalean ez da erasokortasunik islatzen, gizabidezko jarrerak agertzen dira batez ere.

Beste eskola batzuk eraikitzen ditugunean, orientabide berri batzuk ere eraikitzen ditugu. Azken finean, zentro modu berri hauek gai honen gaineko ikerketari aurrera egiten laguntzen diotenez, ikerketa kopurua ere areagotu egingo dute.

HAUR ESKOLEN IKUSPEGI TEORIKOA

Nik neurologia arloan dabiltzan ikertzaileekin, hots, garuna aztertzen duten adituekin egoteko aukera daukat. Neuronen funtzionamendua ikertzen jarraitu behar dugu, kaxa beltz horren (garunaren) funtzionamendua ezagutu eta ulertu ahal izateko. Nik hemen aipatutakoarekin eredu berri bat aurkezten saiatu naiz: umeen garunaren garapena ulertzeko modu berri bat, alegia.

Psikologia askotan psikoanalisisira bakarrik mugatzen da. Psikoanalisiak teoria garrantzitsuak eraiki zituen. Gero teoria kognitiboak sortu ziren, neurozientzien antza zeukatenak, hain zuzen ere. Nik ez dut uste teoria kognitibo horiek bide egokiena direnik. Psikologia kognitiboak aurrera egin nahi baldin badu, emozioak eta sentipenak kontutan hartu beharko ditu. Badakit metodologiaren ikuspuntutik konplexua eta zaila dela, baina nire ustez hori da bide bakarra.

Irakaskuntzarako beste ikuspegi bat dago. Ikasleei ezin diegu soilik ikasteko eskatu. Segurta-

Gaur egun eskolako porrota eta eskolan agertzen den indarkeria azaltzeko bi arazo ditugu. Haur hauek segurtasun falta handia daukatenez, beldurra gainditu ezinean daude. Segurtasun afektiborik ezin dute lortu, beraz, kanpoko munduarekiko eta gainontzeko pertsonerekiko beldurra daukate.

mundua nola ulertzen duen ezagutzeko, lehendabizi emozioak askatzeko prest egon behar du; gainontzeko umeekin interakzioan aritzeko gaitasuna izan behar du; eta, azkenik, prozedura kognitibo horiek etorriko dira.

Azpimarratu nahi nuke ikuspegi berri hau kontutan izan behar dugula. Prozedura kognitiboak agertu baino lehen, beste oinarritzko gaitasun batzuk landuta egon behar dira. Ume bakoitzak

sun afektiboa eskaini behar diegu eta sormenerako benetako bidera hel daitezen lan tresnak eman behar dizkiegu. Haurrek segurtasun afektibo hori lortzen baldin badute, haurrek arreta handiagoa jartzea eta harkorragoak izatea lortzen baldin badugu, hau da, etorkizunerako baldintza egokiak eraikitzen baldin baditugu, orduan bidea errazago izango da, ez da beharrezkoa izango gauzak hamar aldiz errepikatzea. Baldintza horiekin, seguru aski, lehendabizi ematen zaien informazioa berehala jasoko dute, beti askoz errazagoa izango da.

Horrek ez du esan nahi, inola ere, denbora galtzen ari garenik. Kontua ez da zenbat denbora behar dugun ikasteko, kontua da nola ikasten dugun ikustea. Haurrak nola ikasten duen ulertzea da gure helburua, gero haurrari baldintza horiek jartzeko. Ez dugu pentsatu behar haurrak zen-

bat eta denbora gehiago igaro ikasten orduan eta okerrago ibiliko direnik.

Gaur egun eskolako porrota eta eskolan agertzen den indarkeria azaltzeko bi arazo ditugu. Haur hauek segurtasun falta handia daukatenez, beldurra gaintitu ezinean daude. Segurtasun afektiborik ezin dute lortu, beraz, kanpoko munduarekiko eta gainontzeko pertsonetikiko beldurra daukate. Guk ere bizitzan zehar, segurtasun falta horiek sentitzen ditugu. Beldurrarekin ezin dugu ikasi eta horretaz jabetu behar dugu. Gogoan izan behar dugu pertsonen funtzionamendua hierarkikoa dela, hots, haurrak oinarrizko mailak (segurtasun afektiboa) gaintitu behar dituela ondorengo mailetara (sormenerako bidera) iristeko.

Pertsona batek bortizkerian oinarritutako jarrerak barnertzen baldin baditu, besteengana jotzeko beldurra daukalako izango da. Beraz, gainontzeko haurrak ezin izango ditu begiratu eta interakziorik ez da egongo.

Ez dute nahi izango inor haiengana hurbiltzea, horregatik norbaiten hurbilketa eraso baten iturria izan daiteke. Elkarlana egin ordez haien buruaren baitan

biltzen dira, mundutik eta pertsonengatik ihes egiteko. Errealitatetik ihes egiten ikasten dute. Drogak, hiperaktibitatea edota indarkerian oinarritutako jarrerak esate baterako, izan daitezke gazte horiek ihes egiteko hauta ditzaketan bideak.

Deskribatu dugun errealitate hori aztertzea oso garrantzitsua da.

Nerabezaroan fisiologia eta psikearen aldetik aldaketa handiak daude. Benetako trastorno bat gertatzen da. Gazteei gehienetan ez diegu uzten haien premiei bide ematen. Gazteek beste modu batean hitz egiten hasten dira eta, gu ohartu ez arren, sentimenduak komunikatzeko modu berri bat izaten da. Helduok gauza izan behar dugu adin horretako gazteekin elkarrizketa bat sortzeko. Askotan probokatzen gaituztela pentsatzen dugu, baina kontutan izan behar dugu probokatzearen esanahia hitz egiteko desioa dela. Probokazioa, azken batean, haien sentimenduen berri emateko hautatu duten bidea da.

Testuinguru horretan adi ibili behar dugu eta atxikimendu prozesuak behar bezala aztertu behar ditugu. Nik uste dut eskolako porrota eta bortizkeria konpontzeko bide bakarra eta gure gizarteak aurrera egiteko duen modu bakarra hau dela. Hemen deskribatutako arazoak ez dira konponezinak, ez dago ezer konpondu ezin daitekeenik. Nik uste dut egoerak beti saihestu daitezkeela eta horregatik aipatu dizuet Nikolasen adibidea.



ESTEFAN, Jean Zúñiga. *Le Jeu: Adultes, Enfants: vivre ensemble en collectivité*. Paris: Armand Colin, 1975. p. 116.

Nola antolatu

HAURREN GARAPENA HAIEN ERRITMO ET LOTURAK ETA JOKABIDE SOZIALAK SUSP

Hubert Montagner

Psiko-Biologiako irakasle Basençon, Montpellier, Bordeaux eta Parisako Unibertsitateetan



ESPAZIOAREN EDO ESKOLA BARRUKO GUNE- EN ANTOLAKUNTZAREN GAINEAN ARITUKO GA- RA. ORAIN DELA URTE BATZUK ERABAKI GE- NUEN BEHARREZKOA ZELA BESTE GUNE BE- RRI BATZUK SORTZEA. ORDUKAKO HAUR ES- KOLEN ESPAZIOA BESTE ERA BATERA ANTO- LATZEA ERABAKI GENUEN.

Giraud andreak lehenbizi-ko eskola sortu zuen. Haurrentzako eskola txiki bat egituratu zuen. Teoria nagusia hauxe zen: teoria eta behaketa klinikoak argi erakusten zuten haurra behar bezala garatzeko ezinbestekoa zela harreman sare guztia kontutan hartzea; eta espazioa, denbora nola antolatzen ziren kontutan izatea ere bai. Baina azken dimentsio horien antolaketak ez du arazorik sortu behar pertsonaren berezko erritmoetan. Espazioaren antolaketari dagokionez altuera eta sakonera kontutan hartu behar dira.

Mediku, psikologo, hezitzaile taldeek... hainbat adituk eskatuta, guk zenbait gune antolatu genituen eta hori, jakina, haur eskolatik hasi eta batxilergo arteko ikasmaila guztietan, beti printzipio berak errespetatuta.

Eskolen antolakuntzarako jarraitu behar ditugun printzipioak.

Haurra hiru maila dituen kohete bat bezalakoa da.

- Lehenengo mailan segurtasun afektiboa lortu behar du. Se-

guru sentitzean haurraren barne mundu hori desblokeatzen edo askatzen da. Orduan emozioen interakzioa sortzen da eta oinarritzko kompetentzia batzuk jarriko ditu lanean.

- Bigarren mailan prozedimendu kognitiboak garatuko ditu, hau da, beste ezagupen eta jakituria batzuk barnerratzeko bidean jarriko da, baliabide intelektualak eskuratzeko bidean, alegia.
- Azkenik, hirugarren mailan, irudimena lantzeko garaia iritsiko zaio.

haur eskolak

'A GAITASUNEN ARABERA, BERTZEKO

Ospitaletako antolakuntza

Gurasoek haien seme-alabak lasai deskubri ditzaten, zentroaren egitura aldatu nahi izan genuen. Frantzia ekialdeko mediku batzuekin elkar lanean, gela bat atondu genuen amak, haurra izan eta hurrengo 2-3 egunetan, haurrarekin egoteko aukera izateko. Ama eta haurra aitarekin, gainontzeko senitartekoekin edota lagunekin egon ahal izango dira. Garrantzitsua da, gure ustez, amak eta haurrak bisitekin lasai egoteko espazio jakin bat edukitzea. Hor amak eroso jarrita egoteko aukera izan behar du. Laguntzaile bat egon ohi da, familiarak edozein eratako arazoren bat badauka hor laguntzeko.

Amek gela horretara joan aurretik janzteko aukera izaten dute, beraz ez daukate ospitaleko janzkera hori edo arropa berezi horiek eraman behar. Makilatze-ko aukera daukate, gustuko daukaten arropa janzteko aukera ematen zaie, bai amei eta bai haurrei. Amak jarrita egoteko aukera izango du, haurra besoetan duela. Egoten diren bankuak eroso egoteko diseinatuak izan

dira, batez ere ama bati zesarea egin badiote gerta liteke deseroso egotea.

Habi txiki batzuk daude, amak umea hor uzteko lekua. Era horretan, amari besoak libre geldituko zaizkio eta lasai erabiltzeko aukera izango du, beraz, haurrari begira egoteko erosotasuna izango du. Haurrak burua mugitzen du ama begiratzeko amak hitz egiten dionean. Haurrak begiak nola mugitzen dituen ere ikusi ahal izango du. Horretaz guztiaz jabetuko da ama. Horrela egonda, amak haurraren kompetentziak hobeto ezagutu ahal izango ditu.

Lokal horretan beste gune bat ere eratu genuen. Gune hori jaioberrien anai-arreba helduei zuzendua dago. Gehienetan, bisitan joandakoan, anai-arreba nagusiak galduak daude, ez dakite non egon, ama haur txikiari kasu egiten ari delako. Denak jaioberriari begira daude, besteen arreta berarengana zuzendua egoten baita. Jaiotza une horretan 3-4 urteko haur zaharrago horrek jarreretan aldaketak izatea gerta liteke. Hori oso logikoa izaten da,

nagusiago den horrek gauzak banatu behar izaten dituelako eta hori ez da bat ere erraza izaten.

Hori guztia ikasteko, beste haur batzuekin jolasteko aukera eman behar zaie eta haur txikia ikusteko aukera ere izan behar dute. Anai-arreba nagusiek jaioberriarekin daudenean nolabaiteko jolasen aritzen dira, interakzioan egoten dira. Beraz, lagun berri moduan ikusi behar dute elkar eta ez etsai moduan. Hiru angelu dituen harreremana sortzen da: haur nagusia, jaioberria eta amaren arteko hirukoa, hain zuzen ere. Haur nagusi horrek



Chaita Amel

ikusiko du amak txiki horrekin elkar jarduten duela, hots, amak besoetan hartzen duela, elkarrekin jolas egiten dutela...

Baldintza horietan, orain arteko ohiko ospitaletan haurra ez zen hain lasai egoten. Oraingo zentro berrietan ez da hiperaktibitate sortzen, ez da mugimendu gehiegirik sortzen, ez dago jarrera erasokorrik... Hemen deskribatzen ari garen zentroetan laguntzaile bat dago eta horrek kontakua errazten du. Laguntzaile hori ez da emagina, psikologoa da. Psikologoa gurasoekin hitz egingo du haien arteko harremanak errazteko helburuarekin.

Haurrak burua mugitzen du ama begiratzeko amak hitz egiten dionean. Haurrak begiak nola mugitzen dituen ere ikusi ahal izango du.

Gela hauek familia osatzen duten pertsonen arteko elkar trukeak edo harremanak errazten dituzte. Familiak nahi izanez gero, berriz joateko aukera izaten dute. Hori askotan egiten dute, gela horretan bizi izan dutena oroitzapen goxoa izaten baita familiarentzat. Gure ustez, familia osoarentzat espazioa antolatzeko modu berri hau oso egokia izaten da, batez ere ama depresioak jota, behe aldi batean dagoenean, hots, "baby blues" izeneko fase horretan dagoenean, haurra jaio osteko 2-3 egunetan izaten den depresio horretan. Baina ez horientzat bakarrik, baita beste estutasunen bat

duten emakumeentzat ere. Emakume asko, etxera joan behar direla pentsatzen dutenean, larritu egiten dira, gauza gehiegi egiteko dauzkatela uste dutelako, adibidez. Horientzat ere oso egokia da eraturako espazio berri hau.

Guretzat oso interesgarria da amak eta haur jaio berri horrek familia beste gela batean ikusi ahal izatea, elkar trukerako aukera bat egoteko oso eroso dela uste dugu. Lehen esan bezala, horrek guztiak aukera ematen du emozioak eta sentimenduak egokitzeke.

Haur eskolen antolakuntza

Orain haur nagusiagoengan zentratuko gara. Haurtzaindegira joateko bide hori nola egin behar den, zer nolako estrategiak erabil ditzakegu aztertuko dugu. Oso garrantzitsua da eskolara joaten den lehenbiziko egun horretan eroso sentitzea. Haurra seietan edo sei eta erdietan esnatuko da eta bi ordu geroxeago haur horrek arreta izateko duen gaitasunak behera egingo duela ikusiko dugu. Hurrentzat garrantzitsua da berriz erritmo hori berreskuratzeke denbora izatea, hau da, erritmo normalera itzultzeke aukera izatea. Beraz, haurra behar bezala esnatuta edo behar bezala bizi egon behar da hezitzaileak esaten diona ulertzeko.

Guretzat garrantzitsua da guk tarteko espazioak deitzen ditugun horiek sortzea, hau da, kanpoko munduaren eta eskola barneko munduaren artean dauden gune batzuk sortzea. Gurasoen gunea da alde batetik, baina hezitzaileen gunea ere bada, tarteko zerbait da. Gune horretan, interakziaroko erreferentzia batzuk barnertuko ditu; gainontzeko hurrekin jolas egiten hasteko gunea izango

da, beraz. Eskolan sartu aurretik erreferentziak zeintzuk diren ikusteko aukera izango du.

Haur guztiak eskolan sartzen joango dira, baina bakoitzak erritmo eta ekimen bat izango du. Gutxi-ka-gutxi gero eta haur gehiago datoz, 10 haur baino gehiago batera egotea gerta liteke. Normalean ez da erasorik edo borrokarik agertzen. Amerikar aldizkarietan hau argitaratzea asko kostatu zitzaigun, amerikarrek ez zutelako sinisten gune hauetan ez dagoela erasorik. Erasokorra izate hori beste bide batetik bideratzen da, hori leundu egiten da, eta haur bakoitzak besteen erritmoak errespetatzen dituzte. Ama, aita eta eskolako langileak horixe daude haurrei laguntzeko prest.

Segurtasun afektiboa islatzen da jolasteko eta esploratzeko orduan erakusten duten beldur faltan. Haur eskolan tiobiboak jar daitezke; bolaz betetako igerilekuak jar daitezke, han ibiltzen baitira jauzika eta minik hartu barik; arrapaladetan eskalatzen eta arrastaka ibiltzen dira; tunelek alde batetik bestera azpitik pasatzeko aukera emango diete; hormabarrak azpian moketa batekin eskala dezaten; akuarioak ere jar daitezke, arrainen mugimenduak umeak lasaitu egiten baititu. Horrek guztiak segurtasun neurrien menpe egon behar du.

Eskolaren sarreran zabu batzuk jar daitezke, umeak zabuan dabiltzala edo edozein tokitan eserita baldin badaude zangoak zintzilikatu dauzkatela, horrek asko lasaitzen ditu. Beraz, umeak seguru daudela azaltzen diguten adierazleak daude, segurtasunera itzuli direla adierazten digutenak, alegia.

Haur eskolako planoa hau izan daiteke: sarrera gela edo hall-a, ingu-

rune akuatikoa, gurasoentzako tokia, umeei jaten emateko tokia... Jantoki horretan guraso eta umeek elkarrekin gosaltzeko aukera izango dute. Beste hainbat toki egon daitezke, baina pixkanaka-pixkanaka aztertzen joango gara.

Harrera gela

Harrera gela, lehen aipatu dugunez, bitarteko toki moduko bat da, kanpoko munduaren eta eskola munduaren arteko mundu bat. Hori oso garrantzitsua da Eskolaurrean ere. Ama Eskola Frantzia 2-6 urte bitarteko umeentzat izaten da. Adin horretako umeek segurtasuna behar dute, beraz, ez dute zertan pentsatu behar amak edo aitak han utzi dituztenik. Horretarako, erreferentzia batzuk behar dituzte beldurrrak atzera uzteko eta komunikazioa menpean hartzeko.

Gurasoek nahi baldin badute haien seme-alabekin jolastera sar daitezke harrera gelan, baina beste umeekin ere jolastu behar dute. Harrera gela beraz elkarreraginak edo interakzioak sortzen diren gunea da. Elkar eragin horiek aita, ama eta umearen artean, umeen artean, ume baten eta beste guraso batzuen artean, gurasoen artean eta, jakina, guraso eta hezitzaileen artean ere izan daitezke. Elkar eragina oso handia da kide guztien artean, eta umea zentro horren erdigunean dago. Beraz, oreka garatuko du, gaitasunak garatuko ditu, emozioak garatuko ditu, hau da, ume modura garatu egingo da gero ikasle modura garatu ahal izateko.

Harrera gela horretan haurrak inguruan gurasoak ditu, nagusiagoak diren anai-arrebak ditu, baina etxe-ko gain hezitzaileak ere hor daude. Nagusiagoak diren anai-arrebak

gero harrera gunearen alboan dauden geletara ikastera joango dira.

Badira lotsatiak diren umeak; beste ume batzuk beldur izaten dira beste batzuk ez ote diren gehiegi mugitzen eta ez ote dituzte bultzatuko eta lurrera botako; beste ume batzuk beharbada gaitxo egon dira eta eskolara joaten direnean ez daude guztiz ostuak; beste batzuk denbora luze xamar egoten dira eskolara joan gabe... Egoera hain ezberdin horien aurrean, harrera gelak aukera eskainiko die ume horiei beste ume batzuekin batera lasai-lasai egoteko.

Harrera gelan hainbat estrategia erabiltzen ditugu. Horietako bat tarteko espazioak eratzean datza. Bitarteko leku horiek nahiko toki neutroak dira, ez dira ez kalea, ez etxea, ezta heziketa zentroa ere. Espazio horietan umeak lasai eta seguru daude, beraz, emozioak erakuts ditzakete: nahi badute garrasi egingo dute, edo korrikari ibiliko dira... hau da, oinarrizko gaitasunak landuz, pertsona modura garatzeko aukera izango dute.

Amek hainbat gauza egiteko denbora behar dutenez, Orduka-

ko Haurtzaindegietan haien seme-alabak tarte batez uzten dituzte.

Hautatu dugun haur eskola ereduak akuario bat dauka hormari itsatsita. Harrigarri da nola egoten diren haurrak haren inguruan. Haurrak arrainei begira egoten dira eta haien irudiak gelako hormetan islatzen dira. Islan fenomeno horrek umeak lasaitu egiten ditu.

Jolastokian igerileku txiki bat dago, umeek urarekin jolas dezaten. Akuarioaren beste aldean jolastokia dago, beraz jolas tokian jarduten diren haurrak akuarioaren beste aldetik ikus daitezke.

Harrera gelaren beste aldean dagoenari bizi-espazio deitzen diogu, umeak edozein momentutan sar daitezke hara jolasteko, lasai egoteko edo lo kuluxka bat hartzeko.

Harrera gelan dauden umeak etorri berri dira. Amak alde egiten duenean, umeak harrerako egitura zirkular horretan geldituko dira denen artean aldizkariak ikuskatzeko, bakoitzak bere erritmora. Ondoren, aldizkari horiek utziko dituzte eta akuariora begi-



Chris Muehl

ra jarriko dira. Oraindik ez daude bizi-espazio deitzen dugun horretan, baina gutxi falta zaie barrura sartzeko. Gure ustez, harrera tokian umeak lasai eta seguru egon behar dira eta akuarioaren beste aldean dauden umeak ikusteko aukera izango dute, igerilekuan dauden umeak, batez ere. Ume horiek oso ondo pasatzen ari direnez, oso garrantzitsua da guretzat hori ikus dezaten.

Imajina dezagun aurrera egin dutela haurrek. Orain beste egituretarra pasatuko dira: motrizitate eta elkar eraginaren esferara, adibidez. Kontutan hartu behar du-

Oso garrantzitsua da lo edo atsedean hartzeko aukera izatea. Bakarrik edo beste lagun bat alboan daukatela egin dezakete lo. Habi txikietan, lasai egoteko posibilitatea izango dute.

gu oinarritzko gaitasunak agertzen direla baldin eta espazioa umeen tamainarako ondo antolatuta baldin badago, hau da, espazioa antropometrikoa baldin bada.

Afiliazio jokabideak sustatzeko guneak

Ume batzuen interakzioa ikusiko dugu motrizitate eta elkar eragin espazio batean daudela. Urte batzuetan zehar 6 bat ume hartu ditugu haien jarraipena egiteko holako egituretan. Mugitzeko autonomia lortzen ari direnean zein gaitasun agertzen diren jakin nahi genuen, hau da, 6. hilabetea betetzen dutenetik

2 urte betetzen dituzten arte. Baina hemen aztertutako haurrak oso gazteak dira, 6 eta 12 hilabete artekoak, hain zuzen ere, eta elkar ondo ezagutzen dute denek.

Hurrengo azalpena 30 ordu irauten duen grabazio saio batean oinarritzen da. Saio horretan 5 kamara genituen umeak grabatzen, beraz, ez dago ia kanpoko angelurik eta jokabideen arteko loturak ikus ditzakegu. Ez genuen protokolo berezirik erabili: umeak beraien kaxa dabilta, hau da, nahi duten moduan.

Hortxe dabilta umeak dena ezagutu nahian: pilotekin jolastan; hormek dituzten zulotxoetan tartetik begira... Hormetako zulotxo batzuk zapi batez estalita egongo dira, beraz, haurrak beste munduari begiratzeko momentua erabakiko du. Umeak berak egin behar du besteari begiratzeko ahalegina. Munduaren ezagupen horretan sistemak nola agertzen diren ikusi ahal izango dugu.

Hasteko afiliazio jokabide batzuk identifikatuko ditugu:

- **Eskaera** da agertzen den lehen afiliazio jokabidea. 6. eta 7. hilabeteen artean agertzen da normalean. Lehen ere esan dizuedan bezala, beti begiradaren bila ibiltzen dira, begiradaren bidez eskaerak egiten baitituzte. Hilabeteek aurrera egin ahala, eskaerak egiteko sistemak aldatu egiten dira eta konplexuagoak bilakatzen dira, adibidez, beste ume bat erakarri, beste ume bati deitu ahotsen edo keinuen bidez... Eskaerak egiten dituzten umeek arrakasta dute, haien atzetik eta segika ibiltzen direlako gainontzeko umeak. Lehenago ere hatza erabiltzen hasten dira zerbait adierazteko. Hori 4.

hilabeteen agertzen da, baina batzuetan are lehenago ere azal daiteke. Zerbait erakustez gain kontaktu modukoren bat ere sortzen da. Adin horretan elkar eraginerako izugarritzko joera daukate eta horregatik besteengana jotzen dute eta besteen aurrez aurre jartzen dira. Hori 10. hilabeteen ematen den jokabidea da.

- Agertzen ohi den beste afiliazio jokabidea bat **eskaintza** da. Eskaintzak eskaerak baino beranduago agertzen dira. Umeak eskaintzak egiten dituenen, bere egozentrismoak irretan ari dela erakusten digu, besteren existentziaren jabe dela adierazten digu.
- Umeak berak egin behar du **besteari begiratzeko** ahalegina.
- Bien artean lotura bat egotean **lanlaketza** sortzen da, hau da, elkar hartzen dute zerbait egiteko. Biek batera lan egingo dute, hortaz, ahaleginak bateratzeko gaitasuna daukate.
- **Imitazioa** ere agertzen da. Bere aldamenekoak zer egiten duen ikusita, ekintza hori nola egin behar duen ikasi du. Baina imitazioa prozesu oso konplexua da. Haur batek beste bati irakatsi dion zerbaiten erakusgarria da, hain zuzen ere. Imitazioaren bidez ekintza bat barneratzeko edo eskuratzeko eredu bat daukagu. Jokabide afiliatibo honi esker gorputz guztia lanean jartzea lortzen dute.

Gure ustez oso ona da umeei horrelako jokabideak sustatzeko gunea eraikitzea. Afiliazio jokabide horiek nahiko konplexuak dira, haien atzetik prozesu psikologiko ugari egoten baitira. Hori argiago ikusteko, 11 eta 13 hilabeteen haurren arteko lotura deskribatuko dugu. Bata eskolara joaten ez baldin bada, bestea triste egon-

go da edo bestearen faltaz oharzen da. Laguna itzultzen denean besarkadaka hartuko dute elkar.

Gune hau egokia da jarduera sinbolikoak ikusteko. Bizikletaren antza daukaten kuxinekin jolasean dabilta, bizikletan ibiliko balira bezala. Jardun hauetan batzuk aktoreak dira, ekintza gauzatzen dutenak; eta besteak ikusleak dira, begira egoten direnak. Jarduera sinbolikoetan bakoitzak elkar trukatzearen bidez esanahia identifika dezakete. Eginkizunaren funtzioa aldatzen joaten dira. Hasiara batean bakoitzak bere rola izango du, baina gero rolen inbertsioa inongo lehiarik gabe emango da. Espazioa elkar banatzen duten bezala, rola ere elkar banatu egingo dituzte.

Azken batean, egitura egokia baldin badaukagu, horren bidez hainbat gaitasun daudela ikusi ahal izango dugu. Gaitasun horiek ezkutuan edo martxan jarri gabe egoten dira, baina gune egoki batek lagundu egiten du hori ateratzen.

Lehen aipatutako zulatutako hormek, adibidez, laguntzen dute mugimendurekin lotuta dauden gaitasunak edo trebetasunak ateratzen. Zuloak dituen horma horretan interakzio berezi batzuk sortzen dira bata bestearen gorputza ukitu gabe. Hori oso garrantzitsua da, hainbat ume kontaktu fisikoaren beldur baitira, beraz, egitura honek asko laguntzen die.

Haurtzaindegirako proiektu egoki bat daukagunean gune hauek ondo pentsatu behar dira alde aurretik. Hau da, mugimendua lantzeko trebetasunak errazteko aukera eman behar zaie umeei. Beste helburu bat izan daiteke espazioaren inguruko kontzeptuak bar-

neratzea: aurrealdea, atzealdea, tartekoa... Lehenengo interakzio bat izan dezakete aurrekoarekin, gero atzekoarekin, ondoren alboan daukatenarekin... Hori 10 hilabete dituztenean ikus daiteke.

Bolaz betetako igerileku horren inguruan ispiluak egongo dira. Horietan bere burua ikusteko aukera izango du, baina, nahi izanez gero, zaintzailea edo ama ikusteko posibilitatea ere izango du. Ispiluetan jolastean, haien gorputza ikusten eta ezagutzen dute. Nire ustez, haurrak uste den baino lehenago daukate euren irudia ispiluan identifikatzeko gaitasuna, baina hori frogatu gabe dago oraindik.

Sortutako supraegituretan 3. dimentsioa zer den jakitea lortuko dute. Umeak esploratzeko edo aurkitzeko gaitasuna dutenean, 12 hilekin gutxi gorabehera, batek bestera ibiliko dira erreferentziak bilatu nahian. Zaintzailea gertu izan behar dute lasai egoteko. Zuloetatik begiratzen du eta erliebeak ere aztertu egingo ditu. Lehen aipatu dugun plataforma edo supraegitura horretan beste deskubrimendu batzuk egiteko aukera izango dute, azpian zer

dagoen deskubrituko dute. Era horretan, behetik datorren informazio horrekiko erreakzio bat izango dute. Sortzen den komunikazio hori behetik gorakoa edo goitik beherakoa izango da.

Beste aldetik, ingurune horretan, mugitzeko gaitasuna deskubritzen doazen heinean oreka mantentzeko gaitasuna lantzen joaten dira ere. Modu honetan motrizitate eta koordinazioaren garrantzia egokia izango ditu.

Lekuz aldatzen denean, bakoitzak bere erritmoa egokitu eta leku berri horretan dauden gainontzeko umeen erritmoan jarriko da.

Atsedean hartzeko guneak

Oso garrantzitsua da lo edo atsedean hartzeko aukera izatea. Bakarrik edo beste lagun bat alboan daukatela egin dezakete lo. Lehen aipatu ditugun habi txiki horietan, lasai egoteko posibilitatea izango dute. Habiak era askotakoak dira. Haur bakoitzak une batean lasai egotea edo beste laguntxo batekin lasai egotea erabaki dezake. Bakoitzak bere erritmoa dauka, bat beste bat baino lehenago esna daiteke. Hortik



Chia B. NME/L

inork molestatu gabe irteteko aukera daukate, beraz, horren bidez, bakoitzaren loa errespetatzeko aukera dago.

Ipuinen gela

Beste espazio bat ere ager daiteke, are sinbolikoagoa bera, hizkuntza bainua jasotzeko delako nolabait. Bertan haurrak elkartu eta ipuin txikiren bat eskuratzeko aukera izango dute. Liburuetan hizkuntza agertuko da, zerbait idatzita. Beraz "irakurtzen" hasteko aukera izango dute, marrazkiak ikusiko dituztelako eta hizkiak ezagutzen hasiko direlako.

Oso garrantzitsua da lo edo atsedean hartzeko aukera izatea. Bakarrik edo beste lagun bat alboan daukatela egin dezakete lo. Habi txikietan, lasai egoteko posibilitatea izango dute.

Toki horretan hezitzaileak hartuko du erabateko eginkizuna. Haurren aldamenean jarri beharko dira, nahi baldin badute irakurriko diete testua eta hatzarekin erakutsiko diete nondik nora doan ipuina. Haurrak ipuin hori eta hizkien mugimendua jarraituko duela ikusiko dugu; baina ez hori bakarrik, hezitzailearen begiei begiratuko die eta haurrak berak ere hatza leku batek bestera eramango du. Zaintzailearen begiratu haurren begietara zuzenduko da, begien begiradetan tentsio horri esker elkar truke edo interakzio bat sortuko da hezitzaile eta haurren artean.

Bainu linguistiko hauek, nolabait esatearren, laguntza handia ematen diete haurrei, irakurtzea zer den ikus dezaten, irakurtzeko joera edo ohitura barnera dezaten. Hezitzaileak marrazkien berri emango die, testua irakurriko die, horrela haurrek ikusiko dute hezitzailea zerbait esplikatzeko ari dela. Hori ez da irakurtzen ikastea, beste kontu bat da. Azkenean batean, haurrak ipuinetan irudiek mezuak dituztela ikusiko du. Jarduera hau hezitzailearekin eta beste haurrekin batera gauzatuko du.

Laburpena

Horrela ikusten dugu guk eskolaren antolaketa:

- **Sarrera** edo **hala-egon** behar da.
- **Uretan jolasean ibiltzeko toki**a ere badago. Hor gurasoekin sartzen dira, gurasoak erantzten dituzte umeak eta, nahi baldin badute, amak ere bainujantzia jarri eta uretan sartzea besterik ez du.
- **Gurasoentzako toki**a. Ez aita edo amarentzat bakarrik, amonarentzat, aitonarentzat... hau da, umea zentrorra dakarren edonorentzat. Hemen bazten dira eta nahi baldin badute aldizkariren bat edo egunkaria irakur dezakete, umeekin alditxo bat egon daitezke txikientzako ipuinen bat irakurtzen. Halako batean, hezitzaile batek nola egin erakutsiko die. Hezitzailea umearen alboan jarri eta biek batera ipuinen bat irakurriko dute, gero gurasoei eginkizun horrekin utziko zaie.
- **Jantokia**, umeari jaten eta edaten ematen zaion toki. Umeak iristen direnean gosaltzen ematen zaie, batez ere, auzo txiroetan umeak gosaltu gabe iristen ohi baitira. Beraz guk, gurasoek alde egin eta gero, gosaltzen ematen diegu, ez dugulako susmo txarrik ernarazi nahi guraso horiengan. Hau da, gurasoak nolakoak diren ikusi behar da, egoerak batetik bestera aldatzen baitira.

tzen ematen diegu, ez dugulako susmo txarrik ernarazi nahi guraso horiengan. Hau da, gurasoak nolakoak diren ikusi behar da, egoerak batetik bestera aldatzen baitira.

- **Labeak**. Material guztia daukagun toki da. Labe horietan umeak jolasean aritzen dira, buztinarekin adibidez. Hor bero, epel... egotea zer den ikasten dute. Ez dira erretzen, gauzak hainbesteraino ez ditugulako berotzen. Beraien ontziak edo panpinak buztinez sor ditzakete. Esku lanetarako toki da. Hor egiten dituzten buztinezko gauzekin erakusketak antolatzen ditugu.
- **Garbitzeko leku**a. Garbitzeko leku horietan, umeak aldatzeko mahaia egoten dira. Pediatrak ere horra joaten dira baten bat bisitatu behar baldin badu.
- **Ezagutzarako toki**a. Leku honetan, umeek gauza bat eta beste zertarako den ikasten dute. Objektu bat beste baten barruan sartu eta beste objektu berri bat sortzeko aukera daukate.
- **Hautemate esfera**. Hor hainbat sistema ditugu eta sistema horien bidez, ume bakoitzak bere erritmoan eta mugimenduaren bitartez: argiak pizteko aukera izango dute; argiak konbinatzeko eta nahasteko aukera izango dute; hotsak sortzeko aukera izango dute; hotsak edo zaratak nahasteko aukera izango dute... Azken finean hotsak, zarata edota musikarekin eta argiarekin jolasteko aukera izango dute.
- **Hizkuntza bainuen esfera**.
- **Irudimenaren esfera**. Hor atmosfera berezi bat sortu dugu eta atmosfera berezi horrek irudimena askatzeko

balio du. Altzari handi bat jarri dugu hor, altzari horren inguruan hainbat koltxoi eta erdian beste leku bat ere badago. Erditik sortzen den argi izpi bat ere badago, horretarako proiektore bat jarri dugu. Argi horrek ontzi itxi bat zeharkatzen du, ontzi honen barruan dentsitate eta kolore ezberdinetako hainbat likido daude. Beraz, argiak ontzi hori zeharkatzen duenean, sabaian eta hormetan kolorezko globulu moduko batzuk proiektatuko ditu eta horiek batetik bestera mugitu egiten dira. Magiazko giro moduko bat sortu nahi dugu hor. Umeak etzanda baldin badaude, hezitzaileak nahi baldin badu ipuin bat kontatu edo asma dezake, hitz egiten aritu... Pixkanaka-pixkanaka, ume horiek esnatzen hasiko dira, hizketan hasiko dira, beraz, hitz eta hots horien bitartez irudimena askatzen hasiko dira.

- **Atsedean hartzeko gela.** Lo egiteko espazioa da. Batzuetan elkarren ondoan lo egin nahi izaten dute eta horretarako aukera ere badago.
- **Psikomotrizitatearen lantzeko tokia.**
- **Zuzendaritza bulegoa.**

Langileen esku hainbat aldizkari jarri ditugu haiek ere atseden hartzeko.

Uste dugu hau proposamen egokia dela horrelako zentroak antolatzeko. Dena den, horrelako zentro batean ume bat hartu behar baldin badugu, lehenik eta behin giro lasaia eskaini behar diegu, segurtasun afektiboa eskaini behar diegu, denbora eskaini behar diegu. Azken hori oso garrantzitsua da, ume bakoitzak

denbora jakin bat behar duelako arreta jartzeko, erreferentziaz jartzeko eta zentro berri horretan bere burua instalatu ahal izateko. Gurasoak etortzen direnean, ikusten dute haien umeek beste batzuekin jolasten dutela inongo eraso edota traumarik gabe. Beraz, gurasoek lasai alde egiten dute. Batez ere amak, kanpoan lan egiten badu, errudun sentitzeko arriskua izango du bere seme-alaba hori utzita. Ama eta seme edo alaba banatzeko leku bat jartzearen beharra azpimarratu nahi nuke. Langileek ere egon behar dute hor, baina ez oso agerian.

Okerren dabiltzan umeentzat horrelako dispositibo ansiolitikoak jarri beharko genituzke. Lehen azaldu dugu bihotzaren erritmoak errespetatzen badira, umeak lasaiago ibiliko direla, kontratuko dira non duden hobeto eta arreta gehiago jarriko dute. Aldiz, bihotza bizkorrago baldin badabil, estresatuta baldin badaude edota kirolen bat egin baldin badute, desorientatzeko joera dago eta eskaintzen zaien informazioa ez dute hain erraz barneratuko. Horregatik umeak lasaitu egin behar ditugu. Umeak lasaitzeko hainbat dispositibo daude, estresaren aurkako hainbat dispositibo daude eta nahiko merkeak dira gainera. Behin umea lasaituta, gurasoek ere segurtasuna baldin badute eta beldurrik ez baldin badute, umea zentrotik lasai-lasai, blokeorik gabe eta inhibiziorik gabe ibiliko da. Ez dutenez beldurrik izango oinarritzko gaitasunak agertuko dira.

Bizitzarako gune edo espazio hauek askotarikoak izan behar dira, ezberdinak izan behar dira. Gune batetik bestera igarotzeko aukera izan behar dute. Norma-

lean ez dira jarrera territorialak agertzen, denek dena elkar banatzen dute. Egiturak kanpo munduan daudenekin harremanetan egoteko aukera ematen diete.

Espazio horrela antolatzen baldin badugu, beste umeekiko elkar truke bisuala erraztuko dugu. Umeak beti beste umearengana jotzeko aukera izango du, lagunak egingo dituzte, jokaera autozentratu horiek gutxitan agertuko dira, ihes ere gutxitan egingo dute, ihesaldirako joera handirik ez dute izango, ia ez dute erasorako edo ezer apurtzeko gogorik adieraziko.

Jokaera afiliatiboak agertzen baldin badira, lankidetzaren ere agertuko da, beraz, sozializazioari ekingo zaio horrela. Elkarren imitazio asko agertuko da, keina eta gorputza antolatuko dituzte, gorputza kontrolatu egingo dute. Hortik aurrera prozesu kognitiboak, hau da, ezagutzeko prozesuak agertzen hasten dira. Orduan ezagutzarako joera izango dute.

Ume bakoitzak bere prozesu kognitiboak ditu eta batzuetan ezkutuan izaten ditu, beraz, argitara atera behar ditugu. Horretarako baldintza batzuk ageri behar dira. Prozesu hauetan irudimenak izugarritzko garrantzia daukala azpimarratu nahiko nuke.

Hemen aipatutako guztia datu zientifikoetan oinarrituta dago. Horrekin erakutsi nahi nuzuen gure haurrak beste era batera ere hezi ditzakegula.

Haurraren arret baliabideen anto

ANTENNE PETIT ENFANCE DU FRANCHE-COMTE

Christiane Roy-Menetrier

1970etik ANTENNE PETIT ENFANCE DE FRANCHE COMTE erakundearen arduraduna edo Lehendakaria



ANTENNE PETIT ENFANCE DE FRANCHE COMTÉ ERAKUNDEAREN SORRERA

Hasteko labur-labur azalduko dizuet nola ezagutu nuen Montagner irakaslea, Besançon-en. Besançon-en, Frantzia ekialdean dagoen herri horretan, Montagner jauna Psikobiologia laborategiko zuzendaria zen. Garai hartan, ni haurtzaindegi bateko zuzendaria nintzen eta Durin andrea nire pedagogia-aholkularia zen. Bi urteko umeak geneuzkan esku artean eta arazo asko sortzen zizkiguten lan egiteko baldintzak ez zirelako egokienak. Batez ere ume kopuruaz ari naiz. Bi urteko ume haiek hasiera-ha-

sieratik zeunden gurekin, ikastetxea sortu zenetik bertatik. Bazuten toki jakin bat beraientzat, baina hori baino gehiago behar zen, inguru egokia behar zuten.

Gurasoen eskura dago haien bi urteko seme-alabentzat haur eskola edo haurtzaindegi bat aukeratzea, bat edo bestea aukeratzea. Askotan haurtzaindegia aukeratzan dute dohain delako, eta haur eskola, ordea, ordaindu egin behar da. Nik lan asko egin nuen Durin andrearekin, baina ez haurtzaindegietan edo haur eskoletan bakarrik, orokorrago aritu baikin.

Montagner jauna loa iker-tzen ari zen garai hartan. Guk askotan galdetzen genion geure buruari ametsaren gainean edo loaren gainean, hobe esanda. Umeen loaren aldeko benetako borroka gogorra egin genuen 1970 eta 1980 artean. Hasi ginenean aginte publikoen kontra egin behar izan genuen borroka. Garai hartan sortu berria genuen bi urteko umeen gela bat eta udaletxearengana jo behar izan genuen koltxoi batzuk eskatzera umeek atsedena har zezaten. Horren ondorioz, udalbatza bat egin zen udaletxean. Gurasoak ez zeunden horrekin

arako olakuntza

: ERAKUNDEAREN IKERKETA-DATUEN ARABERA



L. Añelak: Pabil Enbuzak.

ados, haiek esaten zuten umeek atsedean hartzea eta lo egitea etxean egin zezaketela; pentsatzen zuten haurtzaindegiak umeak zaintzeko zeudela batik bat. Gurasoek haien seme-alabak ahalik eta ordu gehien eskolan izatea nahi zuten; ahalik eta hezkuntzarik onena lortzeko. Guk gurasoei azaldu genien eskolan lo egin beharra ere baze-

goela. Borroka gogorrak izan genituen horren inguruan. Gurasoekin luze eta zabal hitz egin behar izan genuen. Haien seme-alabak haur eskola edota haurtzaindegi batean matrikulatzean, hauxe espero zuten: haurrak behar bezala heztea, garapena erabat bultzatzea, ahalik eta gauza gehien ikastea. Gurasoek eskatzen zuten umeek ez zezate-

la lo egin arratsaldean, uste baitzuten ez zutela ezer ikasiko eta gero gauean ez zutela lo hartuko. Baina guk azaldu genien haurra lo dagoenenean ere gartzatzen ari dela. Loaren edota atsedeenaren bidez umea errekeratu egiten da; beraz, gero ezagupen gehiago barneratu eta landu ditzake. Kontua ez da haurra ahalik eta denbora gehien esna

egotea, ahalik eta gauza gehien asimilatzeke.

Sortutako eztabaida horren inguruan, erantzun bat bilatu behar genuela pentsatu genuen. Baina erantzuna ez zen itsua izan behar, zientifikoa baizik. Lagundutako erantzuna behar genuen eta hor Montagner jaunak eskainitako laguntza oso baliagarria izan zitzaigun. Loaren eta esnatuta egotearen arteko alternantzia horiek ikertzen ari zenez, gure zentroko irakasleekin harremanetan jarri eta azterlan bat egin genuen ahalik eta modurik

tera, arratsaldeko siestatxoa hartu arren, gauean behar bezala hartzen zuten lo. Beraz, arratsaldeko siesta eta gaueko loaren artean ez zegoen kontraesanik, gauzak behar bezala eginez gero, hau da, iraupen egokia izanez gero. Haurrak atsedean hartzeko tarte bat izan behar zuen eta horrela, gainera, gauean hobeto egingo zuen lo. Hori guretzat garaipen txikia izan zen hasieran, baina gero garaipen ederra iruditu zitzaigun.

Objektu transizionalen ideiak asko lagundu zigun eta horrekin batera baita usaimenaren inguruan egindako ikerketak ere. Demagun amaren usaia duen muki zapi bat hartzen dugula eta umeari ematen diogula: umea lasaitu egiten da. Horrek gure eguneroko lanean laguntza handia ekarri izan du. Baina ez horrek bakarrik, etologiak, adibidez, asko lagundu baitigu, jarrerak aztertzen dituelako. Psikologia zientifikoren arloan asko ikasi eta garatu da, beraz, horiek beti erreferentzia egokiak izan dira psikologikoki eta psikoanalitikoki.

Haurren jarrera etiologikoak aztertu gabe zeuden, baina guk egindako ikerketaren bidez hori guztia aztertzen hasi zen. Haurrak makurtu edo bildu egiten ziren eta hori ona zen gimnasia pixka bat egiteko. Jarrera horien aurrean, gu ere makurtu egiten ginen haurraren parean jartzeko, haien begietara begiratzeko... hori guztia oso ondo barneratuta geneukan. Makurtuta egotea oso egokia zen haurren garapenerako, baina ez zen oso eroso. Aurregia maila berean edukitzeak asko laguntzen zuen komunikazioa ahalbidertzeko. Badirudi jarreraren gai hau txikikeria dela,

baina oso baliagarria izan zen.

Alde batetik, haurtzaindegietako edo haur eskoletako irakasleak edo zainzaileak zeuden, beste alde batetik pediatrik, ikertzaileak... multzo handi horiek ez zuten bata bestearekin inongo erlaziorik, baina kolektibo bakoitzak bere iritzia adierazten zuen. Beraz oso nahastuak zeuden gauzak. Nire iritziz, komunikazio gutxi zegoen haurtzaindegien eta haur eskolen artean. Biek 2 urte arteko umeen ardura zeukaten, baina bakoitzak uste zuen onena beraiek egiten zutena zela. Montagner jaunak ideia izugarria izan zuen, ideia benetan ona: talde haiek guztiak batu egin zituen, hau da, elkarrekin jarri zituen unibertsitateko gela handi batean eta han gai honi buruzko gune interesgarriak azaldu ziren. Adin txiki horri buruz hitz egiten, eztabaidatzen hasi ginen, iritziak adierazi genituen... Hasieran guk esaten genuena ez genuen nahi inork zalantzan jar zezan, baina azkeneko ondorio horietara iristeko benetan pausu hori beharrezkoa zela uste dut. Bilera informala izan zen, beraz denok izan genuen hitz egiteko aukera. Nik uste dut ideien inguruan borroka egitea oso onuragarria izan zela.

ANTENNE PETIT ENFANCE DE FRANCHE COMTÉ

Bilera horren ondorio nagusia izan zen dena egituratu edo antolatuta behar zela. Orduan elkarrekin bat sortzea erabaki zuten, ideiak transmititzeko modu onena zelako. Beraz horrela sortu zen ANTENNE PETIT ENFANCE DE FRANCHE COMTÉ erakundea. Elkarrekin honetan era guztietako

**Umeen loaren aldeko
benetakako borroka
gogorra egin genuen
1970 eta 1980 artean.
Hasi ginenean aginte
publikoen kontra egin
behar izan genuen
borroka.**

txukunenean edo zientifikoenean. Etxean gurasoek bete beharreko fitxa batzuk sortu genituen. Haurrak noiz oheratzen eta altxatzen ziren bete behar zuten; aldi berean, irakasleek ere lo egiten zituzten ordu kopuruak apuntatzen zituzten. Modu horren bidez, haur bakoitzak zenbat lo egiten zuen jasotzen zuten.

Ikusi zuten arratsaldeko loa ez zela txarra. Azken batean, siestaren bidez indarrak berreskuratzen zituzten eta gero baldintza hobetan zeunden ezagutzak barneratzeko. Horrekin ba-

pertsona, elkarteak eta erakundeak biltzen dira. Estatutu batzuk sortu genituen. Elkarte honek boluntarioekin funtzionatzen du, beraz, elkartearen lana boluntarioak kudeatzea da. Enpresa txiki baten modura daukagu sortuta eta 16 pertsona ari dira hor lanean.

Erakundearen helburu garrantzitsuenak hauexek dira: haurraren garapenari buruz gurasoei informatzea, gurasoei gogoeta egiten laguntzea, gurasoak prestatzeko ekintzak aurrera ateratzea, aginte publikoei sensibilizatzeko aukera eskaintzea eta haur hezkuntzak zer nolako premiak dituen ikustea. Haur txikiei arreta eskaintzeko zentzorei buruzko gogoeta bultzatu nahi genuen eta horretan ari gara gaur ere. Gai honi buruzko gogoetak eta ikerketak bultzatzea geneukan helburu.

Elkarte guztietan gertatzen den moduan, Administrazio Kontseilu bat daukagu, eta horrek batzorde bat sortu du idazkari, buru eta diruzainarekin. Gero azpi-batzordeak ere eratu dira: horiek espazioa egituratzeko eraren ginean gogoeta egiteko xedea daukate. Lan hau aurrera eramateko batzuek gogoeta sakona egin zuten. Hurrei harrera nola egin behar zaien azaldu zen. Hezkuntza Nazionalean bertan ere landu zen gaia. Prestakuntzako komisio bat zegoen eta inmi-grantei harrera egiteko beste batzorde bat, horrela egin izan dugu lan.

ENTZUTE ZERBITZUA

Deskribatutako prozesu hau 1984 arte eman zen. Data horre-

tan, Entzute Zerbitzua eratu zen: psikologo baten laguntza behar genuen gurasoei kasu egiteko eta laguntzeko. Haien lana gurasoak edo profesionalak entzutea da, batez ere. Edozein pertsonak dei dezake eta erabat anonimoa edo konfidentziala da. Eguneroko gauzei buruz galde dezakete, zein arazo dituzten azal dezakete, azken finean, elkarrizketa bat izateko aukera izaten dute. Zerbitzu honek ez du hurrekin esku-hartzen, ez dituzte haurrak ikusten, hori psikologoak egiten du, bakarrik gurasoekin hitz egiten dute haien seme-alabei buruz. Zerbitzu honetako langile batek pentsatzen baldin badu guraso batek laguntza psikologikoa behar duela, beste erakunde batera eramango du. Guk egiten duguna gurasoekin jardutea da.

Haur Eskoletan sarrerako gune bat dago. Alboan Entzute Zerbitzua dago eta bertan dokumentazio pila egoten da, oso dokumentazio gune txukuna izaten da. Entzute Zerbitzua, haurtzaindegi alboan dago eta bertan bi psikologok egiten dute lan.

Haiek eskolan zer gertatzen den egunero aztertzen dutenez, gurasoekin hitz egiten dutenean ez dute buruan teoria hutsa, haurrak ezagutzen dituztelako. Beraz, gaia benetan ondo eta sakon ezagutzen dute.

Batzuetan, eskolako langileek haur batzuk ikusteko eskatzen diete Entzute Zerbitzuko profesional horiei. Demagun haur bat arazoren bat sortzen ari dela eta ez dakigula zer egin behar dugun. Orduan psikologoei laguntza eskatuz gero, hara joango dira eta han egongo dira ordu bete, bi ordu, umeari begira gero guri gertatzen dena azaltzeko. Eskaintzen duten laguntza mesedegarria da bai gurasoentzat eta bai zainzaileentzat. Azken batean, hurrekin ari garenean beste ikuspegi bat daukan norbaiten laguntza izatea komeni da.

Prestakuntza ere eskaintzen dute, gurasoek eskatutako prestakuntza, hain zuzen ere. Baina ez hori bakarrik, Lehen Hezkuntzako langileentzako prestakuntza ere ematen dute. Prestakun-



1. Guneak: F. J. I. P. I. I. I.

tza hori beste egitura batzuetako langileei ere ematen zaie. Zentrotetan hainbat gairen inguruan hitz egin behar da eta horretarako askotan ikastaro labur bat antolatzen da psikologoaren laguntzarekin.

1984an eratutako zerbitzu hau Besançon-etik kanpo ezagutarazteko hainbat jardunaldi antolatu izan ditugu. Normalean honetan ari direnak Frantziako leku batetik bestera aritzen dira hitzaldiak ematen. Oso harrera

Familiak Laguntzeko Kutxa izeneko erakundea; bestetik, Besançon-eko Udala; baita Gurasoen Elkartek ere... Hau da, azken batean gizarteko eragile guztiek hartzen zuten parte proiektu honetan.

Ez naiz orain arrazoiak azaltzen hasiko, baina proiektu hau ez zen mamitu, ezin izan genuen aurrera atera. Momentu horietan Montagner jauna Montpellier-era joan zen. Guretzat oso gogorra izan zen, berak guri asko laguntzen zigulako. Garrantzitsua zen gure hirian ikertzaile bat izatea, ikertzaile hori han egonda errazagoa zelako erakundeetara joatea, haiei gure iritziak adieraztea, hau da, ikerketa serio bat zegoea ikustaraztea. Berak alde egin zuenean, umezurtz gelditu ginen; baina guk, hala ere, Entzute Zerbitzu horrekin aurrera jarraitu genuen lokal txiki batean. Gaur egun zerbitzu horrek Besançon-en jarraitzen du.

kin aurrera jarraitu genuen eta eskola nola sortu proposatu genuen.

1992ko amaieran sortu zen haur eskola. Udalak ere diru laguntza ederra eman zigun eta Familia Elkarrekin ere lagundu zigiten. Guztion laguntzari esker oso proiektu polita ateratzea lortu genuen. Horregatik erakutsi nahi dizuegu nolako den toki hori. Lehen aipatu dudan bezala, 1992an zabaldu zituen atea. Hainbat profesional genituen: Pajot andrea, adibidez, haur eskola honen zuzendaria izan da hasiera-hasieratik. Erizain Puerikulture diploma eskatzen genuen garai hartan eta lanaldi osoa eskaintzen eta eskatzen genuen. Orain ere hasierako bi hezitzailek jarraitzen dute eta egun osoan egiten dute lan. Haur eskola bat zabaltzen denean haien ardura da eskola berriak baldintza egokiak betetzea.

25 haur ditugu, eskola nahiko txikia da; hala ere, badira 12 umeentzako beste eskola txikiagoak ere, mikroeskolak deitzen ditugunak. Gurea ere txikia izan arren, oso interesgarria da. Haur eskola hau ordukako haurtzaindegia da. Guraso batzuek lan egin behar zuten eta lan egiten zuten bitartean, haien seme-alabak han utzi nahi zituzten ordu batzuetarako. Beste batzuek, berriz, ez zuten lanik egin behar, baina, hala ere, ez zuten nahi umearekin egun osoa ematea. Ama batzuek, adibidez, haurra ekartzen ziguten ordu batzuetarako, hiri erdigunera joan nahi zutelako haizea hartzera besterik gabe; horrek esan nahi du, amak arnasa hartzeko beharra zeukala. Hori ez da hain ulerterraza guztiontzat. Baina, hala egiten zu-

Erakundearen helburu garrantzitsuenak hauexek dira: haurraren garapenari buruz gurasoek informatzea, gurasoek gogotela egiten laguntzea, gurasoak prestatzeko ekintzak aurrera ateratzea, etab.

ona izan duen zerbitzua izan da eta 1984tik 1990era asko funtzionatu du.

HAURTZARORAKO ETXEA

Montagner jaunarekin beste proiektu batean hasi ginen *Haurtzarorako etxea* deitzen zena. Haurtzaroko etxea bizitzeko gozamenean edo ongizatean oinarritzen zen zentro bat zen eta bertan hurrengo erakunde guztiak bildu beharko ziren: batetik,

HAUR ESKOLAREN SORRERA

Lehen aipatu dudan Familiak Laguntzeko Kutxa erakundeak oso laguntza garrantzitsua eskaini zigun, gure lanak finantzatzen zituelako. Bere eginkizuna haur bakoitzaren kostuaren zati bat ordaintzea zen. Beraz Kutxa horren laguntzari esker Montagnerrek erakutsitako bide horretan aurrera egiteko modua izan genuen. Guk azaldu genien haurtzaindegi bat sortu beharra zegoea eta Durin andrea, esperientzia sendoa zeukana, gurekin zegoea proiektuan. Azkenean laguntza emango zigutela esan ziguten. Hura harro egoteko moduko lorpena zen, baina ardura ere sorrarazten zigun. Ardurare-

ten, ordu pare batean gurekin uzten zituzten haurrak eta haur haiek beste haur batzuekin gelditzen ziren. Kontua ez da haurra pakete bat izango balitz moduan uztea, umea utzi eta bila joateko ordutegi konkretu bat ezartzen genuen ama eta gure artean. Ordukako haurtzaindegia sortu genuen, ama batzuk haien haurrak astelehenetan edo asteazkenetan bakarrik ekarri nahi zituztelako, hau da, erritmo jakin batekin. Ezarritako ordutegi hau errespetatuz, haurrek bazekiten noiz etorriko zen ama beraien bila eta hori oso garrantzitsua da haurrak bere burua seguru ikusteko.

HAUR ESKOLAREN OINARRIAK

Gure Heziketa Egitasmoa orain ere baliagarria da, oraindik ere erabiltzen baitugu, urte hauetan zehar ez dugu asko aldatu.

Orain Heziketa Egitasmoan agertzen diren oinarriak aipatuko dizkizuet.

- Gure sustraien luzapena dira haurrak, beraz, etorkizuneko gizartea prestatzeko, presta ditzagun.
- Bizitoki egokiak sor ditzagun haien haientzat.
- Maita eta anima ditzagun.
- Egon daitezela seguru.
- Egon daitezela pozik.
- Egon daitezela konfiantzaz, aske eta sormenari emanda.
- Errespetatu ditzagun haien erritmoak, haien autonomia.

Nik uste dut garai horretan esan zena oso polita dela orain ere, eta horregatik ez dugu aldatu nahi izan. Gaur egun ere, baliagarria da; gure helburua horixe da, hain zuzen ere. Ez dizuet zehatzago azalduko hori dena,

dosierak ere hortxe daude eta hor hainbat agiri daude, nahi baldin baduzue horra jotzeko.

Egia da, umeen erritmoa beti errespetatu izan dugula, hori oso garrantzitsua baita elkar eraginen hasierako pausoetan.

HAUR ESKOLAKO ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

Baina eskola honetan bada beste gauza harrigarri bat ere: eskola oso polita da, toki zabal batean dago, zabal-zabala. Gure herrian badira beste haurtzaindegi municipal batzuk eta, jakina, horiek ere politak dira, baina ez dute gurearekin antzik ere, gabeziak dituztelako. Nire ustez, espazioa gainontzeko haurtzaindegietan antolatu duten bezala banatzea ez da oso komenigarria; espazio mugatu horrek gure pentsamenduan ere baduelako eragina. Guk horregatik espazio zabalak jarri ditugu. Hori oso polita da, baina exijentzia maila handia dakar. Horrek esan nahi du, beraz, umeak elkarrekin daudela adin batekoak izan edo bestekoak izan: 3 urteko eta 6 hilabeteko umeak elkarrekin daude. Daki-

zuen 3 urteko ume bat eta 6 hilabete dituen ume bat elkarrekin jarriz gero, arazoak sor daitezke; ondorioz kontuz ibili behar gara eta arreata handia jarri behar dugu sortzen diren interakzioetan. Toki jakin honen antolakuntzak exijentzia oso handia dakarrela azpimarratu nahiko nuke. Gure toki hau oso interesgarria da, elkarrekin erabatekok direlako, mota askotakoak, eta elkarrekin, bata bestearengandik, ikasteko aukera handiak sortzen direlako.

Nik eskola honetan, haur hauen irakasle edo hezitzaile modura lan egiten dut. Beraz, aitortu beharra daukat, langileok ere, horrelako txikiekin aritzean, laguntza psikologikoa behar dugula. Hau da, gure lana oso zaila da eta lan hau egiteko sustagarri moduko batzuk ere eduki behar ditugu, gu geu ere egiten dugunarekin konforme egoteko.

Langileek, haur eskoletan lanean hasi aurretik, prestakuntza konkretu bat jaso behar dute. Prestakuntza hori zabala izan behar da eta hainbat esparru ukitu behar ditu, zenbat eta gehiago jakin hobeto egingo dutelako haien



1. Gure Heziketa Egitasmoa

lana. Irakasle askok pentsatzen dute haur eskoletako hezitzaileek DBHkoek baino gutxiago irabazi behar dutela. Hau da, haur txikiekin lan egiten dutenek gutxiago irabazi behar dutela uste dute. Baina hori ez da horrela zertan izan behar, haur txikiekin lan egiten dutenek gaitasun handiak izan behar dituzte, beraz, gure lanbidea edo estatusa guztiok onartu beharreko zerbait izan behar da. Horregatik langileen hasiera-hasierako prestakuntza oso ona izan behar da; baina, horrez gain, prestakuntza horrek etengabekoa izan behar du. Langileek etengabe aritu behar dugu

Espazioaren antolakuntza helduen eskuetan gelditzen da nolabait. Nolako itxura daukan espazioak, horrela izango da haurraren irudimena.

gure burua prestatzen, gizartea aurrera doan heinean jasotako informazioak aldatuz doazelako. Lehen aipatu dudan Entzumeneko Zerbitzua oso garrantzitsua da hezitzaileen ongi izate eta formazioan.

Gurasoentzat ere toki bat behar dugu eta toki hori ez da gurasoak lasai egoteko toki bat eta besterik ez. Gurasoak ere inplikatu egin behar dira, ez da erraza semea edo alaba eskolan uztea, hain txikiak direnean. Banatzeko momentu hori lasaia izan behar da, ez du inongo traumarik sortu behar. Horretarako gu-

rasoek haien seme-alaben eskolako hezkuntza prozesuan parte hartu behar dutela pentsatu behar dute. Eskolako Batzorde moduko bat sortu genuen, beste eskola batzuen parekoak. Hemen, gurasoek aukeratzen dute haien izenean zeinek hitz egingo duen, nork ordezkatzan dituen.

Gurasoek, hasiera batean, leku hori haien erara harrera sortzen dute. Gero, pixkanaka-pixkanaka, gurasoek eraikitako harrera gela hori moldatzen joango gara, guk nahi dugun erara. Horren bidez gurasoei erakusten diegu ezer ez dela betiko. Haur eskolaren antolaketa eta egitura guztiak aldatu egin daitezke, egiturak ez daudelako hilak, egiturak bizi-bizirik daude eta bilakera indartsuan daude.

Durin andrea emakume askea da. Haren arkitekto lanetan ez ditu inongo egitura finkoak onartzen. Bere eskutatik arkitekto ugari, hainbat artisau... pasa dira. Helduentzako eta umeentzako arkitektura ez da gauza bera; haur eskola bat sortzeko orduan, gauza ez da arkitekto bezala pozik gelditzea. Ume txiki baten zatitza proposena edo onena zer den pentsatu behar dugu.

Haur eskola baten proiektua irudikatzean irakasleak ere kontutan hartu behar ditugu. Hau da, eskola bat eraiki behar baldin badugu, langileek esan behar dute nola egin nahi duten lan. Langileak nola mugituko diren pentsatu behar da haur eskola bat diseinatzeko momentuan. Esate baterako, langileek atsedean hartzeko, ume eta langileen artean tarte txiki bat zabaltzeko beharra dagoela ikusi da. Baina guk ez dugu horrelako tokirik, espazioa-

ri dagozkion aspektuak aurrez pentsatu beharrekoak direlako. Langileak tente, etzanda, eserita, zutik... egoten direnez, asko mugitzen direnez, bizkarra nekatu egiten zaie.

Beraz, hezitzaileak ere gogoran izan behar ditugu haur eskola bat egiterako orduan. Haiei zer nahi edo behar duten galdetuz gero, garbi asko azalduko dituzte haien iritzia eta ideiak. Hori oso onuragarria da arkitektoentzat. Haiek egunero eskola horretan lan egin behar izango dute, beraz, haiek izango dira arkitektoei nola egiten duten lan eta gauzak non jarri behar dizkieten azaldu behar dieten pertsonak.

Urte askotan zehar, gizakiak uste izan du umeak mugatuta zeudela. Baina guk ezarritako mugek murrizten dituzte umeen ahalmenak. Izan ere, umeek pertsona nagusien ingurune kulturalaren zati bat besterik ez dute landu. Ezkutuan egon diren haurren hainbat gaitasunek dei bat baino ez dute behar lokartuta egon den ahalmen hori esnatzeko.

Kontutan hartu behar dugu, hezitzaileak eta arkitektoak erlazioatuak daudela haurraren irudimenaren garapenean. Haurra oso gaztea baldin bada, haur hori seguru egon behar da. Afektu dela, materiala dela... horrek guztiak seguritatea eman behar dio. Espazioak bere neurrikoa izan behar du. Etxean sentitzen duen erosotasuna eta seguritatea izan behar ditu. Baina esperimentatzeko aukera ere izan behar du eta inguruarekiko azterketa hori komunikatu ahal izango du, elkar bizitzarako, elkar harremanetarako aukera izango du.

Haur eskolaren egiturak bizitoki itxura dauka. Intimitatea hartzen dugu kontutan, hor haurraren lehenengo loturak sortzen direlako. Haur eskolaren espazioa zabal-zabala da, eta hor ibiltzen dira haurrak lasai-lasai, bere kaxara mugitzen. Egitura honen bidez harremanak errazten dira.

Askotan untxiak eta horrelako panpinak jartzen ditugu. Panpina hauek ahal den eta erreal eta neutroenak izan behar dira. Forma errazak izatea, kalitate oneko materialak, gardenak, opakoak... erabiltzea komeni da. Lurra, ura, haizea, sua... gauza horiek guztiak adierazi behar dira nolabait. Haur eskola hauetan, nahiz eta espazio batzuk itxiak egon eta beste batzuk irekiak egon, guztiak batasuna gorde behar du. Osotasun lagungarria izaten da umeentzat.

HAURREN GARAPENA

Leku hau, beraz, haurren beharretara dago egokituta eta beharrek hauek dira:

- Segurtasun beharra.
- Behar afektiboak.
- Zentzumenak lantzeko beharra.
- Mugitzeko beharra.
- Behar sozialak.
- Jolasean ibiltzeko beharra.
- Objektuak batetik bestera eramateko beharra.
- Objektuak apurtzeko beharra.
- Ideiak, sentimenduak, nahiak... adierazteko beharra.
- Komunikaziorako beharra, hitz eginez adibidez.
- Irudimena lantzeko beharra.
- Amets egiteko beharra.
- Baten batek ipuinen bat irakurtzeko beharra.

Espazioaren antolakuntza helduen eskuetan gelditzen da nolabait. Nolako itxura daukan espazioak, horrela izango da haurraren irudimena. Kontutan hartu behar dugu espazioa aldatu egin daitekeela haurra objektuetatik hurbil edo urruti dagoen heinean edo haurrak egiten duenaren arabera. Elementuak neutroak, egonkorak, mugikorak... izan daitezke.

Kontzeptu horiek guztiek zerikusi zuzena daukate haurren sistemen garapenarekin:

- Mugimendu-sistemarekin.
- Sentimen- eta mugimendu-sistemarekin.
- Pertzepzio-sistemarekin.

Objektu horiek konbinatu ere egin daitezke. Horrek aukera anitzeko ate bat zabalduko liguke, beraz beste mila gauza egin ahal izango genuke. Modu horretan, ume guztiei era orokorrean laguntzen diegu, baina beti ere ahaztu gabe ume bakoitza ezberdina dela.

Komunikatzeko modua erlabitzatu eta indartu ere egiten de-

nez, elkar trukerako erraztasunak ematen dira. Umeen erritmoen etenak sortzen dira, haurra, egonkortasuna hautsi egiten da, horregatik antolaketa bat behar da. Deskribatzen ari garen espazioak alternantzia izateko aukera ematen dio haurrari, eta batetik bestera joanda lagunak aurkituko ditu, baina mugak ere bai. Espazio horrek, nolabait esateko, era guztietako estrategiak martxan jartzeko aukera ematen dio. Kontuan izan behar da gune horietan jendea dagoela, beraz, harremanak izateko posibilitatea izango dutela.

Guretzat garrantzitsua da haurrak hor sustraiak egiteko eta harremanak eraikitzeko aukera izatea. Etxe baten eredua hartu dugu, gune guztiek nolabaiteko habitat bat sortzeko helburuarekin, gure ustez hori oso garrantzitsua baita. Askotan, ikusten dugu osatuak dauden hainbat egiturak ez daukatela zentzurik. Gure haur eskolako egitura beste eragile batzuk izaten ditugu kontutan, bai baitakigu haurraren burua eraikitzeko habitat egokia eraiki behar dugula.



1. Guretzat Pertzepzio

Kontua ez da leku batetik bestera joatea, eskalatzea edo korrika egitea, erosotasunaren bila ere joan behar dugu. Komenigarria izaten da eguneroko praktikan ikusten dugunaren gainean gogoeta egitea. Haurrei nahi duten guztia egiten utzi behar zaie, alternantzia bizitzeko aukera eman behar zaie. Hau da, mugimendu dinamikoak eta indartsuak lantzeko aukera izan behar dute eta, aldi berean, lasaitzeko aukera eskaini behar zaie, gozotasunean lasai egoteko aukera ere izan behar dute.

Azken batean, haurrak ikastetxera eloritzen direnean, oso pozik etortzen direlako, gustura mugitzen direlako, eta gu ere benetan oso pozik egoten garelako haiek ikusi.

Bi eremu horiek haur eskolatan agertu behar dira eta horrekin batera arriskua suposatzen duten guneak ere izan behar dituzte. Umeak eskailerak igotzen hasten direnean, helduok beldur gara, baina, azkenean, umeak eskailerak igo eta jaisten laguntzen dion estrategia bat aurkituko du, beraz, arriskuari aurre egitea lortuko du. Azken finean, umea konturatu egin behar da bere jarrera aldatuz lorpen berriak izan ditzakeela. Hezitzailea ez da bertara joan behar, ezta jarreraz aldatzeko esan behar. Umea bera da irtenbidea bilatu behar duena,

eta horretarako arriskuei aurre egiten utzi behar zaie, neurri batean, jakina. Arriskuei aurre egin baino lehenago segurtasuna lantzeko behar da. Azken batean, gure buruarengan segurtasuna ikusten dugunean, arriskuei aurre egiteko bidea ikusten dugu.

Elkarrekin jolastea ere garrantzitsua da, baina kontua ez da lagunekin egotea soilik, oreka puntu bat beharrezkoa izaten baita. Batzuetan bakarrik jolastea nahia agertzen da; beste batzuetan, aldiz, lagunekin jolastea gogoia. Guri gauza bera gertatzen zaigu, guk geuk ere bakarrik egoteko denbora behar dugu. Jolas publikoan, hau da, beste batzuekin jolasean ibiltzen denean, imitazioa azaltzen da. Hori garrantzia handiko jardura da, objektuak moldatu eta sortu ditzakeelako. Aukera eman behar zaio sententzio propioak bizitzeko. Gehienetan beti kanpora begira ari gara, ingurune fisikoari dagoen aspektuei, baina umearen barneko gaitasunei begira ere jarri behar ginateke. Objektuak eraldatzeko ahalmena duela ikusi behar dugu.

Bukatzeko beste kontu bat: umeak bere baitako imajinazioa askatzeko aukera izan behar du, amets egiteko aukera izan behar du. Baldintza horiek guztiak betetzen baditugu, orduan umea alternantzia horietan guztietan batetik bestera mugituko da. Nire ustez, alternantzia ideia hau oso ideia garrantzitsua da, beraz, beti izan behar dugu kontuan espazio bat sortzen ari garenean edo haurrentzako zentro bat sortzen ari garenean. Komenigarria da aldagai guztiak kontutan hartzea, pertsona guztiak kontutan hartzea: arkitektoarekin hitz egin

behar da, arkitektoak zaintzaileekin hitz egin behar du, gurasoekin, gurasoek lanean ari diren gremioekin dena behar bezala egiteko... Azken batean, elkarriketa zabala sortu behar da guztion artean.

HAUR ESKOLAREN FUNTZIONAMENDUA

Bukatzeko, hori guztia praktikan nola eramaten dugun azaldu nahi nizuke. Lehen aipatu dugun moduan, finantzari boluntario batzuk ditugu; beste aldetik, Udalak langileak kontratatzen ditu; eta azkenik, langileentzako zuzendari bat daukagu. Haur eskolaren zuzendari egun erdiz egiten du lan. Ni haur eskola honen arduraduna naiz eta, aldi berean, zentroaren gestioa eta administrazioa ere aurrera eramaten ditut.

Gure zentroaren politika hurrengo irizpidean oinarritzen da: denek lan egiteko aukera berdinak izan behar dituzte. Beraz, orain dela 5 urte beste lanpostu berri bat sortu genuen eta mutiko gazte bat hartu genuen. Gaur egun gurekin jarraitzen du lanean. Gure iritziz komenigarria da gizonak ere zentroan egotea. Umeek aita-ama erreferentzia gisa dituzte, beraz, gizonetako haur eskolan egotea beharrezkoa izango litzateke erreferentzia hori zentroan galdu ez dezaten. Gurekin lanean ari den mutila haurrekin oso ondo moldatzen da eta orain arte ez du inolako arazorik izan. Orduetegi konponketaren bat egin behar dugunean beti harengana jotzen dugu. Gainera haurrek benetan maite dute gazte hori.

Finantziaioari dagokionez, Laguntza Kutxa bat dago Frantzia, Familia Kutxa deitzen dena. Banku erakunde baten antzekoa da. Kutxa horrek guraso guztiei diru laguntzak eskaintzen dizkiete haurrak gure zentrorra ekar ditzaten. Udalak ere laguntza batzuk ematen dizkigu. Frantzia hori guztia araututa dago. Eta jakina, gurasoek ere kuota bat ordaindu behar dute, kooperatiba moduan antolatuta gaudelako. Ordaindu beharreko kuota hori irabazitako soldataren %12 izaten da; ondorioz, diru gehiago irabazten dutenek gehiago ordaintzen dute eta gutxiago irabazten dutenek gutxiago. Bakotzak bere soldataren arabera ordaintzen du.

Lehen aipatutako Entzute Zerbitzu horren finantziaioa azaltzea izango da hurrengo pausua. Zerbitzu horretan proiektu batzuk sortzen dira, eta proiektu horiek hainbat diru laguntza jasotzen dituzte. Egituratutako proiektuentzat jasotako diruaz aurrera ateratzea lortzen du. Beraz, subentzioei esker eskaintutako zerbitzua dugu hau. 20 urte darama Entzute Zerbitzuak lanean. Entzute Zerbitzu horretan gurasoen arteko elkar trakerako zerbitzu bat eratu genuen: gurasoek seme-alaben inguruan hitz egiteko beharra sentitzen bazuten, pertsona horiengana joaten ziren. Zerbitzu berri horrek eguneroko kontuei buruz hitz egiteko posibilitatea eskaintzen du; seme-alaben arazoei buruz hitz egiteko aukera ematen die gurasoei; gurasoek beste guraso batzuekin harremanetan egoteko aukera izaten dute... Auzo batzuetan gorabehera handiko arazoak daude. Testuinguru horietan gehienetan ez da erraza tal-

deak antolatzea, guraso batzuei arazoei buruz hitz egitea zaila egiten zaielako, guraso txarrak direla pentsatzen dutelako... Talde horiek, gurasoek haien buruengan konfiantza izan dezaten sortu ziren. Azken finean, haurrak heziko dituztenak gurasoak dira. Jakina, haur-eskolak eta haurtzaindegiak hor daude, baina gurasoak izango dira beti zaintzailerik onenak eta ideia hori transmititu behar diegu gurasoei.

Elkarte hau sortu zenetik garbi ikusten zen etorkizun luzea zeukala, baina borondate handia izatea eskatzen zuen, denbora asko behar zelako. Gu boluntarioak gara, borondatez egiten dugu lan.

Gure helburua lortu dugula esan dezakegu. Azken batean,

haurrak ikastetxera etortzen direnean, oso pozik etortzen direlako, gustura mugitzen direlako, eta gu ere benetan oso pozik egoten garelako haiek ikusita. Hala ere, arantza bat daukagu barnean, jendeak gure zentroa ez delako ezagutzen. Antza denez, gure haur eskola ezaguna da estatuan, baina oraindik jendeak arazoak ditu era honetako guneak sortzeko. Segurtasunari buruzko kontzeptuak garbi ez dituztenez, ez dira kapazak egitura berri honen helburuak ulertzeko. Ez dute sinesten ez dugula istripurik izaten.

Bukatzeko, gustatuko litzaidake azpimarratzea langileak oso pozik daudela gure haur eskolan lan egiten. Uste dut lasai asko esan dezakedala ez luketela beste toki batean lan egin nahi.



1. Gurekin Fritzi Peltzer

Eguneroko bizitz antolamendua ha HARRERA, GURASOEKIN HARREMANAK ETA D

Brigitte Pagot

Besançon-eko Antenne Petit Enfance Elkarte-ko lehen jakaria Haur Eskolaren zuzendaria.



PETIT ENFANCE TALDEAREN HELBURUAK

Petit Enfance deitzen den haur eskolari buruz hitz egingo dizuet. Haurtzaindegi hau Antenne Petit Enfance du Franche-Comte izeneko erakundeak eraiki zuen. Erabiltzen den hezkuntza ardatz nagusiari buruz arituko gara, hain zuzen ere. Zentro hau nahiko berezia da antolatzeke daukan moduagatik eta daukan proiektuagatik.

Hauek dira zentroak dauzkan helburuak:

- Haurrari lagundu behar diogu bere gaitasun osoak eza-gutzen eta garatzen, eta, horrekin batera, haurrak dituen oinarritzko premiak ase behar ditugu.

- Haurraren erritmoa errespetatu behar dugu.
- Umeak imajinazioa landu eta garatu behar du egiten dituen ekintzen bidez, gainontzekoak imitatuz eta helduek dituzten erantzun positiboak kontutan izanda.
- Horrekin batera, baldintza egokiak sortu behar dira estuasun eta beldurra alde batera uzteko. Hau da, taldean, gainontzeko hurrekin larritasuna alde batera utzi behar dute jarrera positiboak landu ahal izateko.
- Azken batean, ume bakoitzari estrategiak garatzeko aukera eman behar zaio modu autonomoan eta positiboan jardun ahal izateko.

Hori guztia ahalbideratu behar zaio haurrari.

Petit Enfance izeneko haur eskolaren proiektu edo helburuen inguruan arituko gara ondoren. Txikiak gureganatzen ditugunean, dena ebaluatu eta neurtu egin behar da, egoerak aurreikusi behar dira, baina horrek ez du esan nahi dena finkatuta egon behar denik. Proiektu guztiak etengabe egokitu behar ditugu haurraren, gurasoen, hezitzaileen... arabera. Baina beharrezkoa da Petit Enfance taldearen ekipo hori landua egotea; horrekin ohartuta egotea; eta eguneroko lanak aurrera nola eraman behar diren alde aurretik jakitea, hau da, beharrezkoa da antolakuntza bat izatea.

Haurren Haur eskolan

Denbora eta espazioaren antolamendua

Harreraren unea

Gure taldearentzat, Petit Enfance taldearentzat, pausorik garrantzitsuen harrera egitea da, harrera hori funtsa da, hori da lehenbiziko pausua, oinarria, nolabait esateko. Haurra talde batean ondo barneratzea nahi baldin badugu, harrera egokia egin behar diogu. Gurasoengandik nola bereiztuko den aurreikusi, landu eta familia ere horretarako prestatu behar dugu. Hau da, biak horretaz ohartu behar dira eta horrek denbora eskatzen du. Deontzat onargarria izan dadin antolatu behar da harrera hori. Azken batean, harrera egitea denon kontua da, ekintza dinamiko horretan haurrak, gurasoek, hezitzaileak parte hartzen dutelako. Trantsizio horrek denbora eskatzen du; hala ere, kontutan hartu behar dugu ez dela berdina izango ume guztientzat, haur bakoitzaren historiaren arabera izango delako.

Beraz, lan taldeko pertsona bat, haur baten eskuetan jarriko da, hau da, haur baten ardura hartuko du eta, ondorioz, haur



L. Galarza / F. J. Etxebarria

horrentzat harrera prozesu horretan erreferente bihurtuko da. Komunikazioa sortuko da haurra jasotzen duen pertsonaren, umearen arduradunaren eta umearen artean; hau da, guztion arteko komunikazioa sortuko da. Komunikazio horretan, hezitzaileak umeari buruzko hainbat informazio jasoko du: haurrari zer gustatzen zaion, zer ez zaion gustatzen... Haurrak ere informazio hori guztia entzungo du, beraz nolabaiteko jarraipena ikusiko du etxetik eskolara bitartean. Horri esker, haurraren gara-

pen psikikoa egokiagoa izango da eta zentroan barneratzea errazagoa izango da. Momentu horretatik aurrera gune horretan une bat izango du, egokitu egingo da, beste erreferentzia puntu bat daukala ikusiko du eta, beraz, joko sinbolikoak ere leku hartzen joango dira bereizketa hori errazago izateko. Hori horrela egiten bada, zentroko taldeak haur bakoitzak behar duena entzun behar du.

Montagner jaunak esaten duen moduan, baldintza egokiak

daude haurraren bereizte eta integrazio hori bultzatzeko:

- Lehendabiziko baldintza hau xe da: gurasoei leku fisiko bat eskaintzea gure eskola edo gure gune horretan. Gurasoak ezin ditugu utzi umeak dauden tokitik bereiztuta, beraz, gurasoek ere leku bat izan behar dute eta zentroko aktore izan behar dira. Gurasoek gure eskoletan erabakiak hartzen diren guneetan parte hartzen dute, hots, eskolaren antolaketan, kontseiluan parte hartzen dute hainbat proiektu aurrera eraman ahal izateko. Antolaketari dagokionez, gurasoek elkar eraginerako espazio bat daukate. Gune hori kanpoaldearen eta barrualdearen artean dago, erdi bidean dago. Elkar bizitzarako gune eroso da eta hor behar beste denbora egon daitezke, beraz, gurasoen estres tasa jaitsi egingo da. Hor egonda umeek duten espaziotik gertu egongo dira. Gainera gurasoek elkarrekin hitz egiteko aukera izango dute eta, beraz, erabateko konfiantza izango dute haurrengandik bereizteko.
- Baina hori ez da baldintza bakarra, beste oinarritzko baldintza bat ere badago: bereizketako errito hori errespetatu behar da, haur bakoitza ezberdina delako. Horregatik gertu egon behar dugu haur bakoitzari harrera egiteko. Harrera egiteko keinu horietan iraunkortasunari ere eutsi behar zaio. Haur bakoitzaren bizitza erritmoa errespetatu behar da.

Haurrak pozik ikusteak izugarrizko gozamina dakar.

Espazioak edo denboraren erabilera

Gure eskolan guneak haur bakoitzaren izaerari erantzuten dio, haur bakoitzak espazioa era batera ulertzen baitu. Gure helburua hainbat exijentziari erantzutea da:

- Batetik erritmo pertzeptibo eta zentzumen-mugimenduzko batzuk daude eta horiek garatu egin behar dira. Horretarako umei mugitzeko aukera, arrastaka ibiltzeko aukera, eskailerak gora igozteko aukera... emango zaie. Esplorazioak egiteko aukera zabal-zabala izango dute. Hori guztia 3 dimentsiotan egingo dute: batetik eskailerak igozteko aukera izango dute, gero plataformak, txirristak, pilotak edo ura dituzten igerilekuak, eskalatzeko hormak... izango dituzte. Beraz, aukera zabala izango dute.
- Aldi berean komunikatzeko gaitasuna landu behar da eta intimitatea errespetatzen duten guneak eratu behar dira, adibidez, lo lekuek kabi txiki batzuen antza daukate, kuxinak dituzten guneak... Oso leku egokiak dira eta hor erasokortasuna bazter batera uzteko aukera izango dute. Horrekin, gainera, arlo bakoitza modu sinboliko berezian erabiliko dute. Eratutako espazio horietan sinbologia berezia sortuko da haurren inguruan.

Denboraren antolaketari dagokionez, kontutan hartu behar dugun lehenengo gauza zera da: haur bakoitzak erritmo bat daukala eta hori errespetatu egin behar dugula. Badakigu lo eta es-

natzeko erritmoak, aktibitatea egiteko eta atsedean hartzeko erritmoak, edo jate erritmoa... ezberdinak izan daitezkeela. Horregatik, ume bakoitzaren erritmo horiek errespetatu behar direnez, langileek horietara egokitu beharra daukate. Eman dezagun haur batek lo egin nahi dela: horretarako laguntzaile bat izan beharko luke. Eman dezagun beste batek gosea daukala: horri jaten eman beharko litzaioke. Beraz, ez dago erritmo orokor bat haur guztientzat. Baina zaintzeaz gainera, erritmo biologikoak ere errespetatu behar dira, horrek ongizate fisikoa eta psikikoa sortuko duelako haurrengan.

Baina ez hori bakarrik, bizitzan zehar ere badaudelako beste zenbait ekintza errepikatzen direnak, esate baterako, ipuin bat irakurtzea, lasai egoteko une bat izatea ohera joan aurretik, maia atontzea bertan bazkaltzeko... Une txiki horiek umei laguntzen diete egunean zehar erreferentzia egonkorra aurkitzen. Gurea bezalako egitura batean, haur bakoitzak bere proiektua egingo du eta bera izango da aktore nagusia, ez zaio ezertxo ere inposatzen, guztiz errespetatuko dute nagusiek haurrek aukeratzen dutena. Horrek ez du esan nahi araurik ez dagoenik, arauak badaude, baina haurrak ez dira egongo debekuen ondorioz estututa edo larri, horrek antsietatea edo inhibizioa sortzen duelako. Adibidez, demagun haur bat egarriak dagoela: dena gertu izango du berak bere kabuz ura edan dezan, baina ur hori ezin izango du erabili lurra bustitzeko. Urarekin jolas egin nahi baldin badu, horretarako beste toki bat izango du.

Horrekin batera, hainbat jarduerak estimulatzaile egiten dituzte gure lan taldeak. Jarrera artistikoak eta kulturalak kontutan hartzen dira gure proiektuan. Horren bidez, hainbat artista eskolan sartzen dira: musikariak... Azken batean, alderdi praktikokoak lekua uzten dio imajinarioari, eremu sinbolikoari, gozamenari... Ez dago araurik, nolabait esan, adierazpide edo espresio artistikoa landu nahi da, baina arauak gaindituak. Hezitzaileak haurrengandik gertu egon behar dira agertutako emozio horiek bideratzeko.

Atal honekin bukatzeko, sistema honen bidez haurra erdigunean dago, ez da haurra sistemako egituretara egokitzen, baizik eta sistema egokitzen da. Haurrari baldintza egokiak eskaintzen zaizkio, gehiegizko estimulaziorik gabe, debekurik gabe... jarraipen modu bat eskaintzen zaio eta horrela kalitatea bermatzeko modua daukagu.

Gure haur eskolako guneak:

- **Gurasoentzako gunea edo espazioa:** gurasoak bakarrik eta gurasoak hurrekin egoteko gunea dugu. Arropak uzteko lekua daukate. Gela honetan gurasoen artean hitz egiteko aukera dago, komunikazio hori lantzea oso garrantzitsua baita. Gurasoak eta haurrak banatzeko pauso berezi batzuk daude. Banaketa hori modu oso erosoan eta lasaian gertatzen da. Banaketa momentua haurrak berak zabalitzen du atea, hau da, berak ematen dio amari baimena joateko. Hala ere, hezitzailearekin gelditzeko gertu egon arte ama zain gelditzen da.

- **Haur eskolaren egitura:** Mugitzeko toki oso zabala izaten da eta haurrak batera eta bestera ibiltzen dira askatasun osoz. Umeek espazio honetan hainbat aukera dauzkate, beraz, beraien beharrik beraien asetzen dituzte: haginak garbitu, eskuak garbitu... Jarduera guztiak horrelako jarrera orokor baten barruan daude.
- **Komunak:** umeek nahi dutenean joan daitezke komunera.
- **Lo egiteko tokiak:** borobil itxura daukan logela bat da. Horrek segurtasun irudipena ematen die. Umeek beraien asetzen dute noiz, non eta nola lo egin.
- **Motrizitatea:** hainbat jardueren bitartez lantzen dute motrizitatea. Mugitzeko aukera asko dituzte, beraz.
- **Arte grafikoa:** motrizitatea landu ondoren arte grafikoa lantzen dituzte.
- **Musika gela:** musikari bat eraman egin dugu haur eskolan lan egiteko. Hainbat ins-

trumentu daude gelan. Musika egiten hasi aurretik baikoitzak bat aukeratu eta berea egin behar du.

- **Igerilekua:** txikia da baina esperimentazio eta esplorazio aukera izugarriak ematen dizkio haurrari. Gure haur eskolan dagoen igerilekua artista baten lana da. Lehengai neutroak erabiltzen ditu: olio, lurra... Baina artista plastikoa hori benetan ausarta da, ez dauka beldurrik.
- **Loretokiak:** osagarri ona da, aparteko tokiak da hor natura deskubritzen dutelako. Nolabaiteko baratza eta basoa irudikatzen du. Hor hainbat jolas antola daitezke irudimena oinarritzat hartuta.

Bukatzeko, zera esan nahiko nuke: 11 urte daramagu lan honetan eta bide honetatik jarraituz gero ume autonomo eta sortzaileak izatea lortuko dugu. Horren bidez, delinkuentziari, indarkeriari intolerantziari aurre egitea lortuko dugu.



L. Prieto

0-3ko haur esko

Alexander Barandiaran, Iñaki Larrea (alex_barandiaran@ehu.edu; inaki.larrea@ehu.edu)

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak



Guztiok dakigu 0-3ko haur eskolek gure gizartean geroz eta garrantzia handiagoa daukatela; izan ere, geroz eta gehiago dira zentro horietara doazen haurrak eta, era berean, geroz eta gehiago dira haur horiek bertan ematen dituzten orduak. Eskolaratze fenomeno geldiezin honen ondorioz, gizarteak gutxi-asko onartu du errealitate hori eta normalizat ere hartu du adin goiztiarreko haurra eskolara joatea. Gizartearen onarpenarekin batera, ikertzaileek baztertu egin dute 0-3ko haur eskolen komenigarritasunari buruzko garai bateko eztabaida; hau da, alde batera utzi dute haurrak eskolara joatea ona edo txarra ote den eztabaidatzen zuen liskarra. Gaur egungo eztabaida nagusiki kokatzen da haur eskolaren konfigurazioan.

Adin goiztiarreko haurrak eskolara joatea ontzat hartu denez, ikertzaileak saiatzen ari dira zehazten nolako ezaugarriak izan behar dituzten zentro horiek haurraren garapen ebolutibo osasuntsua bultzatzeko. Nolabait, esan daiteke haur eskolen konfigurazioan jarri dela arreta eta, horrekin batera, azpimarratu behar da konfigurazioaren egokitasuna aipatzen hasi dela. Modu horretan, aldagai garrantzitsutzat hartzen hasi dira haur eskolaren egokitasuna zein kalitatea. Ikertzaileek defendatu dute haur eskolen kalitatearen eta haurraren garapen ebolutiboaren artean harreman estua dagoela. Ildo beretik, zenbait ikerketak erakutsi dute haur eskolaren kalitateak haurraren garapen afektiboa, kognitiboa eta soziala baldintza ditzakeela (Burchinal, Roberts, Riggins, Zeisel, Neebe, eta Bryant; 2000; NICHD,

1997; 2000; Peisner-Feinberg, Clifford, Culkin, Howes eta Kagan, 1999;). Baieztapen horren arabera, zenbat eta kalitate altuagoa, orduan eta emaitza altuagoak lortzen dira garapen afektiboari, kognitiboari eta sozialari dagozkien frogetan. Beraz, tesi horren arabera, ezinbestekotzat hartu da haur eskolek kalitate parametro gutxi batzuk izatea. Azken lerro horiek irakurrita, agian, irakurleak galde diezaioke bere buruari ea zeintzuk diren, hortaz, kalitate parametro horiek. Edo, beste era batera esanda, itaundu dezake ea zein ezaugarri izan behar dituen haur eskola batek kalitatezko eskaintza bat egin ahal izateko. Ikertzaileek galdera horiek guztiak erantzuteko saiakerak egin dituzte eta, ahalegin horren ondorioz, haur eskola batek zaindu behar dituen 8 aldagai laburbildu dituzte:

...len ebaluazioa

1. Hezitzaileen formazioa.
2. Hezitzaile-haur ratioa.
3. Haur eskolaren antolamendua: espazioa eta denbora.
4. Haur eskolaren eta familiaren arteko komunikazioa eta harremana.
5. Hezkuntza politika.
6. Hezkuntzaren planifikazioa.
7. Haur eskola haurraren gune seguru gisa.
8. Ebaluazio jarraitua.

Hain zuzen ere, artikulu honek jorratuko du ebaluazio jarraituari dagokion azken aldagai hori. Agian, batek baino gehiagok zalantza izan ditzake bere haur eskolaren kalitatearen inguruan. Zalantza horiek direla eta, jakin behar da ebaluazio jarraituak balio duela aurrez aipatutako kalitate adierazle horiek guztiak zein neurritan ematen diren jakiteko. Halaber, jakin behar litzateke baliabideak eta tresnak egon badaudela haur eskolen egokitasuna ebaluatzeko eta ikerlariak bat datozela tresna horiek baliatzearekin. Ebaluazioa garrantzitsua da haur eskolaren nolabaiteko diagnosia egiten duelako; azken batean, beharrak, gabeziak edota indar-guneak identifikatzen dituelako. Gainera, hobetu edota mantendu beharrekoa identifikatuta, hobetzeko lehen urratsa ematen da eta hain zuzen ere hor dago ebaluazio ja-

rraituaren benetako balioa, hobekuntzan, alegia. Ikertzaile garrantzitsuenek ebaluazioaren garrantzia azpimarratzen dute, batez ere, hobekuntzak egiteko baliabideak hartuta. Filosofia horrekin eratu zituzten hainbat ebaluazio instrumentu: lehenengo, egoeraren deskripzioa egiteko eta, ondoren, beharra zuten aldagaietan hobekuntzak egin ahal izateko. Nahiz eta ebaluazio instrumentu ugari egon, ikertzaileek nagusiki horietako bi azpimarratzen dituzte 0-3ko haur es-

koletarako: ORCE (NICHHD, 1991) eta ITERS berria (Harms, Cryer eta Clifford, 1998).

ORCE: gela bateko elkarrekin-tzak eta harremanak sakonki ebaluatzen ditu. Besteak beste, ondorengo esparruak kualitatiboki neurtzen ditu: hezitzailearen sentikortasuna, garapen kognitiboaren estimulazioa, haurraren jarduera eta aktibotasun maila, bortizkeria, banantze-uneak, haurraren arreta... Bestalde, heziketa jokabideen maiztasuna az-



1. PERRIN

tertzeko eskalak hainbat arlotan jasotzen ditu: elkarrekintzak, jokatibideen zuzentasuna, garapeneren estimulazioa, haurraren jokatibidea, bakarkako jarduerak eta haurraren eta beste haurren arteko elkarrekintzak.

ITERS: eskala honek maila estrukturalen 0-3ko haur eskolen kalitatea ebaluatzen du. Haur eskolen ebaluazioari dagokionez ITERS da zehazki 0-3ko adin tarteari egokitutako lehenengo instrumentua. Agian horregatik, hamaika herrialdetan erabili da ITERS: Herbeheretan (van IJzendoorn, Tavecchio, Stams,

Giota, 1995), Grezian (Petrogiannis eta Melhuish, 1996), Ingalaterran (Mooney, 1996), Portugalen (de Oliveira, Campos-de-Carvalho, 2000), Italian (Varin, 1996), Kanadan (Schliecker, 1991)... Herrialde guzti-guztietan azpimarratu dute instrumentuaren balioa eta ikerketek erakutsi dute ITERS eskalak benetan fidagarritasun handia duela (0,92). Frogatutako baliagarritasun hori ITERS Euskal Herrian aplikatzeko arrazoi nagusietako bat izan zen. Gainera, behaketaren bidez osatu beharreko eskalaren 35 itemek zentroen aldagai ugari jasotzen zituzten eta, ondorioz, aukera ona eskaintzen zuten haur eskolen kalitatearen ikuspegi orokorra izateko; izan ere, 35 item horiek oso bestelako 7 azpi-eskaletan banaturik zeuden:

- 1. Espazioa eta altzariak (5 item).** Bertan ebaluatzen dira jarreraian ageri diren alderdiak: zaintza ohituretarako (lo, jan...), ikaskuntza ekintzetarako, erlaxazio eta atsedenerako eta gelaren antolaketarako espazioa eta altzariak eta, azkenik, gelaren apainketa bera.
- 2. Zaintza ohiturak (9 item).** Azpi-eskala honetan ebaluatzen

dira ondoko uneak: harrera eta agurra, otorduak, loa, fardel aldaketa eta garbitasuna, zaintza pertsonala, osasuna eta aldagai honi dagokion politika eta, azkenik, segurtasuna eta aldagai honi dagokion politika.

- 3. Hizkuntza eta arrazoiak (2 item).** Bertan baloratzen dira hizkuntza ez-formala eta liburuak eta argazkiak.
- 4. Ikaskuntzarako jarduerak (8 item).** Begi-esku koordinazioa lantzeko jarduerak, jarduera fisikoak, jarduera artistikoak, musika eta mugimendua lantzeko ekintzak, erakuntza eskatzen duten jarduerak, jarduera sozio-dramatikoak, hondarra eta ura erabiltzen dituzten ekintzak eta, azkenik, jardueretan aniztasunak duen trataera ebaluatzen dira.
- 5. Elkarrekintzak (3 item).** Azpi-eskala honetan aztergai dira haurren arteko elkarrekintzak, hezitzailearen eta haurraren arteko elkarrekintzak eta diziplina.
- 6. Programaren antolaketa (4 item).** Bertan ondoko alderdiak ebaluatzen dira: eguneroko jardueren ordutegia, eguneroko jardueren ikuskaritza, hezitzaileen arteko lan-kidetzeta eta hezkuntza premia berezien trataera
- 7. Gurasoak eta langileak (4 item).** Azken azpi-eskala honetan helduei dagozkien ondoko alderdiak ebaluatzen dira: helduen beharrak, garapen profesionalerako aukerak, bilera gela eta gurasoenganako arreta.

ITERS aplikatzerakoan, kon-tuan izan behar da item bakoitzak 7 puntuko eskala duela. Be-

Herrialde guzti-guztietan azpimarratu dute instrumentuaren balioa eta ikerketek erakutsi dute ITERS eskalak benetan fidagarritasun handia duela

Verhoeven eta Reiling, 1998), AEBetan (Phillipsen, 1995, Scarr, 1994...), Alemanian (Tietze, 1996), Suedian (Kärrby eta




1 R. Verhoeven

raz, item bakoitza puntuatzeko 1 eta 7 arteko emaitza bat aukeratu behar da. Puntuazio horiek interpretatzeko kontuan izan behar dugu 1ekoa desegokia, 3koa gutxienekoa, 5ekoa ona eta 7koa bikaina direla.


Lagina:

ITERS eskala aplikatu zen Gipuzkoako 5 haur eskoletan. Are zehazkiago, esan behar da ebaluatu zirela zentro horietako urte bat eta 3 urte bitarteko haurren 14 gela. 14 gela horietatik 5 gela 1-2 adin tartekoak ziren eta 9, berriz, 2-3 adin tartekoak. Guztira 174 haur zeuden gela horietan eta horiek osatzen zuten gure lagina, Gipuzkoako 5 haur eskolek, 14 gelak eta 174 haur horiek. Jarraian ikus daiteke adin tartearen arabera lagina nola zegoen osatua:



Ikus daitekeenez, askoz ere gehiago ziren 2-3ko gelak eta haurrak. Datu horien arrazoia da hainbat ikastetxeek 1-2 urteko gelarik ez izatea. Ondorioz, ITERS eskalaren aplikazio honetan, gela gehientsuenak nagusiki bi haur eskoletan kokatzen dira; izan

ere, zentro horiek dira urte beteko gelak dituzten bakarrak. Jarraian ikus daitekeenez, gainontzeko zentroek urte beteko haurrentzako gelarik ez izateak eragin nabarmena du zentro bakoitzaren haur kopuruan:



Metodologia

ITERS instrumentua gela zehatz batean erabiltzeko nolabaiteko prozedura eratu zen. Lehenik, gelako tutorearekin elkarrizketa informala egiten zen, orduantxe, gela-

ri buruzko hainbat datu eskuratzeko: matrikulatutako haur kopurua, haurren adinak, hezkuntza premia bereziko ikasleak, hezitzailearen formazioa eta abar. Datu horiek guztiak osatu ondoren, zehazki gelako behaketari hasiera ematen zitzaion. Gelan, eskuarki goiz osoa ematen zen eta bazkari eta siesta uneak ere behatzen ziren arratsaldean ere jarduna eskaintzen zuten haur eskoletan. Gelan sartu eta hasierako minutu horiek ez ziren datuak jasotzeko baliatzen. Pertsona arrotz batek gelako ohiko jarduna kutsatzeko arriskua duenez, hasierako minutuak ez ziren datuak jasotzeko egokienak. Haurrek lasaitasuna eta pertsona arrotza nolabait onartzen zutenean, orduantxe hasten zen ITERS eskalaren osaketa. Gainera, hasiera batean espazioari eta altzariei dagozkien itemak osatzen ziren haurren egoeraren eraginik ez dutelako. Azpi-eskala hori osatzerakoan, gainontzeko item eta azpi-eskalak osatzeko une aproposagoak izaten ziren.

Datu-bilketaren lehenengo egunean ahalik eta item gehien osatu eta gero, hurrengo eguneko goiza falta ziren datuak osa-



1. BIKERETA

tzeko erabiltzen zen. Behin datu horiek eskuratuta, hezitzaileekin beste berbaldi bat izaten zen, batez ere, gera zitezkeen itemak osatzeko edota zalantzarriak ziren alderdiak argitzeko. Datu-bilketa amaitutzat ematen zenean, datu horiek guztiak informatizatzen ziren datuen analisiari ekin ahal izateko.

Emaitzak

Emaitzekin hasi baino lehenago, gogoratu behar da, ITERS eskalaren puntuazio sistemaren arabera, puntuazio guzti-guztiak 1 eta 7 zenbakien artean kokatzen direla. Halaber, gaineratu behar da 1ekoa emaitza desegokia, 3koa gutxienekoa, 5ekoa egokia eta 7koa bikaina direla.

Puntuazioari buruzko aipu horiek guztiak egin eta gero, zuzenean joan daiteke ITERS eskalaren batez besteko emaitzak ezagutzera. Lehenik, haur eskolara eginiko bereizketa aztertuko dugu; hau da, zentro bakoitzaren gela analitiko ateratako ITERS bakoitzaren batez bestekoa agertuko da:

Haur eskolen ITERS emaitza

Haur eskola 1	5,28
Haur eskola 2	4,34
Haur eskola 3	4,13
Haur eskola 4	4,72
Haur eskola 5	4,38
Batez bestekoa	4,61

ITERS emaitza haur eskola

Ikus daitekeenez, Gipuzkoako haur eskola horietako batez bestekoa 4,61ekoa da. Dena den, haur eskola bakoitzaren emaitza alderatuz gero, estatistikoki baieztatu daiteke batez besteko horiek esanguratsuki ezberdinak direla eta, ondorioz, aldeak egon

badaudela haur eskolen artean.

Hala ere, emaitza horiek hobeto irudikatzeko, baliagarria izan daiteke Gipuzkoako haur eskolek lortutako emaitzak alderatzea beste herrialdeetako ikerlanen emaitzekin. Beraz, 4,61eko batez besteko hori ITERS erabili duten beste herrialdeetako emaitzekin konparatuko da:

Herrialdea	Gela kopurua (n)	ITERS M	ITERS SD
Herbeherak	43	4,8	,61
Gipuzkoa	14	4,6	,51
Portugal	28	4,4	,63
Alemania	103	4,4	,74
Suedia	40	4,4	,73
Kanada	10	4,4	1,56
AEB	895	3,8	1,01
Italia	6	3,7	-
Grezia	25	3,5	,70
Ingalaterra	60	3,0	,70


ITERS emaitza herrialde

Datu horiek ikusita, hainbat ondorio atera daitezke. Lehenik, errealitateak ugariak direla herrialde bakoitzaren barruan. Horrela dela erakusten du taulan ageri den desbiderapen tipikoak (SD). Gainera, zenbait kasutan, Kanadarena kasu, desbiderapena benetan handia da (1,56). Bigarrenik, azpimarratu behar da azken urteotan oso bestelako laginak erabili direla eta, ondorioz, alde itzela dagoela herrialdeen artean. AEBetan hainbat ikerketetako datuak jaso ondoren, 895 geletara iritsi ziren. Italian, berriaz, soilik 6 gela aztertu zituen ikerketa besterik ez dago, hortaz, Gipuzkoako ikerketa baino lagin are baxuagoa. Kontuak kontu, emaitzek erakusten dute badirudiela Herbeheretako haur eskolak egokitasun handienekoak direla; izan ere, 4,8ko puntuazio

hori gainontzeko herrialdeetatik nahiko urrun gelditzen da. Gainera, esan daiteke gehien hurbiltzen zaion testuingurua Gipuzkoakoa dela. 4,61eko batez besteko horrek nahiko ongi uzten ditu lurralde honetako haur eskolak. Adibidez, Gipuzkoako haur eskola horien guztien emaitzek erakusten dute hainbat herrialderen gainetik daudela; izan ere, azpimarratu behar da Grezia, Italia, AEBak eta, batez ere, Ingalaterra 4ko puntuaziora ere heltzen ez direla.

Beraz, ontzat har daitezke ITERS eskalaren emaitza orokorrak. Hala ere, interesgarria da ezagutzera azpi-eskaletan batez besteko horiek uniformeki mantendu diren edo, aitzitik, gorabeherak eman diren. Hurrengo grafikoak erakutsiko dizkigu 5 haur eskola horietako 14 gelek azpi-eskala bakoitzean lortutako batez bestekoak:

Gela gutxiak batez besteko azpi-eskala




Grafikoak aditzera ematen du azpi-eskalen artean gorabeherak egon badaudela; izan ere, "Hizkuntza eta arrazonamendua" (5,96), "Elkarrekintzak"

(6,55) eta "Programa" (6,14) azpi-eskalek oso emaitza positiboak lortzen dituzten bitartean, emaitza apalagoak lortzen dituzte "Zaintza ohiturak" (3,44) eta "Gurasoak eta langileria" (3,57) azpi-eskalek. Tartean kokatuko liriteke "Espazioa eta Altzariak" (4,77) eta "Ikaskuntzarako jarduerak" (4,52) azpi-eskaletan lortutako emaitzak. Emaitza horiek erakusten dute zertan hobetu behar den eta, aitzitik, zer mantendu behar den.


Bestalde, gaineratu behar da gelaren adin-tartearen arabera alde esanguratsurik ez zela aurkitu. Nahiz eta 2-3ko gelek 1-2koek baino emaitza hobekak lortu, estatistikoki ez zen bien arteko alde esanguratsurik aurkitu. Dena den, hurrengo grafikoak erakusten du 2-3ko gelek emaitza hobetarako joera eduki badaukatela:

ITERS eskalaren emaitza



Korrelazioak:

ITERS eskalaren batez bestekoari dagokionez, nahitaez azpimarratu behar da lau azpi-eskalekin duen korrelazioa. Batez ere nabarmendu behar da espazioa eta



ESTER, Jon FATELLE. *Libro L'explorateur* no. 1110 (en línea) 1987

alztariak aztertzen dituen azpi-eskalarekiko korrelazioa 1era hurbiltzen dela ($r = 0,931$; $p < 0,01$). Hortaz, ondorioztatu behar da "Espazioa eta Alztariak" azpi-eskalaren eta ITERS eskalaren emaitzen artean korrelazio esanguratsu handia dagoela.

Dena den, ITERS eskalaren emaitzek korrelazioa dute azpi-eskala gehiagorekin, "Zaintza Ohiturak" azpi-eskalarekin adi-

bidez. Esan behar da azpi-eskala honekin duen korrelazioa ere nahiko handia dela ($r = 0,828$; $p < 0,01$). Hortaz, nabarmendu behar da "Zaintza Ohiturak" item multzoak eta ITERS eskalaren emaitza orokorrekin korrelazio esanguratsua daukatela 0,01 mailan.

Horrez gain, gaineratu behar da ITERS eskalaren emaitza orokorrekin haur eskoletako jardunak



1. PIRELLA

aztertzen dituen azpi-eskalarekin korrelazioa dutela. Korrelazio hori ere esanguratsua da 0,01 mailan ($r=0,728$; $p<0,01$). Ikus daitekeen bezala, orain arteko korrelazio guzti-guztiak zuzenak dira eta, hortaz, gogorarazi behar da alderantzizko korrelazio esanguratsurik ez dela eman.

ITERS instrumentuaren emaitza orokorren korrelazioekin amaitzeko, aipatu behar da datu horiek eta hizkuntza eta arrazonomenduaren trataera az-

“Espazioa eta Altzariak”, “Zaintza Ohiturak”, “Ikaskuntzarako jardunak” eta “Hizkuntza eta Arrazonomendua”.

Bestalde, datuen analititik ondorioztatu zen hezitzailearen eta haurren elkarrekintzek eta haurren artekoek korrelazio esanguratsua zeukatela beraien artean ($r=0,643$; $p<0,05$); hau da, hezitzailearen eta haurren arteko hartu-emanak estuki loturik zeudela haurrek beraien artean zituzten elkarrekintzekin.

Ondorioak:

Gipuzkoako haur eskoletan eginko ikerketa honetatik, lehenik eta behin, ondoriozta daiteke zentro horiek nahiko kalitate altua erakusten dutela (4,61), gutxienik, nazioarteko beste haur eskolekin alderatuz gero. Era berean, nahiz eta gela guzti-guztiak Gipuzkoan kokatu, desbiderapen tipikoak aditzera ematen digu 0-3koaren errealitatea anitza dela.

Bestalde, nahiz eta haur eskola horiek lortutako batez bestekoa nahiko ona izan (4,61), gogoratu behar da azpi-eskala bazuetan emaitzak ez direla ego-

kiegiak izan. Batez ere zaintza ohiturei dagokien azpi-eskalak oso emaitza eskasak lortu ditu (3,44) eta, ezbairik gabe, datu horrek gogorarazten digu hainbat alderdik hobetu beharra daukatela. Dena den, gogoratu behar da Gipuzkoan egindakoak ez ezik, Herbeheretan egindako ikerketak ere emaitza kaskarrak lortu zituela azpi-eskala honetan. Hala ere, bi ikerketen adostasunak ez du emaitza horien aitzakia bihurtu behar, batez ere, azpi-eskala honek baloratzen dituen haur txikien higiena, osasuna edota segurtasuna jokoan daudenean.

Orain artekoaz gain, gaineratu behar da korrelazio interesgarriak irten direla egindako aplikaziotik. Korrelazio esanguratsuak arrastotzat har daitezke haur eskolaren kalitatea nola egituratzen den ulertzeko. Azken batean, korrelazio esanguratsu horiek erakusten dute zerk duen eragin zuzena kalitatearen emaitzan. Gainera, aurkikuntza interesgarritzat har daiteke haurren eta hezitzaileen arteko elkarrekintzen eta haurren beraien arteko hartu-emanen artean estatistikoki korrelazio esanguratsua da goela jakitea.

Zentroen hobekuntza jomugatzat hartuta, gure asmoa ildo honetatik jarraitzea da, horretarako, nazioarte mailan ikerlanek garatu dituzten baliabideak eskuratzeko saiaturiko gara eta tresna horiek geure errealitatera egokitzeko urratsak emango dira.

tertzen duen azpi-eskalaren artekoa. Nahiz eta korrelazioa aurrekoak baino maila apalagoa izan, bi aldagai horien arteko korrelazioa esanguratsua da 0,05 mailan ($r=0,569$; $p<0,05$). Ikus daitekeen bezala, maila baxuagoko korrelazioa da, baina, aldi berean, esanguratsua izaten jarraitzen. Laburbilduz, esan daiteke ITERS instrumentuaren emaitza orokorren eta jarraian azalduko diren azpi-eskalen artean korrelazio esanguratsuak aurkitu direla:



123-456-789-0

Aipatutako guztiagatik garrantzitsua da ITERS instrumentuarekin egiten den lana; izan ere, korrelazioen berri emateaz gain, azpi-eskaletan ematen diren gabeziak identifikatzen laguntzen baitu. Halaber, haur eskolaren alderdi estrukturalen kalitatea hainbat esparrutan zehazten du eta, inolako zalantzarik gabe, diagnosi-lan hori benetan baliagarria da etorkizunean zentroek hobekuntzak egin ditzaten. Baliagarritasun hori dela eta, instrumentu honetatik lortutako emaitzen arabera, zentroei gabeziak eta alderdi indartsuak helarazten zaizkie, eurek hobekuntzak egin ditzaten.

Hain zuzen ere, hobekuntzan oinarritzen den ebaluazio formatiboaren ildotik, instrumentuaren baliagarritasuna azpimarratu gura da. Arestian esan bezala, instrumentuak parada ematen du haur eskolen alderdi indartsuak eta hain ondo ez daudenak

identifikatzeko. Gainera, maiztasun batez ITERS erabiliz gero, haur eskolako profesionalak jakin dezakete kalitatea igotzen ari den edota, aitzitik, berau jaisten ari den. Era berean, ITERS aplikatzeak aukera ematen du kalitatearen nolabaiteko konfigurazioa —arrazoiak eta ondorioak— hobeto ezagutzeko. Zalantzarik gabe, kalitatea monitorizatzeak abantaila handiak ditu, azken batean, haur eskolen egokitasunaren inguruan aritzeko balio du-eta: kalitatearen egituran sakontzen du, alderdiak identifikatzen ditu, jomugak zehazten ditu... Aipatutako horrek guztiak geroz eta zentro hobeak izaten lagun diezaguke. Hain zuzen ere, zentroak hobetzeko eskaintzen duten laguntza horixe bera da instrumentu honen baliagarritasunik handiena eta, halaber, litekeena da hezkuntzaren hobekuntzarako desio hori benetan garrantzitsua izatea haur eskoletan hurrek garapen eboluti-

borako egoerarik hoberenak izan ditzaten.

Amaitzeko, nabarmendu behar da ikerketa honen baliagarritasuna Euskal Herri mailan. Batetik, baliotsua da horrelako lanik gurean egin ez delako eta egiteak aukera ematen duelako kalitatearen inguruko ikerlan defizitarekin amaitzeko. Bestetik, garrantzitsua da haur eskolen diagnosi eta hobekuntzarako orain arte esploratu ez dugun ate berri bat ireki delako. Zentroen hobekuntza jomugatzat hartuta, gure asmoa ildo honetatik jarraitzea da, horretarako, nazioarte mailan ikerlariek garatu dituzten baliabideak eskuratzeko saiaturako gara eta tresna horiek geure errealitatera egokitze urratsak emango dira. Lan horiekin espero da haur eskolei euren kalitatea hobetzeko bideak irekitzea eta, modu horretan, 0-3ko zentroentzat lagungarri izatea.



188-087-0000

Munduko hir

SOMOS PROTAGONISTAS DE NUESTRO

Alboan

Aurkezpena

“Munduko hiritarrok. Somos protagonistas de nuestro mundo” ALBOAN Fundazioaren hezkuntza-proposamena da herritartasun-kontzeptua lantzeko. Gure ustez, gaur egun balioen hezkuntzan lantzen ditugun alderdi asko bildu ditzake herritartasun-kontzeptuak, eta tokian tokikoaren eta globalaren artean elkarrekiko mendekotasun eta lotura ikusten lagun diezaguke. Proiektuaren helburua hau da:

- herritartasun aktibo, erantzule, solidario eta kritikoa sustatzea gazteen hezkuntza-prozesuan, nazioarteko ordena bidezkoagoa eta demokratizazio sakontzea lortzeko, eta
- irakasleei nahiz ikasleei prestakuntza eta hezkuntza-baliabideak ematea herritartasun aktibo, kritiko eta solidario horren eraikuntzan konprometitzuz.

Proposamen honek hezkuntza-prozesuaren emaitza izan behar du. Horregatik, hiru urtetan zehar funtsezko zenbait elementu lantzea proposatzen dugu, herritartasun horren oinarriak ezartzeko.

Lehen urtean: Eskubideak eta betebeharrak.

Bigarren urtean: Gizartearen parte-hartzea.

Hirugarren urtean: Gatazkak kudeatzea.

Hezkuntza-proposamena

Munduko hiritarrok materialaren barruan badira oinarritzko zenbait dokumentu, eta horiek proiektu osoan nahiz urte bakoitzean bereziki landu nahi diren filosofia eta alderdiak azaltzen dizkieten irakasleei.

Hona hemen gai bakoitzean lantzeko ideia nagusiak.

Eskubide eta betebeharren, eskubide eta erantzunbeharren gairako proposamenean prestatu den materialaz ondorengo ideiak transmititu nahi dira:

- Giza eskubideak pertsona guztienak dira.
- Pertsona guztienak ez diren eskubideak gutxi batzuen pribilegioak izaten dira.
- Eskubideek betebeharrak batzuk dituzte berekin.
- Eskubideak nahiz betebeharrak familian, ikasgelan, auzoan, herri edo hirian daude.

Pertsona guztientzako eskubide eta betebeharren aitortze hau errealitate bihurtzeko konprometitu eta parte hartu behar dugu. Horregatik, bigarren material-kit batean gizartearen parte-hartzea aztertu dugu eta ideia nagusi hauek lantzea proposatu dugu:

- Gizarte-lorpen gehienak antolatutako pertsona askoren ahalegin eta parte-hartzeari esker lortu dira.
- Eremu zabalagoetan parte hartzeko hurbilago ditugun eremuetan (familian, ikasgelan, auzoan) ere hartu behar da parte.
- Mundua eraldatzen parte hartzeko aukera asko dago.
- Parte-hartzeari esker guztiok izan gaitzke bizi garen munduko protagonista.

Baina guztiok parte hartzen dugunean interes eta premia desberdinekin topo egiten dugu eta horrek eragin ditzakeen gatazkei aurre egin behar diegu. Horregatik, gatazka-kudeaketaren gaia ideia hauekin aztertu dugu:

- Gatazkak ezinbestekoak dira gure bizitzan eta elkarbizitzan. Ez dago gizarte-bizitzarik gatazkarik gabe.

Itarrok

MUNDO

- Indarkeria guztiak ez dira gatazkaren adierazpen, eta gatazka guztiek ere ez dituzte indarkeriazko adierazpenak sortzen.
- Heldutasuna duten herritarrek gatazka elkarrizketarantz bideratzen dute.
- Gatazka aukera ona izan daiteke inplikaturiko aldeen hazkunderako, betiere bake-bideetatik kudeatzen asmatzen badugu.

Baliabideak

Eskatzen duten ikastetxeentzat eta irakasleentzat ondorengo material elebiduna daukagu, gorago aurkezturiko gai horietako bakoitzarentzat espezifikoak.

Ikastetxea girotzeko kartelak

Hamar kartel hauek ikastetxea girotzeko balio dute, baita gai bakoitzaz gogoeta egin eta lantzeko ere.

Proposamen didaktikoak

Hainbat proposamen didaktiko dago curriculumaren barruan lehen irakaskuntzan eta bigarren irakaskuntzan (lehen

eta bigarren zikloetan) eta batxilergoan ikasgelan lantzeko:

- Irakasleentzako materiala proiektuari buruzko oinarriko dokumentazioarekin eta urteko proposamenarekin.
- Jakintza-arlo bakoitzerako hezkuntza-proposamen egoikiak.

Ikastetxeen arteko proposamena

Aldizkari birtual bat egiten parte hartzeko aukera planteatzen da, Alboan-en web orrian agertuko dena.

Jolasa

Aurkeztuko den jolas honek aukera emango du gai bakoitzera jolasaren eta hezkuntzaren ikuspegitik hurbiltzeko.

Bideoa eta lan-proposamena

Gai bakoitza ikus-entzunezko baliabide baten bidez landu daiteke, ikasleentzat —batez ere, bigarren irakaskuntzako eta batxilergokoentzat— erakargarri izateko moduan. Ikus-entzunezko materialarekin batera gida bat banatzen da, bideoa ikusi aurretik, bitartean eta ondoren egin



daitezkeen ekintzak proposatzen dituen.

Aholkularitza eta prestakuntza

Fundazioak aholkularitza eskaintzen die ikasgelan gai eta proposamen hauek landu nahi dituzten hezitzaileei, baita baliabide-zentro bat ere kontsultarako.

Material hauek guztiak

ALBDAN Fundazioaren

web orrian kontsulta

daitezke

(www.alboan.org) edota

ALBDAN-ek dituen

egoitzetan eskatu:

- Bilbo: 94/4151135
- Donostia: 943/275173
- Iruñea: 948/211302



ms
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA